



**Economistas  
sin Fronteras**

**MgE dosierrak**  
54. zk, 2024ko uda

# **EKINTZAILETZAREN EGUNGO ERRONKETARAKO ESTRATEGIAK, ALIANZAK ETA IRTENBIDE KOLEKTIBOAK, EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN**





## AURKIBIDEA

- 4 AURKEZPENA: Ekintzailetzaren egungo erronketarako estrategiak, aliantzak eta irtenbide kolektiboak, Ekonomia Sozial eta Solidarioan**  
María Atienza de Andrés eta Blanca Crespo Arnold  
REAS Sareen Sarea  
Elena Novillo Martín eta Romina Vinocur  
Mugarik gabeko Ekonomialariak
- 06 Desazkundetik haztea, elkarriketa beharrezkoak**  
Guernica Facundo Vericat  
ECOS Taldea
- 11 Ekintzailetzaren denbora-lerro bat eraikiz Ekonomia Sozial eta Solidarioan: etorkizunerako zantzuak**  
María Atienza de Andrés  
REAS Sareen Sarea
- 16 Paragrafo berri bat kontakizun propio baterako: ekintzailetza sozial, solidario eta eraldatzaile baterako ekarpenak**  
C2C Conversaciones topaketako talde eragilea
- 21 Ekonomia eraldatzailearen eguneroko erronkak eta hartan oinarritutako alternatibak**  
Sara Sama Acedo  
Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UNED)  
Gema Alcañiz Olmedo  
Cisneros Kardinala Unibertsitate Zentroa
- 27 Emakumeak, ekintzailetza eta finantza-inklusioa**  
Cristina de la Cruz-Ayuso  
Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua  
Deustuko Unibertsitatea
- 31 Ekonomia sozial eta solidarioan ekitea: testuinguru atseginagoa emakumeentzat?**  
Ana Lorenzo Vila eta Sandra Salsón Martín  
Juana Millán Emakume Ekintzaileen Eskola
- 36 Ekintzailetza solidario eta landa-eremukoak: bizitza lehenesteko tresna**  
Landaren eta Nazioarteko Nekazaritzaren Ikerketa Zentroa (CERAI)
- 42 Zergatik da positiboa pertsonentzat, enpresentzat eta gizartearentzat Ekonomia Sozial eta Solidariotik ekitea?**  
Elena Novillo Martín eta Romina Vinocur  
Mugarik gabeko Ekonomialariak
- 49 Ekonomia Sozial eta solidarioko elkar-lankidetzak ekonomikoari buruzko diskurtsoetik datuen analisiaren hasierara: ekintzailetza-iturri bat**  
Millán Díaz-Foncea  
LAB\_ES Gizarte Ekonomiako Laborategia  
Zaragozako Unibertsitatea  
Carmen Marcuello  
GESES ikerketa-taldea  
Zaragozako Unibertsitatea  
Alberto Sánchez-Suárez  
Gizarte Ekonomia eta Kooperatibak katedra  
Zaragozako Unibertsitatea
- 54 GOMENDATUTAKO LIBURUA: Libres, dignos y vivos. El poder subversivo de los comunes (Bollier, D. eta Helfrich, S.)**  
Omar de León Naveiro  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea (UCM)
- 57 GEHIAGO JAKITEKO**

**Economistas sin Fronteras erakundeak** tzure laguntza behar du. Uste baduzu gure EsF txostenak edo orokorrean gure jarduerak gizarte-erabilgarritasuna duela, laguniezaguzu gure lana mantentzen. Erreferentziazko GKEa izan nahi dugu bideko ekonomia bilatzeko orduan, gizarte- eta ekonomia eragileen sareko lana sustatu eta elkarriketa errazten laguntzeaz gain. Bakarrik gizarte-partaidetza zabalaren lorpenekin lortu ahal izango baitugu bideko ekonomia. Nahi duzun ekarpen ekonomikoa egin dezakezu:

Ondorengo esteka honetan  
inprimakia beteta:

Edo **BIZUM**: erabiltzearen bidez:



**01895**

Fundazioaren kodea  
Economistas sin Fronteras

Ikus daiteke nola egin dohaintza bizum bidez hemen  
<https://ecosfron.org/unete/dona-con-bizum> //

Gure erakundeko bazkide izan eta Economistas sin Fronteras erakundearekin aldizka lagundu nahi baduzu, gure webgunean dagoen inprimakia osatuta egin dezakezu:

Edo 91 549 72 79 telefono-zenbakira dei dezakezu • Informazio guztia hurrengo webgune honetan: <https://ecosfron.org/unete/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako Espainiako legediak pertsona fisikoek egindako ekarpen eta dohaintzei aldeko tratu fiskala ematen die, PFEZaren kuotan kenkarirako aukera baitago.

## ARGITALPEN KONTSEILUA

Luis Enrique Alonso  
María Eugenia Callejón  
Marta de la Cuesta  
Beatriz Fernández Olit  
María Luisa Gil Payno  
Juan A. Gimeno  
Jorge Malfeito Gaviro  
José Ángel Moreno

## ARGITALPEN TALDEA

María Eugenia Callejón  
Javier Esteban  
Luisa Gil Payno  
Juan A. Gimeno  
José Ángel Moreno

### Ale honen koordinazioa:

**María Atienza de Andrés eta Blanca Crespo Arnold**  
REAS Sareen Sarea


**Elena Novillo Martín eta Romina Vinocur**  
Mugarik gabeko Ekonomialariak

ISSN 2603-848X Dossieres EsF

Azaleko irudia: **Ilustraciones 2+dos** | [dosmasdos.info](http://dosmasdos.info) | [creativas@dosmasdos.info](mailto:creativas@dosmasdos.info)

Maketazioa: LA FACTORÍA DE EDICIONES, SL

**Dossieres EsF Mugarik gabeko Ekonomialariak**  
erakundearen hiru hileroko argitalpen digital bat da.



MgE Dosierrak, Economistas sin Fronteras erakundeak egina (<http://www.ecosfron.org/publicaciones/>), Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala lizentzia baten pean banatzen da (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>). Baimenduta dago lanaren kopiak egitea, osorik edo partzialki, bai eta haren jendaurreko jakinarazpena ere, betiere ez bada helburu komertzialarekin egiten eta jatorrizko lanaren egilea nor den aitortzen bada. Ez da baimentzen lan eratorririk sortzea.

**Mugarik gabeko Ekonomialariak** (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da, 1997an unibertsitate-esparruan sortua, eta gaur egun ekonomia bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra eraiki nahi duten pertsonen osatua; erakundearen lehentasunezko asmoa pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztea da.

**Mugarik gabeko Ekonomialariak** erakundearen uste dugu garapen-eredu berri bat behar dela, ekonomia gizakiaren zerbitzura jar dadin, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, milioika pertsona ekonomiaren zerbitzura egon daitezen.

Gure helburua da gizarte-arloan erantzukizuna hartuko duten herritarrak sortzen laguntzea, modu aktiboan jardun dezaten eta gizartea eraldatzeko premiarekiko konpromisoa har dezaten.

Erreferentziazko GKE bat izan nahi dugu bidezko ekonomiaren bilaketan, eta gizarte- eta ekonomia-eragileen artean elkarriketa errazten eta sareko lana sustatzen lagundu. Izan ere, gizartearen parte-hartze zabal baten bidez soilik lortu ahal izango dugu bidezko ekonomia bat.

Gure bazkideen ekarpenak funtsezkoak dira iraupen luzeko proiektuak planifikatu eta egin ahal izateko.

**Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi**  
EKONOPOL  
Harrobi Plaza, 4,  
48003 Bilbo, Bizkaia  
Tel.: 722 371 633  
[ecosfron.euskadi@ecosfron.org](mailto:ecosfron.euskadi@ecosfron.org)

**Mugarik gabeko Ekonomialariak**  
c/ Gaztambide, 50  
(entrada por el local de SETEM)  
28015 Madrid  
Tel.: 91 549 72 79  
[ecosfron@ecosfron.org](mailto:ecosfron@ecosfron.org)

## EKINTZAILETZAREN EGUNGO ERRONKETARAKO ESTRATEGIAK, ALIANTZAK ETA IRTENBIDE KOLEKTIBOAK, EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN

**María Atienza de Andrés eta Blanca Crespo Arnold**

*REAS Sareen Sarea*

**Elena Novillo Martín eta Romina Vinocur**

*Mugarik gabeko Ekonomialariak*

**E**konomia Sozial eta Solidarioaren (aurrerantzean, ESS) munduan denbora asko daramagu ekintzailtza-prozesuaren faseetara, beharretara eta aukeretara egokitzen diren programak eta tresnak garatzen: bai aurre-ekintzailtzatik eta martxan jartzetik finkatze faseraino, bai laguntza-prozesuetan eta barne-ekintzailtzan, eta bai ibilbide orokorrangoetan edo jarduera-sektore espezifikoetan. Eta bide horretan, geure egin ditugu Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunean<sup>1</sup> jasotako hainbat elementu, hala nola lankidetzaren balioa, komunitateen garapena, feminismoak, prokomunak edo jasangarritasun ekologikoa.

Atzera begira jarritz gero, ekintzailtzaaren sorkuntzan eta garapenean eragina izan duten zenbait elementu identifikatu ditzaugu ESSan. Hala, gure enpresetan eta ekimenetan ikuspegi feminista sartzeak, esaterako, emakume ekintzaileen rola eta gaur egungo erronkak aztertzeak aukera eman du. Horrez gain, ESSaren eredu bera ere aztertu da, hura ekonomia eraldatzaileen testuinguruan kokatuz, eta, horri esker, praktikak eta diskurtsoa aberasteaz gain, haren ideal eraldatzailea indartzeko elementu giltzarri gisa identifikatu dira erakarpen- eta sustapen-estrategiak. Alde horretatik, azken urteotan eta COVID-19aren pandemiaren ondoren, protagonismo handiagoa eman zaio elkar-lankidetzari, nazioarteko agenda askotan dagoen eredu baten erresilientzia-estrategia baita.

Azkenik, ekintzailtzaaren esparruan, ESSaren proposamenak ezin dio iskin egin klima-kolapsoaren testuinguru globalari, eta, beraz, zalantzan jarri behar du mugarik gabeko hazkunde ekonomikoan oinarritutako garapen-eredua.

Ekintzailtza era kolektiboan lantze aldera, 2015az geroztik, *C2C Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustatzaileentzako elkarriketarako, ikaskuntzarako eta elkartrukerako topaketa* antolatu da, REAS Sareen Sareak eta ESSko beste sare eta erakunde batzuek sustatutako foro bat, ekintzailtza solidario eta eraldatzaileen esparruko ekimenak sustatzen eta laguntzen diharduten profesionalentzat, ekintzaileentzat eta erakundeentzat.

2023ko azaroan egin zen topaketa horren hirugarren edizioa, bost urtez elkar ikusi gabe egon ondoren. Espazioak partekatzea eta C2C topaketaren aurrez aurreko izaera berreskuratzea helburu nagusi zituen ekitaldi horretan, gaur egungo erronkak identifikatu ziren, bai eta ekintzailtza-ibilbide berriak trazatzeko aukera ematen duten estrategiak ere, ESSaren formuletatik.

Txosten honetan laburbiltzen da han eginiko talde-lana. Bederatzi begirada eta esperientziaren bidez eta diziplinarteko ikuspegi batetik, azken C2C topaketan eginiko hausnarketen zati bat lantzen da, ESSan eta esparru akademikoan parte hartzen duten erakunde eta pertsonen ekarpenekin.

Lehenik, «Desazkundetik haztea» artikuluan, **Guernica Facundok (ECOS Taldea)** ikuspegi kritikotik aztertzen du nola jarraitu ESSaren ekimenak kapitalismoaren alternatiba gisa zabaltzen eta, aldi berean, sistema ekonomiko berri bat sortzen, desazkundearen esparruan.

«Ekintzailtzaaren denbora-lerro bat eraikiz Ekonomia Sozial eta Solidarioan: etorkizunerako zantzuak» ekarpenean, **María Atienzak (ekonomia alternatiboaren eta solidarioaren REAS Sareen Sarea)** ibilbide kronologiko labur bat egin du, ekonomia sozial eta solidarioaren formulen bidez

1. <https://www.economiasolidaria.org/carta-de-principios-de-la-economia-solidaria/>

ekoizpen-ehunaren garapena eta sorkuntza bultzatu duten barne- eta kanpo-baldintzen inguruan.

Hurrengo ekarpena **C2C topaketaren hirugarren edizioko talde eragile eta dinamizatzaileak** egin du, modu kolektiboan. «Paragrafo berri bat kontakizun propio baterako: ekintzailletza sozial, solidario eta eraldatzaile baterako ekarpenak» izenburupean, topaketan landutako erronka nagusien laburpena jasotzen du, bai eta ESSaren baitako ekintzailletzaren kontakizunean urratsak ematen jarraitzeko ildo estrategikoen laburpena ere.

**Sara Sama Acedok (UNED) eta Gema Alcañizek (Cisneros Kardinala Unibertsitate Zentroa),** «Ekonomia eraldatzailearen eguneroko erronkak eta hartan oinarritutako alternatibak» artikuluan, Ekonomia Eraldatzaileen ikuspegi *eraldatzailearen* eta eguneroko praktikan gertatzen denaren arteko mugetan, anibalentzian eta tentsioetan jartzen dute arreta.

Bi egileon gogoeta ekintzarako eta harremanetarako testuinguru, prozesu eta jarduera zehatzetan zentratuta dago, eta lagungarri da hobeto ulertzeko zer *eraldaketa* garatzen dituzten ekimenek, berezko erronken aurrean eman beharreko erantzun zehatzak imajinatzen, eztabaidatzen eta gauzatzen dituztenean.

**Cristina de la Cruz-Ayusoren (Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea)** «Emakumeak, ekintzailletza eta finantza-inklusioa» ekarpenean, emakumeek ekintzaile izateko finantzaketa lortzeko dituzten zailtasunen azterketa bat jasotzen da.

**Ana Lorenzoren eta Sandra Salsónen (Juana Millán Emakume Ekintzaile Eskola)** «Ekonomia Sozial eta Solidarioan ekitea: testuinguru atseginagoa emakumeentzat?» artikuluan, emakume ekintzaileei beren lan-proiektuak ingurune atseginago eta berdintasunezkoago batean garatzeko aukera ematen dien tresna gisa lantzen da ESSa.

**Landaren eta Nazioarteko Nekazaritzaren Ikerketa Zentroaren** «Ekintzailletza solidario eta landa-eremukoa: bizitza lehenesteko tresna» artikuluan, landa-ekintzailletzaren ibilbide historikoa eta gaur egungo erronkak aurkituko ditugu. Artikulu horretan, funtsezkotzat jotzen da enplegua kooperatibismoaren esparruan sortzea. Landa-eremuek dituzten erronkak ere aipatzen dira, bai eta ESSak eman ditzakeela ere.

Era berean, landa-eremuko ekintzailletzak dituen onurak nabarmentzen dira. Testua amaitzeko, benetako hainbat esperientzia aurkezten dira.

Hurrengo ekarpena **Elena Novilloren eta Romina Vinocurren (Mugarik gabeko Ekonomistak)** «Zergatik da positiboa pertsonarentzat, enpresarentzat eta gizartearentzat Ekonomia Sozial eta Solidariotik ekitea?» artikulua da. Ikerketa kuantitatibo eta kualitatibo txiki bat abiapuntutzat hartuta, egileak galdera bati erantzuten saiatzen dira: ea ESSan lan egitea eta ekitea benetan positiboa den pertsonarentzat, enpresarentzat eta komunitatearentzat. Ekarpen horren bidez, egileek egiaztatu nahi dute ea eredu ekonomiko horrek benetan jartzen dituen pertsonak eta jasangarritasuna erdigunean.

Azken ekarpena **Millán Díaz-Foncea, Carmen Marcuello eta Alberto Sánchez-Suárez (Zaragozako Unibertsitateko LAB\_ES Gizarte Ekonomiako Laborategia, GESES Ikerketa Taldea, eta Gizarte Ekonomia eta Kooperatibak Katedra, hurrenez hurren)** egileena da.

«Ekonomia Sozial eta Solidarioko elkar-lankidetzak ekonomikoari buruzko diskurtsoetik datuen analisiaren hasierara: ekintzailletza-iturri bat» izeneko testuan, lurralde jakin batean ESSan diharduten erakundeek arteko lankidetzak-maila ezagutzeko azterketa-metodologia baten oinarriak aurkezten eta aplikatzen dituzte, Aragoi aztergai hartuta. Lan horrek, gainera, erakundeek arteko lankidetzak ekonomikoa garatzen laguntzen duten proposamen praktikoak ematen ditu.

Txostenaren amaieran, **Omar de León**ek (UCM) liburu bat gomendatzen eta iruzkintzen du, **David Bollier** eta **Silke Helfrich** egileen *Libre, duin eta bizi. Komun*en botere iraultzailea (*Libres, Dignos y vivos. El poder subversivo de los comunes*). Hamarkada batez baino gehiagok landutako liburu horretan, modu sakon eta sistematikoan aztertzen dira, batetik, nolako den komunak izaera soziala eta, bestetik, nola ezarri diren hainbat ereduak komunak, mundu osoan.

Txosten honetan aurkezten den testu-multzoak kolektibotasuna oinarri hartuta eraikiriko begirada bat jasotzen du, zenbait ikuspegitik abiatuta paragrafo berri bat idatzi nahi duena, ekintzailletza solidarioaren eta eraldatzailearen kontakizunean. Eskerrak eman nahi dizkiegu artikuluen egileei, dossier hau egin ahal izateko eman diguten laguntzagarri eta denboragarri.



Guernica Facundo Vericat  
ECOS Taldea

**Klimaren kolapsoa aurrez aurre dugula, ez ote genuke hitz egin beharko ekintzailtza bertan behera uzteko moduaz?**

2023ko irailean, Science Advance aldizkarian<sup>2</sup> argitaratutako azterketa batek ohartarazi zigun **estandar seguruak gaintitu ditugula planetaren egonkortasuna eta pertsonen bizigarritasuna ahalbidetzen duten bederatzi planeta-mugetatik seitan**: Lurreko bizitza bermatzen duten estandarrek. Argi eta garbi baieztatzen da giza jarduerak eragin dutela muga horien maila seguruaren gaintitze-maila. Joan den mendeko 70eko hamarkadaren hasieratik ospe handiko zientzialari zenbaitek, mugimendu ekologistek eta pentsamendu politikoko talde ugari proposatu zuten agertokietako bat **Desazkundera** izenez aipatzen dena izan da.

Serge Latouche ekonomialaria zen mugimendu horietako ideologo eta adierazgarri nagusietako bat, eta haren hitzetan, «Desazkundera», berez, ez da benetan alternatiba bat, egungo ereduaren aurrean; aitzitik ere, matrize bat izango litzateke, eta handik sor liteke **«alternatiba askoren eklosio bat»**. Alternatiba horietakoak dira, hain zuzen ere, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (aurrerantzean, ESS) proposamenak. «Bistan denez, proposamen zehatz edo kontraproposamen guztiak, beharrezkoak eta aldi berean problematikoak dira», dio Latouchek. Eta hori bera gertatzen da eredu kontsumista, liberal eta kapitalistaren kontra garatutako jarduera ekonomiko berrien sorreran.

ESS aztertzen badugu alternatiben multzo gisa, aitortu behar dugu horren barruan gaudenok sistema neoliberal batean sozializatu ginela, non lema nagusia zen «guztia gehiago hazi, eta hobeto joango da». Horregatik, hazkundera naturalizatu egin dugu hainbeste, non dagoeneko ez dugun zalantzan jartzen

ea gure erakundeek hazi behar duten ala ez, eta zer formatutan hazi behar duten<sup>3</sup>.

**Bilboko C2C solasaldiak**<sup>4</sup> topaketaren hirugarren edizioak, 2023ko azaroaren amaieran, balio izan digu (ESSko erakundei) hausnartzeko nola sustatzen eta nola laguntzen dugun gure alternatibak hazten, errealitate ekonomiko espekulatibo, erauzle eta deslokalizatuaren aurrean; izan ere, gure bizitzaren alderdi guztiak betetzen ditu, fikziozko beharrak sortuz eta gure sare sozioekonomikoa eta gure ingurune naturala suntsituz.

ESSren irismena zabaltzeko asmoz, sare hori babesten dugun erakundeok (saretik bertatik) elkartzen gara eztabaidatzeko nola sustatzen ahal diren bizitzeko aukera hobeak ekoizteko moduaren eta behar dituen produktu eta zerbitzuak eskuratzeko moduaren aurrean sentiberatasun handia erakusten duen populazio batentzat, sistema sozial eta ekonomikoa aldatzeko behararen kontzientzia handiagoa duela eta Desazkunderaren proposamenak aldarte hobeaz hartzen duela.

Eta aldaketa giro horretan erronka desberdinak aurkitzen ditugu: herritar askok gero eta zailagoa dute baliabide ekonomikoak eskuratzeko; aurrerapen teknologikoen eta bazterketa digitala gero eta handiagoaren arteko desoreka eta zentzugabekeria; **premia handieneko eskubideak eta ondasunak eskura izateko** zailtasunak nagusi dira gazteen, adinekoen, migratzaileen eta hirietan bizi ez diren herritarren artean; esate baterako, osasun gaietan (ikuspegi medikotik gaixorik ez egotetik harago); elikadura (tripa betetze hutsetik harago); etxebizitza (ezen ez mugiezinen jabetza); ezagutza (araututako hezkuntza-esparruetatik kanpo ere); aurreztu ahal izatea edo maileguak eskuratzeko (ezen ez espekulazio finantzarioa).

1. 2023ko urriaren 19an La Marea aldizkarian argitaratutako «Desazkundetik haztea» artikuluan oinarritutako testua.  
2. <https://www.science.org/doi/10.1126/sciadv.adh2458>

3. <https://alternativaseconomicas.coop/opinion/la-dimension-de-las-entidades-de-ess-en-tiempos-de-crisis-ecosocial>  
4. <https://www.economiasolidaria.org/c2c-2023/>

Baina, gure proposamenak balio handikoak izanda ere, une historiko honetan egoteak ez digu (bir) pentsarazi gure jardueren hazkundearen bidetik jarraitu behar dugun, zergatik eta zer neurritan. Kolapso Klimatikoaren testuinguruan (edo «Basakeria klimatikoa», Jordi García Janék deitzen duen moduan), zer zentzu du ekintzailtzari buruzko topaketa bat egiteak? Ez genuke ekintzaile izateari uzteko moduaz hitz egin behar? Giza jarduera murrizteko moduaz? Gure oinarritzko beharrak gure ekodependentzia arriskuan jarri gabe murrizteko moduaz? Gure bizitza ahalbidetzen duten ekosistemak leheneratzeko moduaz? Seguru asko, hori da izan behar dugun **elkarrizketarik premiazkoena eta garrantzitsuena**.

Lurreko existentziaren txoko guztiak inbaditzen jarraitzen duen sistema kapitalista baten aurrean, ESSren sarea bidegurutzean dago: alde batetik, zabaldu eta hazi behar dugu, «Eskandaluzko Gauza horren» (halaxe deitzen dio Amaia Perez Orozkok sistema kapitalista, heteropatriarkal eta bizitza-fagozitatzaileari) ordezkua eratzeko; beste alde batetik, aukera aztoragarria da orain arteko esparru mentala betikotzen laguntzea, kontsumitzen jarraituz (modu kontzienteagoan bada ere) eta ekoizten jarraituz (modu gizatiarragoan eta ekologia aldetik arduratsuagoan bada ere), gure eskakizun ase ezinak ase nahian.

Nire ustez, premiazkoa da eztabaidatzea eanola jarraituko dugun alternatibak zabaltzen pentsamendu eta ekintza ekonomiko ortodoxoei aurre eginez —eta Desazkundeari lagunduz—, testuinguruak eskatzen duenean premiaz eta eskala handian egitea, eta horrek berriro ere lagunduko lukeelarik produktibitate-, kontsumo- eta hazkunde-esparru horri eusten. Helburua da kapitalismoaren alternatibak indartzea eta **gero eta pertsona gehiago atxikitzea alternatiba horiei**, baina sistema ekonomiko bat sortu behar da **Desazkundearen esparruan**.

## Errealitate apal baina temati bat. Janaria, aterpea eta erregaia

Merkataritza Erregistroko datuek erakusten dutenez, 2023ko lehen seihilekoan, batez beste, 337 enpresa sortu eta 77 itxi ziren egunean Espainian.

Bai eratzeari dagokionez, bai desagiteari dagokionez ere, sektore nagusiak izan ziren higiezinak, eraikuntza, merkataritza, aseguruak eta finantzak. Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren datuek, ordea, erakusten dute 2022an 1.769 **kooperatiba eta lan-sozietate berri** sortu zirela. Horrek adierazten du egunean, batez beste, 5 erakunde berri sortu zirela, hau da, Espainian sortutako **merkataritza-enpresen % 1,4 besterik ez**. Gizarte-ekonomiak jarduera ekonomiko berriak sortu zituen, batez ere, eraikuntzan, merkataritzan, zerbitzu profesionaletan eta energia-horniduraren sektorean.

Oro har emandako datuak dira horiek, dugun pisu eskasaren adierazgarriak, baina ez digute argi erakusten kapitalismoaren alternatiben potentziala. Lehenik eta behin, kooperatiba eta lan-sozietate guztiak ez direlako ESS, eta ESS ez delako mugatzen bi figura juridiko horietara. **ESSren ezaugarriak dira zer egiten duen** (adibidez, nekazaritza ekologikoa), **nola** egiten duen (adibidez, auzoko kontsumo-taldearen formatuan) **eta zergatik** egiten duen (elikadura-burujabetzari laguntzeko, adibideari jarraituz). Bigarrenik, sektoreka

emandako makrodatuetan oinarrituta ezin dugulako aztertu ekonomia kapitalistak zer jarduera-mota indartzen dituen eta ESStik zer ekimen-mota sustatzen ditugun. Hirugarrenik, datuak lortzeko eta gure burua neurtzeko dugun zailtasunagatik, ekonomia sortzen duten eta instituzioen esparrutik kontabilizatzen ez diren aukerak agerian jartzeko.

Gure praktikak —eta ez datuek— esaten digu ESSn **oinarritzko beharrak asetzeko alternatibak garatzen ditugula**, hala nola, elikadura, etxea edo energia

eskuratzea, eta gure gain hartzen dugula Kolapso Klimatikoari egiten diogun ekarpenaren ardura.

Hala, ugaltu egiten dira ekoizpenaren eta elikadura-kontsumoaren inguruko alternatibak, nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboen aurrean; izan ere, lurraren gain-ustiapena baliatzen dute, produktu kimikoen gehiegizko erabileraren mende daude, eta osasun- eta hondakin-arazo larriak sortzen dituzte; aurre egiten diete, orobat, elikagai-azalera handiei ere, lursailen jabetza handiak eta ekoizpen handiak sortzen dituzte, eta gero eta gutxiago diren nekazareei kalte eragiten diete.

ESSn ahalegin handiz garatzen ari dira eko-nekazaritzako ekoizpen-proiektu txikiak, eta dagoeneko 148 proiektu aurki daitezke ESSren mapan, hala nola, Katalunia PamaPam<sup>5</sup>, abeltzaintza estentsiboko ekimenak, esaterako Abeltzainak Sarean<sup>6</sup>, Valentziako eta Bartzelonako Diputazioek sustatutako<sup>7</sup> lur-bankuak<sup>8</sup>, hazi-bankuak (adibidez, Les Refardes<sup>9</sup>, Esporus<sup>10</sup> edo La Panotxa<sup>11</sup>), lurraldea zaintzeko sareak,<sup>12</sup> eta transformazio-lantegi partekatutakoak<sup>13</sup>. Banaketaren arloan, gero eta gehiago dira langileak berak jabe dituzten bizikleta-mezularitzako ekimenak, bai autonomia-erkidego mailan,<sup>14</sup> bai estatu mailan ere. Kontsumoaren arloan, berriz, ugari dira aspaldi sortutako nekazaritza ekologikoko kontsumo-taldeak<sup>15</sup>, tokiko elikadura-sareak garatzen dira<sup>16</sup>, eta biderkatu egiten dira supermerkatu kooperatiboak,<sup>17</sup>

non kontsumitzaileak aldi berean jabe baitira, hala nola Landare Nafarroan, A Vecino Zaragozan, La Osa Madrilan, L'Artiga Oloten eta FoodCoop Bartzelonan.

Beraz, Toni Lodeiok dioen bezala, erbi kapitalistaren ordeztokoa solidarioa jarri nahi badugu<sup>18</sup>, lurra beste erritmo batzuk behar dituelako eta elikadura-burujabetzak beste helburu batzuk dituelako, ekoizpen- eta kontsumo-alternatibak hazteak, desazkundearen testuinguruan, nahitaez eskatzen digu **elikagai-sareak eta ekoizpen-banaketa-kontsumoa kate sozialak eta solidarioak garatzen jarraitzea.**

Espekulazio urbanistikoaren, gentrifikazioaren eta gure hiri eta herrietan bizi diren pertsonak beldurtzea helburu duten jardunbideen aurrean, ESSk aukera ugari eskaintzen ditu etxebizitza eskuratzea anitzagoa izan dadin, lurraldeari atxikia eta proiektu kolektiboetan oinarritua. Etxebizitza kooperatiboen erabilera lagatzeko proiektuak dira...

Espekulazio urbanistikoaren, gentrifikazioaren eta gure hiri eta herrietan bizi diren pertsonak beldurtzea helburu duten jardunbideen aurrean, ESSk aukera ugari eskaintzen ditu etxebizitza eskuratzea anitzagoa izan dadin, lurraldeari atxikia eta proiektu kolektiboetan oinarritua.

Etxebizitza kooperatiboen erabilera lagatzeko proiektuak dira; adibidez, Sostre Cívic-ek orain arte sustatu dituen hogeita bi proiektuak<sup>19</sup>, Kataluniako Etxebizitza Kooperatiboaren Behatokiak jasotzen dituen<sup>20</sup> berrogei proiektuen arteran daudenak; Entrepatis ekimenak Madrilan sustatu dituen hiru proiektuak<sup>21</sup> edo Aragoi La Replaceta sustatzen dituenak,<sup>22</sup>

non apirilean egin baitzen «Convive Aragón»<sup>23</sup>, lankidetzazko etxebizitzaren eta zainketen foroa. Era bereko proposamenak dira, orobat, hiriko *masoveria* sustatzen dutenak, hala nola La Masovera profesional eta kooperatiben kolektiboarenak; landa-komunak babesteko ekimenak, Fundació Emprius kasu<sup>24</sup>; edo «lehenik etxebizitza» programak, Housing First Europe Hub ekimenean bildutako berrogei erakundek baino gehiagok sustatzen dituztenak<sup>25</sup>.

5. <https://pamapam.cat/mapa/>

6. <https://www.ganaderasenred.org/>

7. <https://bancdeterres.dival.es/>

8. <https://bancdeterres.cat/>

9. <https://www.lesrefardes.coop/>

10. <https://associaciolera.org/espous/>

11. <https://lapanotxa.wixsite.com/lapanotxa>

12. <https://www.google.com/maps/d/viewer?mid=1xNQ95e0EKSRIBVbHKkBOhezcovemrBcl&ll=36.12051320980825%2C-6.8239656499999874&z=5>

13. <https://obradorescompartits.cat/>

14. <https://somecologistica.org/>

15. <https://opcions.org/es/cooperativismo-consumo-agroecologico/>

16. <https://soberaniaalimentaria.info/>

17. <https://www.supermercadoscooperativos.com/>

18. <https://www.economiasolidaria.org/ca/noticias/que-vienen-los-supermercados-cooperativos-y-la-fiebre-food-coop/>

19. <https://sostrecivic.coop/es/proyectos/>

20. <https://www.llargavista.coop/>

21. <https://www.entrepatis.org/>

22. <https://lareplazeta.org/>

23. <https://reasaragon.net/convive-aragon/>

24. <https://emprius.cat/>

25. <https://housingfirsteurope.eu/>

Beraz, esparru horretan eredu ekonomiko eta soziala aldatzen lagundu nahi badugu, eta, aldi berean, desazkundean lagundu nahi badugu, funtsezkoa da elkarlanean aritzea **etxebizitza-eskubidearen aldeko gizarte-mugimenduak**, etxebizitza publikoa sustatzeko tokiko politikak eta **ESSren proposamenak**, eskuratzeko eredu eta modu guztietan.

Erregai fosilen erauzketak eta lehengai kritikoen gehiegizko ustiapenak izugarri baldintzatzen duten ekonomia batean,<sup>26</sup> eta energiarekiko adikzioa duen eta teknologiak narkotizatzen duen gizarte batean, ESSk kontsumitzaile kontzienteak sustatzen ditu.

Lehenik eta behin, eredu kapitalista «berdea» eta «digitala» salatuz, hala nola Globalizazioaren Zorraren Behatokiaren kanpainak<sup>27</sup>, edo Mobile Social Congress-en aurkako mobilizazioak<sup>28</sup>, edo RidersxDerechos mobilizazioak,<sup>29</sup> lan-baldintza ez duinak sortzen dituzten plataformen aurka.

Bigarrenik, kontsumitzaileek erabakietan parte hartzen duten alternatibak eraikiz, hala nola Som Energia<sup>30</sup> edo Goiener<sup>31</sup> energien arloan, Izarkom<sup>32</sup> eta Som Connexió,<sup>33</sup> teknologian, edo Som Mobilitat,<sup>34</sup> mugikortasun partekatuan.

Azkenik, merkatu sozialak garatuz, adibidez, Mercado Social de Aragón<sup>35</sup>, Mercado Social

de Madrid<sup>36</sup>, Merkatu Soziala<sup>37</sup> Euskadin edo Opciones<sup>38</sup> Katalunian, ESSk eskaintzen dituen kontsumo-aukerak ikusarazten eta eskuratzen laguntzen baitute.

Hala, ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatu nahi badugu, baliabide naturalak agortzeko daramagun bide azkarra geldiarazteko, eta energiaren eta teknologiaren hornidura bereiziko duena mugarik gabeko (ustezko) hazkundetik, **pentzamen du sozial eta kulturalaren esparru berri bat** sustatzen jarraitu beharko dugu. Esparru horrek zaintza, apaltasuna eta erantzukizuna begiratu behar ditu, ESSk eskaintzen duena bezala, eta aldi berean, eskakizun, borroka eta zorrotasun maila handikoa izan behar du, egungo mugimendu ekologistek garatzen dutenaren erakoa.

ESS (oraindik) errealitate txikia da zurrumbilo kapitalistaren aurrean, baina, hala ere, denboran jasagarriak izango diren **errealitate sozioekonomiko berriak sortzeko** lanari eusten diogu, gure komunitateetatik hurbil egongo diren errealitateak, lan egiteko, kontsumitzeko, finantzatzeko, ekoizteko, merkaturatzeko eta banatzeko beste modu batzuen eredu bizia izango direnak. Forma zintzoagoak eta gardenagoak, giza bizitzaren eta ingurune naturalaren erritmoekin bat datozenak, ongizate kolektiboarekin konprometituagoak, gure auzo, herri eta lurraldeetako komunitate-bizitzarekin lotuago daudenak.

Hala, ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatu nahi badugu, baliabide naturalak agortzeko daramagun bide azkarra geldiarazteko, eta energiaren eta teknologiaren hornidura bereiziko duena mugarik gabeko (ustezko) hazkundetik, pentzamen du sozial eta kulturalaren esparru berri bat sustatzen jarraitu beharko dugu. Esparru horrek zaintza, apaltasuna eta erantzukizuna begiratu behar ditu, ESSk eskaintzen duena bezala, eta aldi berean, eskakizun, borroka eta zorrotasun maila handikoa izan behar du, egungo mugimendu ekologistek garatzen dutenaren erakoa.

26. [https://odg.cat/wp-content/uploads/2021/02/PACTOSVERDES-CAST\\_ONLINE.pdf](https://odg.cat/wp-content/uploads/2021/02/PACTOSVERDES-CAST_ONLINE.pdf)

27. <https://odg.cat/es/campanas/>

28. <https://mobilesocialcongress.cat/en/>

29. <https://www.ridersxderechos.org>

30. <https://www.somenergia.coop/es/>

31. <https://www.goiener.com/es/>

32. <https://www.izarkom.eus/es/>

33. <https://somosconexion.coop/>

34. <https://www.sommobilitat.coop/>

35. <https://mercadosocialaragon.net/>

36. <https://madrid.mercadosocial.net/>

37. <https://merkatusoziala.eus/bilatzaila/inicio/>

38. <https://opcions.coop/es/>

## Nor bere kabuz, ezinezkoa Lankidetza, lankidetza, lankidetza

Erronka handi horiei guztiei aurre egiteko ESSn indarrez sortzen ari den ekintzetako bat lankidetza da.

ESS ereduan ari diren erakunde guztiek lankidetzan ari beharko lukete<sup>39</sup>, eredu ekonomiko horren funtsezko balioetako bat baita. ESS erakundeak elkarren mendekoak dira beren ekosistemetan, eta lankidetza-mota desberdinak behar dituzte bizirik irauteko. Lankidetza ekonomikoari erreparatzen badiogu, maila askotakoa izan daiteke. Ez dira gauza bera bezeroa/hornitzailea harremana izatea eta hainbat erakunderen arteko ekoizpena koordinatzea, azken produktu bateratu bat eskaintzeko edo ESS ekoizpen-kate bat eratzeke. Ez dira gauza bera noizean behin beste erakunde batekin lankidetzan aritzea, zerbitzu bateratu bat eskaintzeko, eta zerbitzu hori bera modu iraunkorrean eskaintzea.

Azkenik, ez dira gauza bera elkarlanean aritzea beste erakunde batekin modu eksklusiboan, eta beste erakunde batzuekin aritzea, formatu askotan eta askotariko beharrak eta helburuak betetzeko. Horrela ulertuta, lankidetza erakunde baten hazkundearen estrategia alternatiboa izan daiteke. Gure erakundetik zerbait egin beharrean, beste erakunde batekin lankidetzan aritzen gara.

Azken batean, lankidetza horizontalak egitea sektore bereko erakundeen artean, sektore ezberdinetakoak

baina osagarriak diren erakundeen arteko lankidetza bertikalak, eta sinbiotikoak, sektore anitzeko jardueren artean. Sarean hazteko eredu bat garatu behar dugu, ekimen autonomoak bultzatuz lurraldeen artean eta/edo eskala desberdinetan, eragina biderkatzea ahalbidetuko duten lankidetza-akordioen bidez partekatu ahal izateko. Lankidetza-dinamika horiek guztiak, epe ertainean, lagungarriak izan daitezke ESS osatzen dugun pertsonok **hobeto egin diezaiegun aurre kapitalismo eroaren, Kolapso Klimatikoaren eta deriba antidemokratikoen erasoei**.

Gaur egun bizi dugun gizarte-larrialdiko egoera honetan, bide egin behar dugularik sistema ekonomiko kontzienteago, murriztago eta tokian tokikoago baterantz, bidezkoa dirudi tamaina egokiko enpresa-eredu bat sustatzeak, eta elkarlanean gogo biziz aritzen dena.

Nork bere kabuz lortzea ezinezkoa baita; ESS zabaldu nahi badugu ekonomia-sare kapitalista ordezteko eta, aldi berean, bizitzaren alderdi guztietara zabaltzen den sare ekonomiko kapitalistaren desazkundera lortu nahi badugu, estrategia konbinatu bat erabili behar da, interkooperazioa bultzatzen duten testuinguruak **sustatuz**, kontsumo-aukera kapitalistak **ordeztuz**, giza beharrak asetzeko aukerak eskainiz, natura eta material ingurune mugatu batean, eta **biztanleria gehiengo zabal** baten inklusioa, zeinaren bizi-baldintzak are gehiago murriztuko baitira muga biofisikoen eta Desazkundearen paradigma sozial eta ekonomiko batean. Horra hor. ■

39. <https://alternativaseconomicas.coop/opinion/la-dimension-de-las-entidades-de-ess-en-tiempos-de-crisis-ecosocial>

**María Atienza**

*REAS Sareen Sarea*

**A**zken urteotan, hainbat faktorek baldintzatu dute Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (aurrerantzean, ESS) ekimenen hedapena eta garapena. Alde horretatik, esan daiteke **ekintzailatza ez dela fenomeno isolatua ESSn, testuinguru batean txertatuta dagoelako eta haren eragina duelako.**

Testu honen helburua da diagnostiko bat egitea, denbora-lerro bat eginez, ESSren ekoizpen-sarearen sorreran eta garapenean eragina izan duten faktore nagusien zerrendari erreparatuta. Argazki horrek ikaskuntza moduko zenbait gako eskaintzen ditu, irtenbideak bilatzeko aukera erraztuko dutenak, gaur egungo testuinguruan, eta etorkizunera begira.

Denbora-lerro hori 2014tik 2024ra bitartekoa da, eta azterketa prestatzeko oinarria izan da Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sareak (aurrerantzean, REAS) bere gain hartu duen rola, alegia, enpresa sozial eta solidarioen eraketa eta garapen egokia sustatzea, haien lurralde- eta sektore-sareen arteko artikulazioa sustatzea eta estrategia partekatuen erabilera ikusaraztea eta sustatzea. Gainera, hamarkada horretan izandako gertaera azpimarragarrien sailkapenean bereizi dira barne-gertaerak (REASetik sustatuak) eta kanpokoak, hau da, testuinguru sozioekonomiko hurbilenean gertatu direnak, eta ESSren ekoizpen-sarearen garapenean eragina izan dutenak.

**ESSren esparruan ekintzailatza ikusarazten eta sustatzen lagundu duten barne-gertaera garrantzitsuenak**

**Gogoetarako eta ezagutza sortzeko topaketak**

Topaketak sustatuz, ezagutza sortzea eta ekoiztea eta sareko lana indartzea lortu nahi izan dira. REAS erakundearentzat, sare eta lankidetzak kontzeptuak funtsezkoak dira antolaketa-ereduan. Ikaskuntza partekatua, laguntza eta dimentsio anitzeko

koordinazioa funtsezko elementuak dira ESS sustatzeko eta garatzeko REASEk egiten dituen plangintzan eta lanean.

Azken hamarkadan, **C2C Elkarrizketak** izeneko topaketak egin dira, REASEk eta ESSeko beste erakunde eta sare batzuek sustatuak. Topaketa horiek ESS ereduaren barruan ekimenak sustatzeko eta laguntzeko jarduerak egiten dituzten profesionalen eta erakundeen foro gisa eratu dira. Egin diren hiru edizioetan (Zaragoza<sup>1</sup> 2015, Madril<sup>2</sup> 2018 eta Bilbo<sup>3</sup> 2023) 200 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

Bestalde, aztertutako aldian, hainbat topaketa egin dira **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Kongresu** modalitatean, haien ezaugarri nagusiak direlarik, besteak beste, parte-hartze handia (200 eta 400 pertsona artean, edizio bakoitzeko), ikuspegi trukea ESSren saretik, akademiatik eta eragile publikoen aldetik, eta nazioarteko izaera.

Parametro horien baitan egin ziren Zaragozako kongresuak 2015ean (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Nazioarteko Kongresua<sup>4</sup>), Bilbon 2016an (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresua<sup>5</sup>), Kordoban 2018an (Ekonomia Eraldatzaileen Nazioarteko

1. <https://emprendes.net/c2c-conversaciones-zgz-2015/>
2. <https://emprendes.net/c2c/>
3. <https://www.economiasolidaria.org/c2c-2023/>
4. [https://base.socioeco.org/docs/conclusiones\\_congresoesys.pdf](https://base.socioeco.org/docs/conclusiones_congresoesys.pdf)
5. <https://reaseuskadi.eus/wp-content/uploads/II-Congreso-ESS-2016-reas-euskadi-publicacines-es.pdf>

Topaketa<sup>6</sup>) eta Bartzelonan 2019 eta 2020 bitartean<sup>7</sup> (Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala<sup>8</sup>).

Azkenik, 1995. urteaz geroztik, **IDEARIAren topaketak** egiten ari dira, ikaskuntza kolektibora, sinergiak sortzera eta proiektuen eta pertsonen arteko lankidetzara bideratuak. Topaketa honek ia hogeita hamar urteko ibilbidea du, bi urtez behin egiten da, eta ekonomia solidarioan ari diren enpresen, kolektiboen, gizarte-mugimenduen eta kontsumitzaileen arteko koordinazio- eta sinergia-dinamikak errazteko bilgunea da, sektore hauetan: bidezko merkataritza, agroekologia, energia berriztagarriak, finantza etikoak, etxebizitza kooperatiboa, ekonomia zirkularra eta zainketak. Azken hamarkadan, XII.<sup>9</sup> eta XIII.<sup>10</sup> edizioak egin ziren Kordoban, 2015ean eta 2017an, XIV.<sup>11</sup> edizioa Valentzian, 2019an, XV.<sup>12</sup> edizioa Madrilan 2022an, eta XVI.<sup>13</sup> edizioa Kanarietan, 2024an.

#### **ESSn ekoizpen-sarea garatzen lagundu duten topaketa horien elementu komunak**

1. Topaketek ibilbide luzea izan dute.
2. ESSko erakunde oinarri sozialaren, profesionalen eta pertsona ekintzaileen parte-hartzea.
3. Akademiaren eta administrazio publikoaren presentzia.
4. Estatu-izaera, lurraldeen ikuspegitik.
5. Eztabaidatzeko eta ezagutzak sortu eta trukatzeko guneak, lan-taldeak eta lan-batzordeak sortzen dituztenak.
6. Parte hartzeko metodologiak erabiltzea.
7. Aliantzak sortzea.

#### **Ekoizpen-sare ekonomiko, sozial eta solidarioaren sorrera, garapena, eraldaketa eta jasangarritasuna**

Zaragozako (2014) eta Bilboko (2016) biltzarretan, ekoizpen-sare sozial eta solidario bat garatzen lagundu duten faktore batzuk identifikatu ziren, eta azken

urteetan bultzatu diren tresna eta estrategia asko aurrera eramaten lagundu dute, hala nola merkatu sozialak<sup>14</sup>, auditoretza edo balantze soziala<sup>15</sup>, finantza etikoak<sup>16</sup>, eta zainketen ikusgarritasuna<sup>17</sup>. Hona hemen identifikatutako elementu nagusiak:

**Ekonomiak errespetatu behar du bere garapenaren lekuko izan den lurraldea eta bertan integratu behar du, biztanleriaren beharrei erantzunak emanez.**

**Sustatu behar da kultura bat, non ekoizpen sarea kudeatzeko ardura gure gain hartuko dugun,** balio etikoak erantsiz, eta aberastasunaren banaketa bidezkoagoa egiteko modua bilatzeari lehentasuna emanez.

**Berrikuntzaren gaia, antolaketa-modua aldatzen duten eta profil berritzaileak txertatzen dituzten esperientziak balioestea,** nolabaiteko arriskua onartzen baitute.

**Kohesioan inbertitzea, ondo komunikatutako talde autonomo txikien bidez antolatzea** eta konfiantza kudeatzea, erakundea eskalatzeke jarraibide gisa.

**Pentsamendu kolektiboa eraikitzea, ekonomia sozial eta solidarioaren alternatibak sortzeko eta finkatzeko,** prekarizazioaren, atomizazioaren eta ahultasunaren aurrean.

**Lurraldean sustraitzea,** giza garapen jasangarriko eskualde-proiektuen bidez, tokian tokikoa baita unibertsalaren lehen maila.

**Zainketen zeregina** eta haien lehentasunezko protagonismoa edozein prozesu transformatzailetan.

**ESSren ekimenen eraginaren ebaluazioa eta neurketa oinarrizko tresna gisa sartzea,** haien izaera eraldatzailea bultzatzeko eta gizarteari helarazteko.

**Finantzazioa eskura izatea, ESSren finantzatresnen bidez,** proiektuak hedatzeko aukera ematen baitute, inbertsio-gaitasun txikia gaindituz, batzuetan muga handia izaten baita.

6. [https://base.socioeco.org/docs/libro\\_de\\_resultados\\_encuentro\\_transformadoras.pdf](https://base.socioeco.org/docs/libro_de_resultados_encuentro_transformadoras.pdf)

7. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/conoce-cual-ha-sido-el-proceso-de-las-economias-transformadoras/>

8. Munduko Gizarte Foroak, kongresuen kategorian sartzen ez bada ere, bete egiten ditu parte-hartze eta nazioartekotze irizpideei buruz aurrez aipatutako ezaugarriak.

9. <https://www.economiasolidaria.org/idearia2015/>

10. <https://www.economiasolidaria.org/idearia2017/>

11. <https://www.economiasolidaria.org/idearia2019/>

12. <https://www.economiasolidaria.org/idearia-2022/>

13. <https://www.economiasolidaria.org/idearia-2024/>

14. <https://mercadosocial.net/>

15. <https://reas.red/auditoria-balance-social/>

16. <https://www.economiasolidaria.org/finanzas-eticas/>

17. <https://www.economiasolidaria.org/feminismos/>

**Administrazio publikoen eginkizuna**, ekimen produktiboak garatzeko prozesuak bultzatu eta laguntzeko.

#### ***Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna berritzea***

2022an, bi urteko parte-hartze prozesuaren ondoren, Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunaren bertsio eguneratua egin zen<sup>18</sup>. Funtsezko emaitza gisa, azpimarragarria da begirada feminista eta ekologista txertatu izana. Azken batean, ekonomia eraldatzaile deitzen diren horietatik esparru zabalago bat ezartzea.

Gutun horretan ESS mugimenduaren barruko ekimenek eta enpresek nolakoak izan beharko luketen azaltzen da:

- **Ekimen kooperatiboak, autogestionatuak, parte-hartzaileak eta gardenak sustatzea**, beharrak aseko dituztenak eta ongizate indibidual eta kolektiboari lagunduko diotenak.
- **Eroso sentiaraziko gaituzten eta bizitzaren jasangarritasunarekin erantzunkideak diren erakundeak** eraikitzea, zainketen dimentsio soziala, ingurumenekoa eta komunitarioa kontuan hartuta.
- **Enpresa horizontalak, askotarikoak eta demokratikoak sustatzea**, parte-hartzea, lidergo kooperatiboa eta pentsamendu kritikoa bultzatuko dutenak.
- Ekonomia solidarioaren ekimenen eta ingurunearen artean **lankidetzazko harremanak, bidezkoak eta errespetuzkoak ezartzea**.

#### ***Ekonomia solidarioaren eta ekonomia feministaren arteko elkarrizketa***

2017an<sup>19</sup> REASen Feminismoen Lurralde arteko Batzordea sortu zen<sup>20</sup>, gune estrategikoa, Ekonomia Solidarioan feminismoak lantzeko eta gai konplexu eta beharrezko batzuei heltzeko, esaterako, erantzunkidetasuna edo erakunde bidezkoagoak eta demokratikoagoak eraikitzea.

Alderdi sinbolikoan nabarmen aurrera egin bada ere, eguneroko jardunbideak oraindik gainditu ez diren oztopoei buruzko informazioa ematen digu. Zehazki, zera ikusten da, nola lan-prozesuak eta erantzukizunen banaketa antolatzeke moduak ez dituen alde batera uzten, adibidez, logika merkantilista eta produktibista, ekoizpenaren eta ugalketaren arteko haustura, edo lanaren sexu-banaketa. Alde horretatik, **batzorde horren erronka nagusietako bat izan da Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sareak osatzen dituzten erakundeak eta enpresak eraldatzea eta indartzea, erakunde feministak izatera iristeko aldaketen bidean aurrera egiteko**. Eroso sentiaraziko gaituzten erakundeak ikuspegi feministatik eraikitzeak aldatu egiten du lan-ereduak definitzeko eta ulertzeko modua.

[...] zera ikusten da, nola lan-prozesuak eta erantzukizunen banaketa antolatzeke moduak ez dituen alde batera uzten, adibidez, logika merkantilista eta produktibista, ekoizpenaren eta ugalketaren arteko haustura, edo lanaren sexu-banaketa. Alde horretatik, batzorde horren erronka nagusietako bat izan da Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sareak osatzen dituzten erakundeak eta enpresak eraldatzea eta indartzea, erakunde feministak izatera iristeko aldaketen bidean aurrera egiteko.

18. [https://reas.red/wp-content/uploads/2022/08/Carta\\_de\\_la\\_Economia\\_Solidaria\\_2022\\_cast.pdf](https://reas.red/wp-content/uploads/2022/08/Carta_de_la_Economia_Solidaria_2022_cast.pdf)

19. Batzordea IDEARIAren XIII. edizioaren testuinguruan sortu zen.

20. <https://www.elsaltodiario.com/mecambio/la-economia-solo-sera-solidaria-si-es-feminista>

**2008ko krisia eta herritarren erantzuna, 15M mugimendua deitu zena ekarri zuena,**<sup>21</sup> mugarrak izan ziren, eragin handia izan zutenak hainbat gertakaritan, eta hurrengo urteetan ondorioak izan zituzten sare sozioekonomikoan.

Zentzu horretan, 15M-k ireki zuen gizarte-dinamismo handiari esker, eta ekonomia eraldatzaileak sustatzeko asmoz eratutako tokiko politikak abiarazteko testuinguru egoki batean<sup>22</sup>, ekonomia sozial eta solidarioaren ekoizpen-sarea sustatu eta indartuko zituzten proiektu eta programa publiko-sozialak garatzen hasi ziren.

2014 eta 2020 bitartean, asko ugartu ziren ekintzailatza kolektiboko ekimenak eta elkarri laguntzeko egiturak bultzatzeko eta finkatzeko lurralde-proiektuak eta -programak, Madrilen, Zaragozan eta Bartzelonan, besteak beste. Aipagarria da hedatze-estrategia bat garatu dela sektore estrategikoetan, hala nola finantza etikoetan, energia berriztagarrietan, etxebizitza kooperatiboan edo elikadura jasangarrian.

**Azken hamarkadako lehen urteetan, matxinada feminista deitu zena piztu zen,** Argentinan 2015ean hasi ondoren, #NiUnaMenos mobilizazioarekin, eta geroago #MeToo mugimenduarekin; fenomeno global bat izan zen, munduko leku askotako mobilizazioen eta greben batura izan zena. Estatu espainiarrean ere mobilizazio masiboak izan ziren urte haietan, eta lehenengo greba orokor feminista antolatu zen 2018an,<sup>23</sup> gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala edo indarkeria matxistak salatze, bestelako aldarrikapen historiko zenbaitekin batera.

**2020an, COVID-19 pandemia etorri zen.** ESSk erresilientzia-gaitasun handia erakutsi zuen<sup>24</sup>, eta ekonomiaren berrindustrializaziorako rol garrantzitsua hartu zuen, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-onura

kolektiboa ekarriko zuen enpresa-sare bat sortzen lagundu baitzuen.

Ildo horretan, Europako Batasuneko hainbat gobernu aitortu dute ESSren ereduak erakutsi duen egokitzeko gaitasuna eta enpresa sozial eta solidarioek ekonomia berreskuratzeko planetan duten funtsezko zeregina.

**Eredu hori atxikitzen duten erakundeak ugaltu daitezten, garrantzitsua da sektore publikoak erakunde horien espezifikotasuna onartzea,** berezitasun horiek aintzat hartuko dituzten kontratazio publikoko arauen bidez, eta orobat, enpresak berreskuratu eta ekonomia sozial eta solidarioaren formuletara aldatzeko laguntzak emanez.

Europar egun indarrean den Ekonomia Sozialerako Europako Ekintza Planaren arabera, 2.800.000 erakunde baino gehiago ari dira ekonomia sozialean. 2021ean, «Hurbiltasunari eta ekonomia sozialari buruzko trantsizioa ibilbideak»<sup>25</sup> kalkulatu zuen ESSk BPGren % 10eko ekarpena egiten zuela Batasuneko estatu batzuetan.

Alde horretatik, garrantzi berezia izan dute Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE)<sup>26</sup> eta Nazio Batuen Erakundeak (NBE)<sup>27</sup> ESSri emandako bultzadek ere.

Espainiar estatuan, nabarmentzekoak dira, besteak beste, ekonomia sozialaren aintzatespena, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerio bat sortu baitzen 2020an; Zainketen eta Ekonomia Sozialaren Susperraldi eta Trantsiziorako Plan Estrategikoa (PERTE) (2022); eta Ekonomia Sozialaren Lege berri bat izateko ahalegina (2023).

### **Azken ohar batzuk**

ESSko ekintzailatza-estrategia zuzenen edo zeharkakoen bidez, sortzeko, berritzeko eta sustatzeko

21. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/15-m-y-ahora-que/>

22. <https://ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossieres-EsF-31-Pr%C3%A1cticas-y-herramientas-para-impulsar-la-ESS.pdf>

23. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/reas-8m-2018/>

24. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/la-resiliencia-de-la-economia-solidaria/>

25. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/la-comision-europea-presenta-el-itinerario-de-transicion-para-la-economia-social/>

26. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/la-110a-conferencia-de-la-oit-se-abre-a-la-economia-solidaria/>

27. <https://www.economiasolidaria.org/recursos/promover-la-economia-social-y-solidaria-para-el-desarrollo-sostenible-resolucion-de-la-onu/>

ahalegin horrek aukera ematen du zenbait lorpen ikusteko:

- **Ekonomia Sozial eta Solidarioan ari diren enpresa eta erakundeen kopurua handitzea:** 2014an 507 entitate izatetik 2024an 1.038 izatera.
- **Ekoizpen-sarean inkubazio, prestakuntza, aholkularitza eta finkapena eskaintzeko ekintzak ugaritzea eta indartzea**<sup>28</sup>.
- **Ekimen berriak eratzeko**<sup>29</sup> tresna berritzaileak sortzea.
- **Sektore estrategikoak eratu eta hedatzea**, hala nola enpresak sortzeko hobiak: etxebizitza, energia, zainketak, bidezko merkataritza, hondakinen kudeaketa, finantzak, kultura.
- **ESSko sektore barruko eta sektore arteko sareak indartzea**, elkarri laguntzea eta ezagutza sortzea eta gizarteratzea erraztuko duten baliabideak emanez<sup>30</sup>.
- **Merkatu soziala hedatzea**, ekonomia sozial eta solidarioaren zirkuitu ekonomiko gisa<sup>31</sup>.
- **Finantza-tresna etikoak ugaritzea**<sup>32</sup>.

- **Kontratazio publiko arduratsua sustatzea**,<sup>33</sup> kontratazio publikoetan parte hartzen duten enpresa eta erakundeentzat irizpide etikoak, kalitate teknikoa eta lurraldean errotzea eta erantzukizun soziala txertatuz.
- **REAS Sareen Sarean sortzea gune bat**, estatu-mailan ekoizpen-sarea sortzen eta indartzen adituak diren pertsonen parte-hartzearekin.
- Kudeaketa-eredu publikoa berrikustea: **sistema publiko-komunitario baterantz**<sup>34</sup>.
- Ekintzailearen irudia zalantzan jartzea: **ekintzailetza feminista, kolektiboa, soziala eta solidarioa** sustatzea eta agerian jartzea.
- Zainketak zehar-lerro gisa lantzea<sup>35</sup>.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioa araututako curriculumean sartzea<sup>36</sup>.
- **Ikerketa indartzea ESSren enpresa- eta antolaketa-eredu arrakastatsuen inguruan** eta haren funtsezko elementuen hedapena eta sustapena ere bai. ■

28. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/promoviendo-el-emprendizaje-y-la-innovacion-social-en-la-ess-parte-ii/>

29. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/visibilizando-herramientas-para-el-emprendizaje-en-la-ess-parte-ii/>

30. Azken urteotan, sare sektorialak sortzea sustatu da hainbat arlotan: supermerkatu kooperatiboen sarea, Berriztagarrien Batasuna, Erabilera lagatuko etxebizitza kooperatiboaren taldea eta kultura.

31. <https://mercadosocial.net/>

32. <https://www.economiasolidaria.org/finanzas-eticas/>

33. <https://contratacionpublicaresponsable.org/>

34. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/repensando-la-crisis-de-cuidados-desde-lo-publico-comunitario/>

35. [https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2024/03/Cuidados-ES\\_GuiaDiagnostico\\_REAS-RDR-3.pdf](https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2024/03/Cuidados-ES_GuiaDiagnostico_REAS-RDR-3.pdf)

36. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/once-universidades-ofrecen-cursos-y-masters-de-economia-solidaria/>

## **C2C Conversaciones topaketako talde eragilea**

**2**018ko C2C Conversaciones<sup>2</sup> topaketaren azken edizio hartatik bost urtera, ekonomia sozial eta solidarioko (ESS) ekintzailtzaren arloan lan egiten duten hirurogeita hamar pertsona baino gehiago berriro elkartu ziren, foro horren presentzialtasuna berreskuratuta. Hirugarren edizio haren helburu nagusia horixe zen, atzera ere batera lan egiteko berriro elkartzea, eta topaketak aukera eman zuen gaur egungo testuinguruaren argazkia lortzeko eta, hala, ESSaren esparruan hartutako erroka nagusiak identifikatzeko.

C2C topaketaren lehen edizioan, 2015ean<sup>3</sup>, «ekintzailtza sozial, solidario eta eraldatzailea» esan ohi zaion kontakizuna hasi genuen, eta kontakizun horretan paragrafo berri bat eraikitzea izan da abiapuntua 2023koan. Alde horretatik, garrantzitsua da ekintzailtzaren definizioa ESSaren postulatuetatik kokatzea:

«[...] gizarte-ekimena bideratzeko modu bat [...], erroka komunitarioei ekiteko modu bat, lan egiteko, elkarkidetasunerako eta ekonomia egiteko modu berrien bidez. [...] diskurtsoa eraldatzea, baina jardunbideak ere bai. Eta hori honela egitea: garapen ekonomikorako edo profesionalerako espazioak nahi edo behar dituzten pertsonen eta kolektiboen behar eta aukerei [...] erantzungo dieten programak eta tresnak garatuz, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioen bidetik, eta haien bizitzan iraunkortasunari lagunduz, eraldaketara eta aliteritate ekonomikorako haien bokazioari kalterik egin gabe, ekintzailtza horien erdigunean kapitala jarri beharrean ekintzaile diren

pertsona horiek beraiek eta haien hartzaileak [...] jarriko dituen sistema baterantz aurrera egiteko» (Troyas, R. eta Facundo, G., 2018)<sup>4</sup>.

Topaketan, zenbait metodologiaren bidez, oro har ESSan eta zehazki ekintzailtzaren esparruan duela hainbat urtetatik ditugun errokak aztertu ziren: ESSra erakartzeko estrategiak, ESSa sustatzekoak eta interkooperaziokoak. Beste helburuetako bat ardatz kolaboratibo bat aurkitzea izan zen: ardatz egoki bat, jende guztiak proposatu ahal izan zitzan erabakitze gaiak, gero elkarlanean lantzeko. Aldez aurretik parte-hartzaileen artean mapatze bat eginez, zenbait erroka berri identifikatu ziren, eta foroak saioetan landu ziren.

### **Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko eta erakartzeko estrategiak**

Ez da erroka berria galdetzea ea ESSan benetako ahalegina egiten ari den bat egiteko eta partekatze, eta ea programak eta tresnak jendartearen gehiengoari bideratzen ari zaizkion, edo dagoeneko konbentzitura dagoen jende bati bakarrik. Hortaz, zer estrategia behar dira ESSa sustatzeko eta ESSra kolektibo gehiago erakartzeko? Galdera horri erantzuteko, lehenik eta behin, gaur egun abian diren ekintzak eta tresnak aztertu behar dira, eta xede-kolektiboak detektatu. Bestalde, zer kolektibo eta sektoretara ez garen iristen ari ere begiratu behar da. Ekintza horietatik abiatuta, datozen urteotan landu beharreko helburuak zehaztu ahal izango dira, eta etorkizuneko ildo estrategikoak taxutu.

Abian diren ekintzak «konbentzitura» dagoen jendearengana iristen dira, baina oraindik ere zailtasunak daude zenbait erakunde, sektore eta pertsonarengana iristeko, dela ESSra ohituta ez daudelako edo ezagutzen ez dutelako, dela beren

1. Artikulu hau C2C Conversaciones topaketaren 3. edizioaren ondorioak sistematizatzaren emaitza da. Erakunde eta pertsona hauek aritu ziren dinamizatzen: Sandra Salsón eta Ana Lorenzo (Juntas Emprendemos -Escuela de Emprendedoras Juana Millán), Montse Lamata (Xarxa d'Ateneus Cooperatius), Sandra Erill (Labcoop) eta Txelu Balboa (ColaBoraBora gizarte-ekimeneko kooperatiba). Webgunean topaketari buruzko txosten osoa ikus daiteke: <https://www.economiasolidaria.org/c2c-2023/#conclusiones>
2. <https://emprendes.net/c2c-2018-previa/>
3. <https://emprendes.net/c2c-conversaciones-zgz-2015/>

4. [https://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier-31\\_euskera.pdf](https://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier-31_euskera.pdf)

burua ESSaren esparruan ikusten ez dutelako, ESSaren esparruko ekintzak gauzatzen ari izanda ere. Kolektibo batzuetara iristea bereziki zaila da: preskriptoreak eta gestoria-zerbitzuak, unibertsitateak eta oro har hezkuntza-mundua, eta landa-eremuak. Gainera, kolektibo zaurgarrietara, pertsona migratuetara eta klase apaletara hurbildu gabe jarraitzen dugula sumatu da.

Alde horretatik, funtsezko bi alderdi identifikatu dira: alde batetik, dibulgazioaren eta sentsibilizazioaren garrantzia, kanal propioak izatearena eta hedabideetan eragin handiagoa lortzearen garrantzia. Bestalde, sarean lan egitea eta ekosistemak sortzea (adibidez, polo kooperatiboak<sup>5</sup>), ESSa sustatzeko eta ESSra erakartzeko elementu estrategiko gisa. Azken kasu horretan, ikusi da horrelako ekosistemarik ez dagoen eremuetan zailtasun gehigarri bat dagoela, zuzenean eragin dezakeen bertako eragilerik ez dagoelako.

Gainera, kontakizunari buruzko zenbait galdera planteatu dira: zer azaltzen dugu ESSaz ari garenean? Konfort-zonan geratzen gara? «Konbentzituta» dagoen jendearengana bakarrik jotzen dugu? Beste marketin-mota bat behar dugu? Beste komunikazio-mota bat? Ulergarria da ESSaren komunikazio-modua? Zer gertatzen da «ekonomia sozial eta solidarioa» hitzekin? Ezin garrantzitsuagoa da funtsezko bi arlotan hizkuntza hobetzea: hezkuntzaren arloan eta politikan eragiteko arloan. Ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia konbentzionalaren artean lankidetzaz-estrategiak erabili eta zubiak eraiki behar dira.

Abian diren ekintzak «konbentzituta» dagoen jendearengana iristen dira, baina oraindik ere zailtasunak daude zenbait erakunde, sektore eta pertsonarengana iristeko, dela ESSra ohituta ez daudelako edo ezagutzen ez dutelako, dela beren burua ESSaren esparruan ikusten ez dutelako, ESSaren esparruko ekintzak gauzatzen ari izanda ere. Kolektibo batzuetara iristea bereziki zaila da: preskriptoreak eta gestoria-zerbitzuak, unibertsitateak eta oro har hezkuntza-mundua, eta landa-eremuak. Gainera, kolektibo zaurgarrietara, pertsona migratuetara eta klase apaletara hurbildu gabe jarraitzen dugula sumatu da.

## Interkooperazio-estrategiak ekintzailertzan

ESSak berezkoa du kooperatzea; bere DNAren parte da. Zerbaitegatik da Ekonomia Solidarioaren Gutunean<sup>6</sup> jasotako printzipioetako bat. Interkooperazioa, gainera, ESSaren ekimenei jardunean eusteko baliagarri izateaz gain, erresistentziarako estrategia ere bada<sup>7</sup>, lehia oldarkorrean oinarrituta dagoen ekonomia kapitalistaren ereduaren aurrean behar-beharrezkoa.

Estatu mailan ESSko ekintzailertza garatzearen markoan, funtsezkoa da interkooperazio-estrategiek dituzten erronka nagusiei buruz hitz egitea eta eredu horretatik ekiten duten pertsona eta talde sustatzaileen artean hainbat tresna partekatzea (digitalak, tresna-kutxa, prestakuntzakoak...). Alde horretatik, hartu-emana hiru alderditatik landu daiteke: proiektuen ikusgarritasuna eta ezagutza, baliabideak lortzeko bideak (ekonomikoak, politikoak, legezkoak) eta ezagutzaren eta esperientzien transferentzia, bai barne mailan, bai kanpoan.

ESSaren baitan era askotako erakundeak daude, eta aniztasun

horrek oztopatu egiten du interkooperazioa: erakundeek garapenean desorekak daude komunitate eta lurralde batzuetatik besteetara. Proiektu batzuk oso txikiak eta ahulak dira, batez ere landa-eremukoak; beste batzuk, aldiz, handiagoak dira eta espazio guztia hartzen dute batzuetan. Interkooperaziorako egiturek energia eta eztabaida asko eskatzen dute, eta gerta liteke horren ondorioz erakunde asko «kanpoan» geratzea. Gainera, barne-kudeaketako mekanismoak ere askotarikoak dira, ekintzailertzari buruzko ikuspegietan dauden ñabardurak ere bai kasu askotan, eta horrek zaildu egiten du baliabideak eta tresnak partekatzea.

5. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/nace-la-red-estatal-de-polos-cooperativos-y-ess/>

6. <https://www.economiasolidaria.org/cooperacion/>

7. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/la-intercooperacion-como-estrategia-de-resiliencia/>

Beharrezkoa da, ordea, gutxiengoen ekintzaile-profilak sartzea egituretan (pertsona migratzaileak, aniztasun funtzionala duten pertsonak...), beren kolektiboetan ESSaren preskriptore bihurtu daitezen.

Beharrezkoa da, halaber, eredia ikusgarriago egitea, gizartera irekiago dauden lekuetan eta hizkuntzetan txertatuta.

Eta Administrazioaren aurrean ESSaren proposamenak baliaraztea, eta exijitzea eraldaketa ekonomikorako inbertsio publikoak ez dezala amaitu *greenwashing* egiten duten erakundeetara desbideratuta.

Gaur egun, eredu honen filosofiak eta jarduteko moduek gero eta balorazio sozial hobea dute, gazteen artean batez ere. Administrazio publikoen aintzatespena ere handitu egin da; ESSaren balioak bat datoz 2030 Agendarekin<sup>8</sup> eta Europako Estrategia eta Planekin.

Era berean, bizipen komunak eta esperientzia partekatua izateak enpatia izatea eta gobernantza-formula berritzaileak garatzeko gaitasuna errazten ditu. ESSaren esparruan badira esperientzia positiboak, oinarri sozial bati eta erakunde asoziatibo batzuei esker sortuak, bigarren mailako proiektuak sortzeko eta konektatzeko aukera ematen dutenak.

Bestalde, ezagutzak transmiti ditzaketen eta laguntza finantzarioa eman dezaketen erreferenteak ere egon badaude.

Beharrezkoa da, ordea, gutxiengoen ekintzaile-profilak sartzea egituretan (pertsona migratzaileak, aniztasun funtzionala duten pertsonak...), beren kolektiboetan ESSaren preskriptore bihurtu daitezen. Beharrezkoa da, halaber, eredia ikusgarriago egitea, gizartera irekiago dauden lekuetan eta hizkuntzetan txertatuta.

Eta Administrazioaren aurrean ESSaren proposamenak baliaraztea, eta exijitzea eraldaketa ekonomikorako inbertsio publikoak ez dezala amaitu *greenwashing* egiten duten erakundeetara desbideratuta<sup>9</sup>.

Azkenik, elkarren arteko konfiantza eta ezagutza indartzen jarraitzeko (interkooperaziorako ezinbestekoak baitira), garrantzitsua da tresnak sortzen eta ezartzen jarraitzea: lan-orduko prezioaren irizpide komunak, gatazketarako bitartekotza-zerbitzuak, eta aurreratuago dauden interkooperazio-proiektuek hasi berri diren erakunde edo proiektuei mentorizazioa egitea, batzuk aipatzearen.

### Ekintzailtza sozial eta eraldatzaileako erronka eta elementu berriak

Sustatzeko, erakartzeko eta interkooperazioko estrategiei lotutako erronkez gain, ESSko ekintzailtzaren esparruko beste erronka batzuk ere identifikatu ziren topaketan, gai hauekin lotuak: finantzaketa eta teknologia, desazkundearen ereduaren proposamena, kolektibo zaurgarrien irisgarritasuna, ekintzailtza-proiektuei laguntza integrala ematea eta landa-mundura hurbiltzea. Gainera, zeharka, azaleratzen ari diren zenbait gai edo elementu identifikatu ziren, bistatik galdu behar ez ditugunak:

**ZAINTZAK zeharkakoak dira.** Zaintzen errokarri ezin zaio gainerakoetatik bereiz balego bezala heldu. Zaintzak bizitzako ekintza guztietan daude eta, beraz, susta daitezkeen ekimen guztietan ere bai. Horregatik, zernahi ekintzari heltzean, ikuspegi hori ere sartu egin behar da.

**DESAZKUNDEA zeharkako bihurtu beharra.** Antzera jokatu behar da desazkundearen gaiari

8. <https://www.economiasolidaria.org/economia-solidaria-y-objetivos-de-desarrollo-sostenible-ess-y-ods/>

9. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/europa-planta-cara-al-greenwashing/>

dagokionez ere, premisa honekin: ingurumen-krisi globalaren aurrean, desazkundearen ildoko proposamenak dira alternatiba posible bakarra. Baieztapen hori ez dago tentsioetatik libre; izan ere, ESSko ekintzailatza-proiektu berriak sortzeaz ari garela, nola aplikatu ahal zaizkio desazkundearen ildoko logikak?

**KONFIANTZA badugu, KONFIANTZA eraikitzen ari gara.** Zer egiten ari den aztertzeari ekiten zaionean, askotan ahaztu egiten da zer ibilbide egin den, zer aurrerapen egin eta zer gaitasun lortu diren. Hainbestetan ziurtzat jotzen den gai horietako bat da konfiantza. Interkooperatzeko, ezinbestekoa da elkarrengan konfiantza izatea, eta, aldi berean, interkooperatzen ari garenean eta sarean dihardugunean, konfiantza hori eraikitzen ari gara. Ahalduntzeko zirkulu moduko bat da.

**ELKARREN ARTEKO LAGUNTZA indartzea.** Egunerokotasuna, zailtasunak, presak... Geurean murgilduta, askotan ahantzita geratzen dira ESSaren ideietan dauden gaiak eta balioak. Horietako bat da elkarren arteko laguntza, ekonomia sozial eta solidarioak berezkoa duena. Erakundeek, programen, sareek, lurraldeen eta sektoreen artean elkarren arteko laguntza indartzeko bide bat interkooperazioa da.

### «Irtenbideen merkatu» bat ESSko ekintzailatzaren erronketarako

ESSko ekintzailatzaren kontakizunean paragrafo berri bat eraikitzeko, identifikatutako erronkei irtenbideak bilatzen lagunduko duten ildo estrategikoak marraztu behar dira:

- Hezkuntza-munduan eragitea, curriculum arautuan ESSa sartuz, ESSaren ereduak dituen balioen eta printzipioen gutuna zeharkako bihurtuta.
- Aliantzak sortzea, ESSrik ez dagoen lekuetan edo aurretiko ehunik ez dagoela-eta ESSa ahul dagoen lekuetan presentzia izatea. Nola sortu daitezke?
- ESSrako komunikazio- eta marketin-estrategia bat egitea, integratzaileagoa izan dadin, bai hizkuntzaren aldetik, bai ESSa osatzen duten pertsonen aldetik. Kontakizuna sortzeko eta partekatze modua hobetzea, jende guztiarengana iristeko.

- Tresnak, metodologiak, proiektuak eta esperientziak partekatzea eta sistematizatzea ESSko ekintzailatza sustatzen duten eragileek artean, lurralde guztietan.
- ESSko erakunde txiki eta ertainen ehun sozioekonomikoa indartzea, interkooperazioari esker asmo handiagoko proiektuak segurtasunez eta kaudimenez egin ahal izan ditzaten.
- Administrazio publikoetan eragiteko gaitasuna handitzea, ESSaren ehuna lurralde guztietan haz dadin.
- ESSaren hazkundera sustatzea desazkundearen bidez, merkatu kapitalistan ordeztzeko estrategia baten bitartez.
- Kolektibo zaurgarriek ekintzailatzarako irisgarritasuna izatea.
- Landa-eremuan ekintzailatza aintzat hartzea, lan duina sustatzeko.
- Finantziarioa, nola aktibatu tresna ekonomikoak hasierako eta ondorengo inbertsioetarako.
- Ekonomia sozial eta solidarioa eta Teknologia: nola sustatu subiranotasun teknologiko bizigarri bat.
- Nola egin bidelaguntza ekintzailatza-proiektuei beren garapen edo bizi-ziklo osoan.

### Zaindu, utzi, argitu, probatu

Oraintxe abian dauden praktika, dinamika eta ekimenetan, zer ZAINDU, UTZI, ARGITU eta PROBATU<sup>10</sup> behar da? Galdera horri erantzunez, etorkizunerako gako hauek atera dira:

**ZAINDU** diogunean, aditzera eman nahi da egiten ari garen gauzetatik zein diren egokiak eta, beraz, egiten jarraitu beharrekoak. C2C topaketan parte hartutakoen iritziz, mantendu nahi diren elementuak honako gai hauekin lotutakoak dira, nagusiki: elkarren arteko laguntzarako eta interkooperaziorako aliantzak eta sareak eraikitzen jarraitzea, ESSaren balio eta printzipioei eustea (ekimenak definitzen eta gidatzen dituztenak), eta ekintzailatza-proiektu berriei eta taldeetako pertsoneri arreta ematea.

**UTZI** diogunean, aditzera eman nahi da egiten aritu garen gauzetatik zein diren baztertu beharrekoak, jada bere egitekoa bete duelako eta bere zikloa itxi duela-

10. Topaketaren azken saioan, etorkizunerako hurrengo urratsak sortzeko prozesu gisa, Claes Janssen-en aldaketaren lau geletan oinarritutako ariketa bat egin zen, lau eremutan zeharreko ibilbide bat eginda: zaindu, utzi, argitu eta probatu. Saio hori ColaBoraBora taldeak dinamizatu zuen.

eta zer den gehiago egin behar ez dena. C2C topaketan parte hartutakoen iritziz, «utzi» nahi diren elementuak honako gai hauekin lotutakoak dira, nagusiki: ez jardutera bultzatzen gaituzten gauzak edo jarduna oztopatzen dutenak (lan eta ikuspegi indibidualista, atoprekarizazioa, endogamia), eta ESSaren ahalei eta aukerei buruzko konbentzimendu falta eta zalantza propioak, geureak.

**ARGITU** diogunean, formula berriei ari gara, baliotsuak izan daitezkeen ekarpenez, etorkizunean zer emana izan dezaketela-eta orain agertzen hasiak diren zer gauza iruditzen zaizkigun hausnartu eta sakondu beharrekoak. Topaketaren esparruan, argitu beharrekotzat jotzen diren elementuak auzi teknikoekin lotuta daude, batik bat: nola interkooperatu (nondik hasi, nola konektatu, zer espaziotan), zein diren kooperaziorako bidea ematen duten sareak, formulak eta tresnak, nola lortu programen eta ekimenen finantzaketa, eta nola kontatu herritarrei zer den ESSa.

**PROBATU** diogunean, gauza berriak egiteko eta lehengoak eraberritzeko espazioaz ari gara, eta zer puntutatik hasi identifikatzea dakar berekin. Prototipoen eta esperimentazioaren bidez aldaketa txikiak egitea da kontua. Topaketaren markoan, zer elementutatik hasi nahi den galdetuta, erantzunak gai hauekin lotuta daude, nagusiki: egiteko modu eta programa osagarriekin

konektatzea, aliantzak ezartzeko (baita ESStik kanpo ere); kanpora komunikatzeko eta hedatzeko formula berriak kontuan hartzea; eta teknologiara eta teknologiak dituen aukeretara hurbiltzea.

Gako eta ildo estrategiko horiek baliagarriak izango dira kontakizunaren hurrengo urratsak eraikitzeko. Hala, landutako hausnarketak eta ikaskuntzak barnean hartuko dituen etorkizun baterantz bideratu ahal izango da ESSko ekintzailatza, eta hori lagungarri izango da artikulatzeko, interkooperaziorako eta elkarren arteko laguntzarako. ■

## Bibliografia

MgE Dosierrak 31: «Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko jardunbideak eta tresnak»: [https://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier-31\\_euskera.pdf](https://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier-31_euskera.pdf)

C2C Conversaciones 2023 topaketari buruzko azken txostena: <https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2023/12/RELATORIA-FINAL-ENCUENTRO-C2C-CONVERSACIONES-2023.pdf>

**Sara Sama Acedo**

*Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalea (UNED)*

**Gema Alcañiz Olmedo**

*Cisneros Kardinala Unibertsitate Zentroa*

### Sarrera

Azken bi hamarkadetan, 2008ko finantza-krisia piztu eta pilatu eta pilatu ari ziren krisi-ekologikoaren ondorioak, erreproduzio sozial eta finantzarioaren krisiarenak eta legitimotasun politikoaren krisiarenak (Pérez-Orozco, 2011, 2013)- ageri-agerian geratu zirenez geroztik, antolakuntzaren arloko ekimen eta praktika ugari sortu dira, eredu sozioekonomiko nagusiarekiko kritikoak denak, oinarritzko premia eta eskari sozial larrienei aurre egitea helburu hartuta. Esate baterako: kooperatibismoaren esparruko ekoizpen- eta enplegu-ekintzailetzak; jabetza mota partekatuak defendatzen dituzten proiektuak; plataforma digital kooperatiboak; nekazaritzako eta ekologiako hornikuntza-sistemak; eta baliabide komunak eta zaintza ematearen aldeko ekimen komunitario eta kooperatiboak. Ekimen horietako asko estu lotuta daude Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin, ekologismoarekin, ekonomia feministarekin, eta *commoning*aren teoria eta praktika berrietuekin. Modu zabalean hitz eginda, era horretako ekimenak *Ekonomia Eraldatzaile* (ET) gisa aurkeztu izan dira (Suriñach, 2017; Tapia, 2018), proposamen kontzeptual eta programatiko baten barruan aurkeztu ere, desberdinak bai baina, hala ere, proiektu sozioekonomiko emantzipatzaile beraren parte diren proposamen eta praktika ekonomiko eta politiko askori buruzko kontakizun komun horren eraikuntzari bere aletxo batzeko.

2020tik 2024ra bitartean garatutako «Paradigmak aldatuz: *Ekonomia eraldatzaileen* praktikak eta diskurtsoak larrialdi ekosozialeko testuinguruan» (PID2019-106757GAI00, honek finantzatua: MCIN/AEI/10.13039/501100011033) ikerketa-proiektuaren esparruan erabilitako lan-ildoak abiapuntu hartuta, ekonomiaren eta politikaren ikuspegitik «eraldatzaileak» diren EEren alderdien eta eguneroko praktiken artean gaur egun dauden mugetan, anibalentzietan eta tentsioetan jarri nahi izan dugu arreta. Gure ustez, ekintza- eta erlazio-praktika, -prozesu eta -testuinguru zehatzetan oinarritutako ezagutza- eta hausnarketa-bide horri

esker, ekimen horiek guztiak hobeto ulertu ditzakegu, batez ere martxan jartzen dituzten «eraldaketek» berez dakartzaten erronkak irudikatzen, eztabaidatzen eta erantzun zehatzak praktikan jartzen dituztenean (Sanz, Sama eta Carrero, 2023).

Horrekin bat etorriz, gure ikerketa Espainiako eta Portugalgo hainbat tokitan EErekin identifikatzen diren erakundeei buruzko kasu-azterketetan oinarritu da, eta bost ekintza-eremu hartu dira kontuan, eragiten dituzten aldaketengatik eremuok gaur egungo testuinguruan pertinenteak direlakoan: (1) jabetzaren eta ondasun komunaren esanahiaren (bir)formulazioa; (2) Ekonomia Sozial eta Solidarioa atxikitako ekonomia antolatzeko moduak, dirua pilatzera bideratzen ez direnak; (3) ingurumen-baliabideen erabilera eta elikagai-hornidura trantsizio ekosozialaren testuinguruan; (4) bizitzaren zaintzara bideratutako baliabideak; (5) plataformetan oinarritutako ekonomiaren arloko ekoizpen-/kudeaketa-ereduen esanahiaren (bir) formulazioa.

### Eguneroko erronkak eta alternatibak: jasangarritasuna, zaintzak eta eraldaketa

Jarraian, sistematizazio-lan bateratu batetik sortutako **erronka eta erantzun** adierazgarrienetako batzuk aurkeztuko ditugu. Sistematizazio-lan horretan, 14 ekimen jarri dira martxan, beren helburuak gogoetagai hartu, antolatu eta proiektatu ohi dituzten hiru kategoriazabal oinarri hartuta: jasangarritasuna, zaintzak eta eraldaketa.

Aldez aurretik, bi alderdi garrantzitsu hartu behar ditugu kontuan: **(1) kategoria horiek ez dira estankoak edo independenteak; aitzitik, elkarri oso lotuta daude; (2) ekimen guztiek erronka komunei emandako erantzunak askotarikoak dira, bakoitzaren antolamendu-ezaugarriak eta ibilbide espezifikoak aintzat hartuta.** Ekimen batzuek oinarri komunitarioa dute, baliabideak kudeatzen dituzte eta

balioa sortzen dute, baina ez bakarrik merkataritza-harremanen edo Estatuarenak soilik diren formulen bidez. Beste batzuk formula kooperatiboen bidez antolatzen dira, edo irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarte formalizatu gisa. Neurri txikiagoan, bestelako proiektu eta ekimenak ere badaude, hala nola formalizatu gabeko komunitate, elkarte, gune eta/edo sareak. Ekimen komunitario horiez gain, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena/ banaketa eta lana antolatzen duten enpresa kooperatiboek ere parte hartu zuten sistematizazio-lanean. Horietako batzuk ESSrekin lotuta daude, eta ibilbide luzea dute. Beste kooperatiba sortu berriago eta txikiago batzuk estuago lotuta daude nekazaritzako elikagaien hornikuntza ekologikoarekin, plataformetan oinarritutako ekonomiarekin eta energia berrizgarriekin.

### **Jasangarritasuna**

Ekimenek ahaleginak eta bidegin behar izaten dituzte jasangarritasunaren eta bideragarritasun ekonomikoaren arteko orekari eusteko, eta kategoria hau, hain zuzen, horrekin lotuta dago. Oreka horretara iristeko, ingurumena eta pertsonak zaindu eta errespetatu behar dira, baina, errentagarritasun- eta produktibitate-irizpideen arabera funtzionatzen duen merkataritza-eremuan gertatzen denaz bestela, horrek dakartzan kostuak kanpora atera gabe. Hala ere, jasangarritasuna termino polisemiko eta eztabaidagarria da, eta, alde horretatik, ekimenetako batzuek hainbat erronka, erantzun posible eta dilema aipatu zituzten.

Proiektu eta enpresa kooperatibo gehienek, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta lana antolatzeko, ekitate- eta justizia-printzipioak eta ingurunearekiko konpromisoa hartzen dituzte oinarri, nahiz eta horrek ekonomikoki errentagarritasun txikiagoa ekarri,

Proiektu eta enpresa kooperatibo gehienek, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta lana antolatzeko, ekitate- eta justizia-printzipioak eta ingurunearekiko konpromisoa hartzen dituzte oinarri, nahiz eta horrek ekonomikoki errentagarritasun txikiagoa ekarri, prezio justu bezain bideragarri eta lehiakorrei eutsi behar izaten baitiete aldi berean, eta, ezinbestean, horrek bere ordainak dakartza; zehatz esatera, hauek: (1) proiektuek berekin dakarten gainkostua beren gain hartu beharra —hau da, tartean diren talde eta ekonomien gain—; (2) azpiegiturak hobetzeko gastuak eta/edo soldata justu eta ekitatiboei eusteak eragiten dituenak mugatu beharra; (3) bestelakoak baino garestiagoak izan ohi diren tokiko produktu jasangarri eta/edo ekologikoen erabilera murriztu beharra; (4) finantzaketa-formuletara jo beharra, hala nola mailegu eta dirulaguntza publikoetara,

prezio justu bezain bideragarri eta lehiakorrei eutsi behar izaten baitiete aldi berean, eta, ezinbestean, horrek bere ordainak dakartza; zehatz esatera, hauek: (1) proiektuek berekin dakarten gainkostua beren gain hartu beharra —hau da, tartean diren talde eta ekonomien gain—; (2) azpiegiturak hobetzeko gastuak eta/edo soldata justu eta ekitatiboei eusteak eragiten dituenak mugatu beharra; (3) bestelakoak baino garestiagoak izan ohi diren tokiko produktu jasangarri eta/edo ekologikoen erabilera murriztu beharra; (4) finantzaketa-formuletara jo beharra, hala nola mailegu eta dirulaguntza publikoetara, horrek proiektuen autonomia-asmoak eten eta tentsio ekonomiko handia sortu arren, halakoek onartzen zailak diren epeak, baldintzak eta ezaugarri burokratikoak eragiten baitituzte.

Horri guztiari aurre egiteko, proiektuak beren autonomia indartzen ahalegintzen dira, antzeko proiektuekin **interkooperazio-harremanak** sustatuz, eta balio-kateak ixten edo gastuak merkatzen dituzte erosketa kolektiboen bidez, kudeaketa teknologikoaren garapen komunaren bidez, kanpaina bateratuen bidez, ekintza logistiko koordinatuen bidez, etab. Erakunde publikoekin loturak izan (edo ez) erabaki behar izateari dagokionez, badirudi dirulaguntzekiko mendekotasuna orokorra dela, baina, hala ere, kasu batzuetan, **diru-sarrerak dibertsifikatzea** erabakitzen da, kanpoko kontratazio-iturriak bilatuz (horren adibide dira udalekin batera eskaintzen diren zerbitzuak).

Soldatapeko langile ugari dituzten proiektu askorentzat (hala nola tarteko tamaina duten fundazio eta kooperatibentzat) **soldata-berdintasunaren printzipioari eustea** da beste erronka bat. Proiektu batzuei dagokienez, lanbidearteko soldata edo

soldata-hitza armena aplikatzea izan ohi da erantzuna nagusiki, baina lan batzuek berekin duten erantzukizuna, dedikazioa eta kualifikazio-maila aintzat hartu gabe betiere. Eta horrek, jakina, bere dilema ditu. Esate baterako, estatu mailako eta/edo Europako dirulaguntzen mende egoteak eta/edo kanpoko zerbitzuen kontratazio-iturriak igo behar izateak ezinbesteko bihurtzen dituen lanak direla eta, soldata-berdintasunak zaildu egiten du ezagutza teknikoak edo kudeaketaren, burokraziaren, marketinaren eta ordezkartzaren arloko adituak erakartzea.

Proiektuak ingurumenaren ikuspegitik jasagarriak izaten nola ahalegintzen diren hartzen badugu hizpide, argi ikusiko dugu denek ere, oro har, horren aldeko neurriak lantzen eta inplementatzen dituztela gutxi-asko. Zehatz esatera, kasuaren arabera: bateriak, plastikoak eta hondakin organikoak murriztu eta birziklatu; tokiko produktuak kontsumitu; eta produktu batzuen trazabilitatea gainbegiratu eta/edo ekoizpen ekologikoan eta energia-iturri jasagarrietan oinarritutako hornigaiak erabili. Proiektuek, baina, zailtasun handiak aurkitzen dituzte bidean, neurri horiek guztiak zapuzten dituztenak. Izan ere, halako neurriak inplementatzeak eta ingurumen-zerbitzuak ezartzeak kostuak eragiten ditu, eta kostu horiek ere internalizatu egin behar izaten dira, autoesplotazio-mekanismoak martxan jarrita eta ekimenen bideragarritasuna bermatu beharko luketen «mozkinak» arriskuan jarrita.

Azkenik, ekimenen **iraunkortasunaren** erronkari dagokionez, argi ikusten da alderdi batzuek proiektua aurrera eramateko modua errazten/mugatzen dutela; bakoitzaren sorrerako balioak aintzat hartuta; iraunkortasuna faktore hauen eraginpean dago: (1) partaideen dibertsifikazioa, ekimenak hazi edo profil «teknikoagoa» duten eta proiektuarekin eta haren

(...) lanari eta militantziari eskainitako denbora eta espazio zorrotzak eta bizitzak zaintzeko beharrezkoak direnak nola bateratu asmatzea da proiektu gehienek dilema nagusietako bat. Soldatapeko langileak dituzten proiektu askok, kontziliazioari buruzko estatu mailako lege-esparru eskasa aintzat harturik, lan-baldintza eta -eskubideak hobetzearen eta malgutzearen alde egin, eta amatasun-/aitatasun-baimen luzeagoak ematen eta adineko/mendeko pertsonak edo ospitaleratuta daudenak zaintzeko baimenak ugaritzen eta malgutzen dituzte. Berariaz feministak diren kooperatibek, esate baterako, emakumeei kalte egiten dieten produkzio- eta ugalketa-lanen antolaketa desorekatuaren arazoari ekiten diote.

balioekin «konpromiso gutxiago» duten langileak kontatu ahala; (2) belaunaldien arteko erreleboa. Horri aurre egiteko, laguntza eta prestakuntza ematen dira, eta, horrekin batera, langile kontratatatu berriak (edo bazkide hasiberriak) sentsibilizatzen dira, proiektuaren eta/edo kooperatibismoaren balioak barnera ditzaten. Gainera, deliberazio- eta erabaki-organoen berrikuntza errazten duten neurriak aplikatzen dira (kargu eta zereginak txandakatu, batzordeak berritzeko epeak ezarri, guneak ireki...), pertsonak ekimena beretu dezaten eta proiektuaren parte sentitu daitezen, horrek proiektuaren jarraipena bermatzen eta haren koherentziari eusten lagundu dezakeelakoan.

### Zaintzak

Kategoria hau bi alderdirekin dago lotuta: batetik, proiektuek pertsonen zaintza beren jardueraren erdigunean jartzeko erronkari nola heltzen dioten eta jendearen premiei nola egiten dieten aurre adierazten du, eta, bestetik, beren egunerokoan aniztasuna nola gobernatzen eta bideratzen duten.

**Bizitza(k) zaintzeari, lanari eta militantziari eskainitako denbora banaketa orekatuarekin** du zerikusia identifikatutako erronka nagusietako batek, eta bizitzaren eta kapitalaren arteko tentsio konponezinaren aurrean jartzen gaitu. Alde horretatik, lanari eta militantziari eskainitako denbora eta espazio zorrotzak eta bizitzak zaintzeko beharrezkoak

direnak nola bateratu asmatzea da proiektu gehienek dilema nagusietako bat. Soldatapeko langileak dituzten proiektu askok, kontziliazioari buruzko estatu mailako lege-esparru eskasa aintzat harturik, lan-baldintza eta -eskubideak hobetzearen eta malgutzearen alde egin, eta amatasun-/aitatasun-baimen luzeagoak ematen eta adineko/mendeko pertsonak edo ospitaleratuta daudenak zaintzeko baimenak ugaritzen eta malgutzen

dituzte. Berariaz feministak diren kooperatibek, esate baterako, emakumeei kalte egiten dieten produkzio-eta ugalketa-lanen antolaketa desorekatuaren arazoari ekiten diote. Horretarako, seme-alabak txandaka eta ordainduta zaintzeko aukera ematen diete kooperatibistei, familiako beste emakumeren batek halakoen ardurarik hartu behar izan ez dezan.

**Tartean behin elkartzeko eta tentsioak agerian uzteko topagune lasaiak** sortzea eta mantentzea da beste erronka garrantzitsu bat, eta elkar zaintzeko eta elkarri laguntzeko bideak

irekitzea ere bai, gehiegizko lan eta erantzukizunek ekarri ohi duten, tentsioak ikusarazteko eta elkarren zainketak eta laguntza ezartzeko, lan- eta erantzukizun-gainkargak dakarren «akidura» erremediatzeko. Horrekin lotuta, hain zuzen ere, erakunde gehienek beren batzarren hasieran tarte bat eskaintzen diote emozioak azaltzeko txandak egiteari. Halaber, batzuetan, gai delikaturen bati buruz hitz egitean edo lankideren batestutasunean jar lezakeen gairen bat hizpidera ekartzean, bestelako guneak/tarteak proposatzen dira batzarretik kanpo komunikazioa dinamizatzeko. Neurri horien ondorioz, dena den, orobat gerta liteke langileen dedikazio-exijentzia handiagoa izatea eta, beraz, horrek bizitza pertsonalari eta familiari eskainitako denbora kolonizatzea azkenerako. Hori dela eta, kooperatiba batzuek beren aurrekontuaren zati bat bideratzen dute pertsonen zaintzarako bitartekaritzan, prestakuntzan eta guneen/denboren antolaketan espezializatutako zerbitzuak kontratatzeko.

Azkenik, **aniztasunaren inklusioari/kudeaketari**

dagokionez, oro har, proiektuetan tartean daudenek uste dute beren ekimenetariko askok konpondu gabeko inklusio-arazoak dituztela konpontzeke, baina gehientsuenek ontzat daukate balio hori Ekimen gehienak klase ertaineko pertsonen egiten dituzte, eta hartzaile nagusiak ere hiri-giroko klase

(...) proiektuetan tartean daudenek uste dute beren ekimenetariko askok konpondu gabeko inklusio-arazoak dituztela konpontzeke, baina gehientsuenek ontzat daukate balio hori Ekimen gehienak klase ertaineko pertsonen egiten dituzte, eta hartzaile nagusiak ere hiri-giroko klase ertaineko pertsona ikasiak dira. Sektore batzuetan, gainera, genero-desorekak daude, eta desberdintasun estrukturalak dituzte prestakuntzarako eta lanerako sarbidean. Proiektuen osaerari dagokionez beren burua sozialki eta kulturalki askotarikotzat dauzkaten ekimen gutxiak adierazten dutenez, nolanahi ere, denek ere zailtasunak omen dituzte erabakiak hartzeko dinamika benetan inklusiboak eta parte-hartzaileak sortzeko, ...

ertaineko pertsona ikasiak dira. Sektore batzuetan, gainera, genero-desorekak daude, eta desberdintasun estrukturalak dituzte prestakuntzarako eta lanerako sarbidean. Proiektuen osaerari dagokionez beren burua sozialki eta kulturalki askotarikotzat dauzkaten ekimen gutxiak adierazten dutenez, nolanahi ere, denek ere zailtasunak omen dituzte erabakiak hartzeko dinamika benetan inklusiboak eta parte-hartzaileak sortzeko, eta, horri aurre egin nahian, proiektuetan tartean dauden guztiek ondo ulertzeko eta adierazteko moduko formatu didaktiko eta egokien bidez jartzen dute eskuragarri informazioa.

### **Eraldaketa**

Kategoria honi dagokionez, beren jardueren bidez proposatzen eta bideratzen dituzten eraldaketa ekosozialak praktikan nola zabaltzen eta hedatzen dituzten adierazi zuten, batez ere, proiektuetan tartean zeudenek. Garrantzitsua da nabarmentzea, kategoria honek imajinatzekoa eta nahi izatekoa denarekin lotura berezia duenez gero, tartean dauden eragileek ekintzen bidez aitortu ziotela garrantzi hori. Laburpen gisara, bi estrategia-motatan sailka ditzakegu haien ekarpenak:

**1. Jardueri eta hazkunderari lotutako estrategiak.** «Haztea» da, izatez, proiektu askoren irrika: bai ekonomikoki eta sozialki bideragarri izaten jarraitzeko, bai beren proposamenak publiko sozial zabalago batengana zabaltzeko, bai erabaki-esparru politiko-instituzionalean «pisua» izateko eta bai politika publikoetan aldaketak egiteko. Hazkundera, beraz, ez da helburu gisa definitzen, beste zerbaite lortzeko «bitarteko gisa» baizik. Irrika horrek eztabaidak ere

pizten ditu proiektuan tartean dauden artean hazteko moduari eta/edo zertarakoari buruz, eta onartu ere onartzen da prozesuak, neurri handi batean behintzat, berekin dakarrela sozialki eta ekologikoki jasanezintzat jotzen diren merkatu-sistemaren logikak aplikatu beharra, eta horrek

garatu nahiko liratekeen eraldaketak mugatu beharra eragiten duela.

Horiek horrela, ez da harritzekoa proiektuetako askok *a priori* hazkunderi lehentasunik ez ematea, edo proiektuak, oro har, hiru estrategia hauen arabera haztea: (1) tokiko ekimenen eta erlazionatutako gizarte-erakundeen arteko interkooperazioa bultzatuz; (2), kasu batzuetan, sektoreko beste erakunde batzuekin ez lehiatzeko akordioak eginez; (3) eragileek prozesuaren ondorioz egin behar izaten dituzten gehiegizko esfortzuei muga ipiniz.

Nolanahi ere, estrategia horiek bestelako dilemak ezkututzen dituzte. Adibidez, ekimenek mozkin-bolumen txikiak mugitzeak zailtasun logistiko eta ekonomikoak sortzen ditu, eta horrek interkooperazioa oztopatzen du, nahiz eta interkooperatzeak bideragarritasun ekonomiko indartuko lukeen (Sama, Homs eta Berna, 2024). Gainera, sektoreko erakundeen arteko lehia arintzen saiatu arren, zaila da erakunde bakoitzak lortu nahi dituen helburuei begira bere burua indartzeko duen irrika horri eustea. Azkenik, eragileen gehiegizko esfortzuei ere nekez jar dakizkieke mugak; izan ere, interkooperatzeak (beste erakunde batzuekin sareak eta akordioak adostean, etab.) zereginak eta dedikazioa areagotzea eragiten du (ordaindu gabeko lana, alegia).

2. **Esparru publiko-instituzionalarekin batera jardutearekin lotutako estrategiak.** Alde horretatik, konturatzen gara proiektuek erakunde publikoekin batera jarduteko gune «errealak» eskatzen eta sustatzen dituztela, nahiz eta komunitateek eta ekimenek eragiten dituzten berrikuntzen eta gizarte- eta ingurumen-

zerbitzuen inguruan erakunde horiek darabiltzaten logika estraktibistak zalantzan jarri. Trantsizio ekosozialera bideratutako finantzaketa publikoa

(...) etengabeko tentsioa dago tartean daudenek "gauzak beste era batera egiteko" duten nahiaren eta horretarako dituzten baldintza kultural, material eta estrukturalen artean. Ekimenek beren bilakaeran aurkitzen dituzten berezko mugen eta erronken aurrean, ez dago ez erantzun bakarrik eta ez erabateko konponbiderik ere. Horiek horrela, gure ustez, gaitasun eraldatzailea, hein handi batean, eguneroko mugak, tentsioak eta dilemak ikusarazi eta lantzean datza, horiek gogoeta- eta esperientazio-gai zehatz bihurturik, gogoeta- eta esperientazio-lan hori izan baitaiteke gero eraldaketa-prozesu sozioekonomikoetarako oinarri eta akuilu.

handitu egin den arren, arlo hori proiektuen «behar praktikoetatik» bereizi beharreko zat jotzen da, eta prestakuntza-, ikerketa- eta hedapen-esparruetarantz bideratu ohi da modu desorekatuan, baliabideak ematen dituztenek (Estatuak, nagusiki) eta baliabideak banatzen dituztenek, hau da, deialdietara jo ohi duten aholkularitza-enpresa handiek, fundazioek, enpresek, etab., hala baldintzaturik (Sama, Homs eta Berna, 2024). Horrek, gainera, berekin dakar burokraziaren eta kudeaketaren zama, baita ekimentera askok, batez ere oinarri komunitarioa eta asoziazio-izaera ez-formalizatua dutenek, inola ere onar ezin ditzaketen erregulazio- eta kontrol-moduak ere. Horrek esplikatzen du, alde batetik, zergatik egiten duten proiektu batzuek autonomiaren alde, hori esplizituki hautu politiko gisa adierazita, nahiz eta, konpromiso militantearen ikuspegitik, horrek prekariedade ekonomiko eta lan-esplotazio handiagoa asumitu beharra ekarri; eta, bestetik, administrazio publikoekiko mendekotasun handiagoa duten erakundeek zergatik nahiago duten beren burua politikoki ez nabarmendu, erakundeak berak egiten dituen jarduera zehatzen bidez ez bada (generoaren inguruko sentsibilizazioa, gaitasun-aniztasuna, etab).

## Ondorioak

Gure ikerketaren oinarri izan diren kasuen eta erakundeekiko eztabaida- eta hausnarketa-dinamiken azterketak agerian uzten du proiektuek ahalegin handia egiten eta sormen handiz jokatzeko dutela «bestelako ekonomia bat» eraikitzeko, arrazionaltasun kapitalistaz haraindiko logikak erabiliz. Hala ere, etengabeko tentsioa dago tartean daudenek «gauzak beste era batera egiteko» duten nahiaren eta horretarako

dituzten baldintza kultural, material eta estrukturalen artean. Ekimenek beren bilakaeran aurkitzen dituzten berezko mugen eta erronken aurrean, ez dago ez erantzun bakarrik eta ez erabateko konponbiderik ere. Horiek horrela, gure ustez, gaitasun eraldatzailea, hein handi batean, eguneroko mugak, tentsioak eta dilemak ikusarazi eta lantzean datza, horiek gogoeta-eta esperimentazio-gai zehatz bihurturik, gogoeta-eta esperimentazio-lan hori izan baitaiteke gero eraldaketa-prozesu sozioekonomikoetarako oinarri eta akuilu.

Amaitzeko, bi hitz esan nahiko genituzke proiektuei denboraren joanean eustea ekimenentzat den lorpen handiari buruz, batez ere aintzat harturik ekimenok zenbat tentsio eta dilemari egin behar izaten dieten aurre eta zenbat baldintzapen estruktural dituzten. Askotan, EEren arloko proiektuei gehiegi eskatzen zaie, hala nola berritzaileak eta ekologiaren eta gizartearen ikuspegitik jasangarriak izatea, gizartegarapena eta -kohesioa sustatzea, bai eta ekonomikoki bideragarriak izatea, ezagutza eta enplegua sortzea eta politikoki aktiboak izatea ere. Hala ere, proiektuek berek aitortzen dutenez, «egiturak aldatu behar dira, sakon, bai eta arauak eta pentsamoldea ere, eta hori ez dago gure esku soilik».

Beraz, gogoeta egin beharra dago, eta, besterik ez bada ere, erakunde publikoek eta proiektuen kontsumitzaileek zer-nolako zeregina duten pentsatu. Erakundeei dagokienez, beren gain hartu behar dute proiektuek abiarazitako eraldaketak errazteko eta martxan jartzeko ardura (baliabide materialak, giza baliabideak, arau-esparru egokiak, etab.). Ez da nahikoa pizgarri eta laguntza ekonomikoak handitzea, are gutxiago ekimen ekosozial ertain eta txikientzako aski ez badira edo mendekotasun eta ezegonkortasun berriak sortzen badituzte. Karga burokratikoak, multifuntzionaltasunari gehiegizko garrantzia emateak eta jarduerak formalizatu eta justifikatu beharrak enpresa konbentzionalei egiten die mesede batik bat, eta EEk jasangarritasun sozial eta ekologikoari egiten dituen diskurtsoak kooptatzea eta despolitizatzea eragiten du. Kontsumitzaileei dagokienez, nabarmendu beharra dago zerbitzuak erostean eta erabiltzean gehiegi oinarritutako konpromiso-mota ez dela gai funtsean proiektuetako langileen eta militanteen autoesplotazioa eragiten jarraitzen duten ekoizpen-/erreproduktzio-erlazioak aldatzeko. Inplikazio eta erantzunkidetasun handiagoak behar dira; esate baterako, ekoizpenak berekin dituen arriskuak denek hartu behar dituzte beren gain, eta produktzio-bideetara

iristearen, finantzaketa lortzearen, ekoizpenaren plangintza antolatzearen eta lan-baldintza onak erdiestearen gaineko erantzunkidetasuna asumitu.

Amaitu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau posible egin duten elkarte eta erakunde guztiei, batez ere hauei: Mugarik gabeko Ekonomialariak, REAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarean Sarea), FUHEM (Madril), La Osa supermerkatu kooperatiboa (Madrid), Emauseko Trapuketariak (Nafarroa), Tambora (Sevilla), El Rincón Lento (Guadalajara), Madrileko hiri-baratzeen sarea, kaleko saltzaileen sindikatua/Pantera denda (Madril), Gramagraf (Bartzelona), Mol-Matric (Bartzelona), Kikiricoop (Asturias), Som Ecológica (Bartzelona), La Corriente kooperatiba (Madril), Agresta (Madrid), Trabensol (Madrid), Otro tiempo (Madrid) eta Senda de Cuidados (Madril). ■

## Bibliografia

- Pérez-Orozco, A. (2011), «Crisis multidimensional y sostenibilidad de la vida», in *Investigaciones Feministas*, 2, 29-53. [https://doi.org/10.5209/rev\\_INFE.2011.v2.38603](https://doi.org/10.5209/rev_INFE.2011.v2.38603)
- Pérez- Orozco, A. (2013), «La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿y eso qué significa?», in Mora Cabello de Albal, L eta Escribano, J (2013), *La ecología del trabajo: el trabajo que sostiene la vida* (71.-100. or.), Ed. Bomarzo.
- Suriñach (2017), *Economías transformadoras de Barcelona*, Ajuntament de Barcelona.
- Sama, Homs eta Berna (2024), «Habitat, consumir y cultivar. Procesos e iniciativas para la transición ecosocial en Cataluña y Madrid», in *Revista Española de Sociología*, 2024ko otsailean onartutako artikulua.
- Sanz, J., Sama, S. eta Carrero, G. (2023), «Economic, institutional and political advocacy tensions in the field of solidarity economy and commons: an ethnographic approach drawing from three case studies», in Esteves, A.M., Henfrey, T., dos Santos, L.L eta Leal, L. (2023), *Solidarity Economy. Alternative Spaces, Power and Politics*, Routledge, New York.
- Tapia, A. (2018), «Nuevas Economías Transformadoras», in *GIZAEKO - Revista Vasca De Economía Social*, (14). <https://doi.org/10.1387/reves.19505>

**Cristina de la Cruz-Ayuso**

*Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Deustuko Unibertsitatea*

2016an, Europako Batzordeak txosten bat argitaratu zuen emakumeei, enpresa-politikari eta ekintzailtzari buruz. Txosten horretan, duela bi hamarkadatik baino gehiagotik egin izan duen bezala, emakumeek enpresa bat sortzeko dituzten erronkak aipatzen ditu. Duela hamar urte, Europan, emakumeak enpresa guztien herenaren atzean zeuden. Orduan bezala, orain ere ikus daiteke zer-nolako genero-arrakala dagoen enpresa bati ekiteko orduan.

Genero-ezberdintasun horren iraupenak hainbat ekimen bultzatzera behartu du, emakumeen ekintzailtza globalean, eskualdekoan edo naziokoan sustatzera bideratuak, eta ezinezkoa da guztien berri ematea. Dena dela, aipatzekoak dira, duten garrantziagatik, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak. Horien artean, hazkunde ekonomiko inklusibo eta iraunkorraren aldeko deia dago, enplegu osoaren, produktiboaren eta guztiontzako enplegu duinaren bidez (8. GJH); genero-berdintasuna hobetzearen aldeko deia ere hor daukagu, emakumeei baliabide ekonomikoetarako sarbidea erraztearen eta haiek bizitzaren alderdi ekonomiko, politiko eta sozialetan parte hartzearen bidez (5. GJH).

Alde batetik, esparru ekonomikoan, berariazko ekintzailtza-ekimenak sustatuz, genero-desberdintasunei aurre egiteko borondate politikoa dago, eta, bestetik, emakumeek helburu horiek lortzeko dituzten zailtasunak. Zehazki, emakumeen beraien arabera, eta horretan adostasun zabala dago,

ekintzaile ez izateko arrazoi nagusia finantzaketa lortzeko zailtasunak dira.

*Mujeres e Innovación 2024* (Emakumeak eta berrikuntza) txostenak, hain zuzen, gai hori

azpimarratzen du: finantzaketa lortzeko zailtasunak dira, aurre egin behar dioten ziurgabetasun-egoerarekin batera, Espainiako emakumeen ekintzailtza-aukerak mugatzen dituen arrazoi nagusietako bat. Madrilgo Merkataritza Ganberaren 2024ko martxoko datuen arabera, negozio bat hasteko mailegua eskatzen duten emakumeek % 30 arteko probabilitate gutxiago dituzte hura lortzeko, gizon batek baino. Finantza-baliabideak lortzea funtsezkoa da, ez bakarrik ekintzailtza-ekimenek arrakasta izan dezaten, baita ekiteko aukera izateko ere.

Genero-arrakalaren arrazoiei buruzko narratibak zenbait azalpen ematen ditu. Batetik, azalpen horietako batzuen arabera, finantza-baliabideak eskuratzeko orduan joera edo alborapen bat dago, eta, bestetik, ulertzen saiatzen dira zergatik emakumeek gutxiagotan jotzen duten maileguak eskatzera autoenpleguko ekimenei ekiteko,

eta zergatik, gizonek ez bezala, laguntza ekonomikoa familia- edo gizarte-sareetan bilatzeko joera daukaten. Halaber, arrazoiaren artean ohikoa da entzutea emakumeek arriskuarekiko tolerantzia txikiagoa dutela, lehiakorrak baino gehiago kolaboratiboak izateko joera dutela edota, beren premien kaltetan, besteen beharrekiko sentikortasun handiagoa dutela.

Genero-arrakala horren arrazoiak aztertuta, pentsa daiteke, alde batetik, gizartean aukerak lortzeko orduan emakumeen eta gizonen artean dagoen berdintasun falta dela ekintzailetzarako finantzaketa lortzeko zailtasunen jatorria. Beste azterketa batzuek diote, ordea, desberdintasun hori kulturalki eraikitako genero-rolen ondorio dela. Ideia horien inguruan adostasun handia dago, baina, hala ere, argudioen egiaztapen falta agerian uzten duten ikerketek auzitan jarri dituzte. Izan ere, ikerketa batzuen arabera, finantza-baliabideak lortzeko orduan ez da genero-bereizkeriarik aurkitu. Beste azterketa batzuek iradokitzen dute emakumeek gizonek baino aukera gehiago eta hobeak dituztela egoera eta testuinguru batzuetan. Azterketa horiek diote kasu askotan egiturazko desberdintasun sozioekonomikoetan oinarritzen direla zailtasunak, berez genero-desberdintasunetan baino gehiago (Stefani eta Vacca, 2014), eta, finantzaketa eskuratzeari dagokionez, agian, ez dela egokia genero-arrakalari buruz hitz egitea, ez dagoelako baieztapen hori ziurtatzen duen ebidentzia zehatzik.

Azken azterketa horien arabera, emakume ekintzaileak asko eta askotarikoak dira, ezaugarri eta gaitasun indibidualei dagokienez, eta badirudi aniztasun hori erabakigarria dela kontuan ez hartzeko generoak duen eragin espezifiko finantzaketa lortzeko aukerak iragartzeko eta modulatzeko orduan, hau da, emakume ekintzaileak hainbeste eta hain desberdinak izateak murriztu egiten duela finantzaketa eskuratzeko aukeretan izan daitekeen genero-alborapena. Hori dela eta, hain zuzen ere, azterketa askok baztertu egiten dute generoaren aldagaia, eta testuinguruaren aldagaia gehitzen zaio: testuinguruak hainbeste eta hain desberdinak dira, ezen ezinezkoa baita guztietarako balioko duten ondorioetara iristea. Finantza-garapen handiko herrialdeek, adibidez, finantzaketa-aukera handiagoa ematen diete emakumeei, baina krisi-garaian, gainerakoek bezala, kreditua eskuratzeko muga handiagoak izaten dituzte.

Genero-arrakala horren arrazoiak aztertuta, pentsa daiteke, alde batetik, gizartean aukerak lortzeko orduan emakumeen eta gizonen artean dagoen berdintasun falta dela ekintzailetzarako finantzaketa lortzeko zailtasunen jatorria. Beste azterketa batzuek diote, ordea, desberdintasun hori kulturalki eraikitako genero-rolen ondorio dela. Ideia horien inguruan adostasun handia dago, baina, hala ere, argudioen egiaztapen falta agerian uzten duten ikerketek auzitan jarri dituzte. Izan ere, ikerketa batzuen arabera, finantza-baliabideak lortzeko orduan ez da genero-bereizkeriarik aurkitu.

Eraitza horiek harrigarriak dira. Izan ere, zaildu egiten dute sakon ulertzea finantza-baliabideak eskuratzeko orduan dagoen genero-desberdintasuna egiaztatzen erresistentzia handiak dituen errealitate bat. Kasu askotan, zailtasun hori arazo sotil eta konplexu bat aztertzeko modu baten ondorioa da. Izan ere, arazoa batez ere ikuspegi kuantitatibotik aztertu ohi da, eta ez da kontuan hartzen ikuspegi kualitatibo zehatzagoa eskatzen duten zenbait aldagairen kontrastea.

Nahiz eta emakumezko eta gizonezko ekintzaileak finantzaketa eskuratzeko orduan parean dabiltzala egiaztatzen daitekeen, azterketa xehatuago batek erakusten du badirela generoan oinarritutako tratua bereizgarriaren ebidentziak, modu sotilean eta ia oharkabean pasatzen dena, eta «bigarren mailako» tratua adierazten duena.

Artikulu honek emakume ekintzaileek finantzaketa lortzeko dituzten zailtasunetan eragina izan dezaketen aldagaien azterketa labur bat eskaintzen du, gai honi buruz dagoen literaturaren emaitzarik orokorrenak fintzen saiatuta. Generoarekin lotutako alderdi ugari daude, zuzenekoak eta zeharkakoak, ondorio hori modulatzeko dutenak, baina ikerketek argi eta garbi erakusten dute emakumeek aukera gutxiago

duela ekintzaile izan ahal izateko finantzaketa lortzeko. Zein dira desberdintasun horren arrazoiak?

Azterketa arin baten ondoren, ondorioztatu daiteke generoa aldagai adierazgarria eta garrantzitsua dela finantzaketa lortzeko, eta, hain zuzen, oztupo gehigarriak daudela emakume ekintzaileei gizon ekintzaileek dituzten finantzaketa-maila berak lortzea eragozten dietenak. Datuek erakusten dute emakume ekintzaileei interes-tasa handiagoak aplikatzen zaizkiela; informazio gehiago eman behar izaten dutela finantzaketa lortzeko eta mailegu txikiagoak jaso ohi dituztela. Emakume ekintzaileek ere joera handiagoa dute pentsatzeko finantza-erakundeek ez dituztela onartuko, eta erakunde horiek beren

kaudimen-gaitasunari buruz iritzi negatiboa dutela uste izan ohi dute.

### **Emakume ekintzaileen finantzaketan eragina duten banakako faktoreak**

Lehenik eta behin, badirudi generoari lotutako faktore indibidualak direla finantzaketa eskuratzeko faktore mugatzaileetako bat, finantzaketa lortzeko aukerak asko murrizten baitituzte. Hain zuzen ere, genero-estereotipoak eta -aurreiritziak dira finantzaketa eskuratzeko orduan zuzenean eragiten duten arrazoi nagusietako bat. Dirudienez, egoera horrek, hau da, emakume izateak, lotura negatibo zuzena du finantzaketa eskuratzearekin. Ordea, lotura hori onuragarri bihurtzen da gizonezkoak buru dituzten proiektu ekintzaileen kasuan. Ekimen ekintzailearen arrakasta-espektatiben eta tradizioz gizonek emakumeek baino posizio hobea izan duten ezaugarri batzuen artean dagoen korrelazioak egiaztatzen du genero-alborapen hori (Alsos eta Ljunggren, 2017).

Hona hemen finantza-baliabideak eskuratzeko probabilitatean eragiten duten faktoreetako batzuk: esperientzia izatea, kreditu-historia ona izatea, ekimen ekintzailetik espero den errentagarritasuna eta berme edo abal sendoak aurkeztea. Emaitzek erakusten dute gizonei gehiago laguntzen dietela emakumei baino. Emakumeek penalizazio gehiago izaten dituzte, adierazle horietako batzuetan duten desabantailagatik.

### **Emakume ekintzaileen finantzaketan eragina duten egiturazko faktoreak**

Zeharkako beste efektu batzuek ere areagotzen dituzte generoarekin lotutako ondorio zuzen horiek, emakume ekintzaileek gizonen aldean duten desabantaila-egoera indartzen baitute. Azterketa batzuen arabera, ekintzailearen adinak eta hezkuntza-mailak ez dute lotura zuzenik finantzaketa eskuratzeko orduan, baina bai, ordea, bi aldagaiak generoarekin erlazionatzen direnean. Oso ikerketa gutxi hartu dute kontuan ikuspegi hori. Zenbait aldagaik, hala nola adinak eta proiektuaren tamainak, lotura zuzena eta positiboa dute finantzaketa eskuratzeko orduan, betiere generoa kontrolatzen ez denean. Generoa kontrolatzen denean, berriz, lotura negatiboa dutela erakusten dute.

Azterketa arin baten ondoren, ondoriozta daiteke generoa aldagai adierazgarria eta garrantzitsua dela finantzaketa lortzeko, eta, hain zuzen, oztopo gehigarriak daudela emakume ekintzaileei gizon ekintzaileek dituzten finantzaketa-maila berak lortzea eragozten dietenak. Datuek erakusten dute emakume ekintzaileei interes-tasa handiagoak aplikatzen zaizkiela; informazio gehiago eman behar izaten dutela finantzaketa lortzeko eta mailegu txikiagoak jaso ohi dituztela. Emakume ekintzaileek ere joera handiagoa dute pentsatzeko finantza-erakundeek ez dituztela onartuko, eta erakunde horiek beren kaudimen-gaitasunari buruz iritzi negatiboa dutela uste izan ohi dute.

### **Emakume ekintzaileen finantzaketan zeharka eragiten duten faktore sinbolikoak**

Proiektu ekintzaileari lotutako ezaugarriak alde batera utzita, genero-estereotipoen ondorioz emakumeak eta gizonak ez dira era berean hautematen.

Emakume ekintzaileek finantzaketa-eskaera gutxiago egiteaz gain, badago finantzaketa lortzeko dituzten zailtasunak ikaragarri areagotzen dituen beste faktore bat, eta hor kontuan hartzen da ekimena zer sektore espezifikotan sartzen den: tradizionalki gizonak nagusi diren sektoreetan sartzeak eragin negatiboa izan ohi du

emakumeentzat. Emakumeek tradizioz gizonezkoenak izan diren sektoreetan ekitea erabakitzen dutenean, kapital-hornitzaileen ikuspegitik emakumezkoek legitimazio eta sinesgarritasun gutxiago izaten dute. Emakume enpresariei dagokienez, «Magdalenaren estigma» deritzona dago, eta, horren ondorioz, uste da enpresa-ekimenarekin hain serioak eta konprometituak ez direla, eta izaera sexistako ekimen ekintzaileekin,

hazkunde- edo mozkin-aukera gutxikoekin estereotipatzen dira. Genero-estereotipoen ondorioz, emakume baten negozioa zaletasuntzat hartu ohi da, lanaldi partzialekoa edo, areago, etxeakoandre gisa duen zereginaren luzapen moduko bat (Eddleston *et al.*, 2016).

Estereotipoek eragina dute gizonek eta emakumeek izan behar duten jokamoldearen deskribapenak prozesatzeko moduan. Alde horretatik, genero-rolek gizonen «famiaren sostenguari» eginkizuna esleitzen diete, eta lidergoa nabarmentzen dute; emakumeei, berriz, zaintzaile-lana esleitzen diete, eta loturak eta harremanak nabarmentzen dituzte. Egia da emakumeen eskubideek eta rolek bilakaera handia izan dutela, eta etengabe egin dutela aurrera; baina egia da, halaber, estereotipo horiek erlatiboki baina modu egonkorrean mantentzen direla denboran zehar. Ekintzailetzaren arloan finantzaketa eskuratzeari lotutako genero-arrakalak agerian uzten du genero-estereotipoek gaur egun ere tinko dirautela eta eragin handia dutela.

Generoari eta ekintzailetzari buruzko literaturaren emaitzetan oinarrituta, ondorioztatu beharra dago ezin dela esan ekintzailetzaren generoaren ikuspuntutik eremu neutroa dela. Halaber, ezin zaio eutsi baliabideetarako sarbidea merezimenduan eta aukera-berdintasunean bakarrik oinarritzen delako ideari (Wheadon eta Duval-Couetil, 2019); horregatik, agerian utzi behar da genero-estereotipoek nola jarduten duten eta horren emaitza zein den.

Emakumeek gidatutako proiektu ekintzaile askok arrakasta izan duten arren, oraindik ere emakume gehienek beren sexuagatik oztopo iraunkor bati aurre egin behar izaten diote. Oztopo hori emakumea izatea da. Arlo honetan eta beste askotan, emakume izatea oraindik ere desberdintasun, desabantaila eta diskriminaziorako kausa da. Beraz, tematu gaitezen,

iraunkortasun berarekin; jar ditzagun agerian aurreiritzi horiek dituzten ondorioak, eta martxan jar ditzagun ekintzaileen lan zailean genero-estereotipoek duten eragina arinduko dituzten mekanismoak. Bestela, begirada labur batean harrapatuta geratzeko arriskua dago, ikusi nahi duen horri bakarrik erreparatzen diona, eta ez benetan ikusi beharko lukeenari. ■

## Bibliografia

- Alsos, G.A. eta Ljunggren, E. (2017). «The Role of Gender in Entrepreneur-Investor Relationships: Signaling Theory Approach». *Entrepreneurship Theory and Practice*, 41(4), 567-590.
- Eddleston, K.A., Ladge, J.J., Mitteness, C. eta Balachandra, L. (2016). «Do you See what I See? Signaling Effects of Gender and Firm Characteristics on Financing Entrepreneurial Ventures». *Entrepreneurship Theory and Practice*, 40(3), 489-514.
- Europako Batzordea; Enplegurako, Gizarte Arazoetarako eta Inklusiorako Zuzendaritza Nagusia; Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundea; Halabisky, D. (2016). *Policy brief on women's entrepreneurship*, OECD Publishing, 2016.
- Stefani, M.L. eta Vacca, V. (2015). «Small Firms' Credit Access in the Euro Area: Does Gender Matter?», *CESifo Economic Studies*, 61 (1), 165-201.
- Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioko Emakumeak eta Zientzia Atala (2024). *Mujeres e Innovación, 2024 txostena*, Madril: Moncloa.
- Wheadon, M. eta Duval-Couetil, N. (2019). «Token entrepreneurs: a review of gender, capital, and context in technology entrepreneurship». *Entrepreneurship & Regional Development*, 31(3-4), 308-336.

Ana Lorenzo Vila eta Sandra Salsón Martín  
Juana Millán Emakume Ekintzaileen Eskola

**T**estu honetan Ekonomia Sozial eta Solidarioari (aurrerantzean ESS) buruz dugu hitz egingo dugu; izan ere, sistema horren bidez emakume ekintzaileek beren lan-proiektuak berdintasunezko ingurune atsegina batean garatzeko aukera dute. Hasteko, ESSn emakume gehiago egoteari buruzko zenbait datu aztertuko ditugu, lan-merkatu osoari lotutakoak eta ekintzailatzeko genero-arrakalaren ingurukoak. Proiektu profesional feministak garatzeko ESSren formulek dituzten «abantailak» aztertuko ditugu. Azkenik, ESSn ekiteko emakumeei nola lagundu landuko dugu.

### Emakumeen egoera enpleguan

Emakumeen Institutuaren datuen<sup>1</sup> arabera, Espainiako biztanleria aktiboaren % 47,30 emakumezkoak ziren 2022an. Urte horretan bertan, emakumeen eta gizonen okupazio-tasak % 45,93koak eta % 56,34koak ziren, hurrenez hurren. Zifra horiek adierazten dute gizonen emakumeek baino pisu handiagoa dutela enpleguan. Hala ere, ekonomia sozialean, antzeko pisua dute emakumeek eta gizonen, eta, sektore jakin batzuetan, gainera, handiagoa da emakumeen presentzia.

Adibidez, lan elkartuko kooperatibetan, emakume bazkideen kopurua % 51koa zen 2017an, Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioaren (COCETA) datuak oinarri hartuta. Erakunde horren datuen arabera, 2022an sortutako kooperatiba berrien % 58 emakumeek osatu zituzten.

Bestalde, Hirugarren Sektoreko Plataformak<sup>2</sup> adierazten du Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreak sortzen duen enplegua gero eta feminizatuagoa

dagoela: emakumeen pisua % 67,5koa zen 2018an eta % 76,5koa 2020an.

Beharbada, datu horietatik abiatuta, ondorioztatu dezakegu emakumeek lehentasuna dutela ekonomia sozialerako, baina litekeena da presentzia handiago hori jarduera-adarren arabera bereizketak baldintzatzea: hau da, jarduera ekonomikoetan gizonen eta emakumeen pisua ez da berdina banatzen, eta sektore maskulinizatuak eta feminizatuak daude. Estatistika Institutu Nazionalaren<sup>3</sup> arabera, emakumeek lan-indarraren ehuneko handi bat hartzen dugu zenbait sektoretan, hala nola osasunean, hezkuntzan edo txikizkako merkataritzan; gizonezkoek, aldiz, goi-zuzendaritzako lanpostu eta eskulan gehienak betetzen dituzte.

### Emakumeen egoera ekintzailatza-jardueretan

Ekintzailatzan pentsatzen dugunean, imajinario kolektiboak pertsona gazte batengana garamatza, ia-ia beti talentua eta anbizioa duen gizon batengana, eta negozio bat sortzeko eta aberasteko ideia duena. Ekintzailea lehiakorra eta azkarra izan ohi da, eta beti egoten da prest. Imajinario horrek merkatu kapitalistaren erritmo frenetikoak eta egiteko modu indibidualistak inposatzen dizkio ekintzaileari. Emakume asko ez gara imajinario horrekin identifikatuta sentitzen.

Ekintzailatzari dagokionez, datuek erakusten dute aldeak daudela emakumeen eta gizonen artean. Emakumeak buru diren ekimenetan, hazi-kapitalik ohikoena 3.000 eta 5.000 euro artekoa da; gizonen, berriz, 50.000 euroko kapitalarekin abiarazten dituzte proiektuak<sup>4</sup>. Gizonezkoek zuzentzen dituzten enpresak

1. [https://www.inmujeres.gob.es/MujerCifras/Informes/Docs/Mujeresencifras\\_1983\\_2023.pdf](https://www.inmujeres.gob.es/MujerCifras/Informes/Docs/Mujeresencifras_1983_2023.pdf)

2. [http://www.plataformatercersector.es/sites/default/files/1643189654\\_estudio-2021-resumen-ejecutivo.pdf](http://www.plataformatercersector.es/sites/default/files/1643189654_estudio-2021-resumen-ejecutivo.pdf)

3. [https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es\\_ES&c=INESeccionC&cid=1259931459725&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout](https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccionC&cid=1259931459725&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout)

4. Espainiako Ekintzailatzaren Behatokia (2023): Global Entrepreneurship Monitor. 2022-2023ko Espainiako GEM txostena. Argitaletxea: Kantabriako Unibertsitatea.

% 7,5 dira, eta emakumezkoek zuzentzen dituztenak, berriz, % 6,5<sup>5</sup>. Emakumeok kontserbadoreagoak gara langileak kontratatzeke orduan, teknologia-maila txikiagoko enpresen buru gara, eta, batez ere, kontsumitzaileentzako zerbitzuak<sup>6</sup> eskaintzen ditugu.

Azken Emakumeen Ekintzailetzari buruzko GEM Txosten Bereziak<sup>7</sup> dioenez, emakumeok beldur handiagoa diogu porrotari, ezkorragoak gara, harreman gutxiago dugu gainerako ekintzaileekin, arrakasta-erreferente gutxiago ditugu eta inguruan aukera gutxiago sumatzen ditugu. Lan-prekarietatea, egonkortasunik eza eta kontziliazio-beharra faktore garrantzitsuak dira, antza denez, ekin nahi duten emakumeentzat; gizonak, aldiz, gehiago ekiten diote errenta-maila handiagoa badute. Emakumeok kudeaketa- eta zuzendaritza-lanetan esperientzia gutxiago dugu, bai eta esperientzia hori lanean eskuratzeko aukera gutxiago ere. Ekintzaile izateko prestakuntza eta finantzaketa ere gutxiago dugu. Eta, horren ondorioz, emakumeen ekimenak txikiagoak dira, ez dira hain anbiziotsuak (ekonomikoki eta teknikoki), enplegu gutxiago sortzen dute, lan asko bakarkakoak dira eta ez dira hain agerikoak.

Datu horien arabera, esan daiteke genero-arrakala dagoela ekintzailetzan, eta emakume asko proiektu ekintzailetatik kanpo geratzen direla. Baliteke, emakume horietako askok ekiteko gogoia eta potentziala izatea, baina ez izatea eskura ekintzailetza hori aurrera emateko baliabideak, ez eta motibatzen eta indarra ematen dien ingurunea ere.

Ekintzaile izateko motibazioak aztertuz gero, ondorioztatu daiteke lau ekintzailetik hiruk baieztatzen dutela lan eskasiari aurre egiteko eta bizitzeko ekiten diotela. Emakumeak baino gizonak motibatuago daude beren ekimenen bidez aberastasuna sortzeko, eta emakumeek, aldiz, ekintzaile izateko motibazioari eusten diote, munduan desberdintasun bat markatzeko, lehen aipatutako 2020ko eta 2022ko txostenetan jasotako datuen arabera.

## **Ekonomia Sozial eta Solidarioan ekitea. Testuinguru atseginagoa emakumeentzat?**

Deskribatutako enpleguan eta ekintzailetzan genero-arrakalak murriztearen eta gaintztearen aldeko apustua egiten duen esparru ekonomikoa da ESS, eta berdintasun handiagoko lan-ingurunea eskaintzen du. Ekonomia Sozialeko eta Solidarioko erakundeek berdintasunaren balioa txertatzen dute beren eraldaketarako nahian, eta emaitzak Gizarte Ikuskaritzaren<sup>8</sup> bidez baliarazten dituzte. Horrek eragin handia du ordainsarien berdintasunean (ESSn, % 0,9ko soldata-arrakala dago, eta ekonomia konbentzionalean, % 18,72koa); kontziliazio-neurrietan (ESSko erakundeek % 75ak hobetu egiten ditu familia eta lana uztartzeko legeak ezarritako baimenak); eta erantzukizun-karguen banaketan (ESSn emakumeek erantzukizuneko karguen % 64,52 betetzen dute, eta ohiko ekonomian, berriz, % 35,1).

Dena dela, datuak alde batera utzita, ESSren eredia tresna pribilegiatua da emakumeen ekintzailetza eta nahiak bultzatzeko, hainbat arrazoiengatik. Gure ustez, emakumeen motibazioek eta denontzako imajinario berriak sortzeko beharrek erantzuna aurkitu dute paradigma ekonomikoan, jardutean eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldarrikapenetan; izan ere, hori izan liteke emakumeok gure «amets ekonomikoak» martxan jartzeko ordezkaturik sentituko ginatekeen *berezko eremua*. ESSk eremu politiko bat eskaintzen du beste imajinario batzuk eraikitzeke, ekonomikoak ere bai, non zainketak eta bizitza erdigunean baitaude.

### **Lan-dinamikak aldatu daitezke**

ESS sorkuntza kolektiborako eta parte hartzeko gunea bat da, modu demokratikoan funtzionatzen duen eta bere arauak ezartzen dituen eredu bat. Erakundeetan lan-baldintzak adostu daitezke, baita lan-erregulazioa hobetu ere. Hainbat alderdi erabakitzen dira: zer kobratu nahi dugun edo ahal dugun, ordutegi-malgutasuna, baimenak, kontziliazio-neurriak eta zainketak sartzeara eta baliostea, besteak beste. Lan-dinamika nagusiak aldatzeko aukera ematen du, eta aukera hori dagoeneko erakunde askok aprobeztatzen dute.

5. *Ibidem*.

6. *Ibidem*.

7. Emakumeen Ekintzailetzari buruzko GEM Txosten Berezia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.gem-spain.com/wp-content/uploads/Informes%20Especiales/Emprendimiento-y-la-mujer/Gira%20Mujeres%20Informe%20mujer%20emprededora%202020-2021.pdf>

8. <https://reas.red/auditoria-social-2023/>

### **Lanak balio pertsonalekin eta kolektiboekin bat egitea**

Oinarri hauek ditu: lankidetzak, sareko laguntza, elkarrekiko laguntza, ingurunearekiko konpromisoa, ingurumen-jasangarritasuna, feminismoa... Azken batean, eredu hori bat dator gauzak nolakoak izan behar duten pentsatzen eta sentitzen dugun moduarekin. Geure buruarekin koherenteagoak izateko aukera ematen digu.

ESS ekintzailertza-eredu ez-elitista bat da, enpresa egiteko modu bat, «langileagotzat» har dezakeguna.

### **Ahultasuna onartzen du, eta arlo kolektiboan indartu egiten da**

Eredu indibidualista eta kapitalistaren aurrean, ESS errealistagoa da, gure ahultasuna eta elkarrekiko mendekotasuna onartzen dituelako eta indartzen gaituzten proiektu kolektiboak eraikitzen ditugulako, krisiei aurre egiten laguntzen digutelako eta babesak eta laguntza ematen digutelako.

Lankidetzan aritzeko, partekatze eta berdinen arteko loturak sortzeko dugun jarrera bideratzen du.

### **Ikasteko eta egiteko erronka**

Gure proiektuen arduradun garenez eta proiektu horiek modu kolektiboan aurrera eramaten ditugunez, gure sormena errazten du. Aukera ematen du jarduerak dibertsifikatzeko, gauza berriak sortzeko, inoiz imajinatzen ez genituen gauzak ikasteko (Excel, zenbakiak...).

### **Hartzen zaitu**

ESSnekitea, askotan, lan-merkatuko diskriminazioaren erantzun bat da. Ekonomia Sozialean eta Solidarioan ongi etorriak dira aniztasuna, beteranotasuna, esperientzia, bultzada eta pasioa. Eredu inklusiboagoa da.

Bestalde, badaude proiektu berriak hartzen dituzten ESS sareak, beren ondarea eskainiz: ESSn egoteak finantzaketa etikoa, komunikazio- eta ikuspen-plataforma bateratuak, lankidetzak-dinamikak, prestakuntza eta laguntza lortzeko aukera ematen du. ESSn sartzea ekosistema atsegin batean sartzea da, laguntza- eta lankidetzak-harremanen sare batean sartzea, eta sare horretan elkarri eusten laguntzen dugu.

### **ESSn emakumeen ekintzailertza sustatzeko zenbait gako**

ESS emakumeentzako ekintzailertza-eremu atseginagoa den arren, ekintzailertza kolektiboa ez dago emakume ekintzaileen imajinarioan. Emakumeen proiektu gehienak banakakoak dira, eta, kolektiboak direnean, ez dituzte ezagutzen ESSren formulak.

### **ESS emakume ekintzaileen imajinarioan**

Horregatik, lehen erronka jendeak ESS ezagutzea da. Artikulu honen egileok Juana Millán Emakume Ekintzaileen Eskolako kideak gara, eta ESS zeharka lantzen dugu gure jarduera guztietan, ikusgai eta desiragarria izan dadin.

Hala, ESStik datoz gehienbat, besteak beste, gure kolaboratzaileak, erakusten ditugun ekintzailertza-adibideak, sarrietan lehenesten ditugun proiektuak eta esperientziak kontatzeko egiten diegun ekimenak.

Horrez gainera, ekintzailertzari buruzko formazioetan ekonomia eraldatzaileei buruzko edukiak sartzen ditugu, eta beste gai batzuk lantzen ditugu, hala nola kudeaketa ekonomikoa, komunikazioa edo zereginen antolaketa ESSren ikuspegitik eta balioetatik.

Gauzak horrela, eskolatik pasatzen diren emakumeek ekonomia ulertzeko eta jarduteko modu hori erakusten diegu, beren proiektuetara eraman dezaten; hala nola, balioekin bat egitea, apustu kolektiboa beren proiektuetarako hobe izan daitekeela ohartzea, edo, besterik gabe, beren ekimenen jasangarritasunerako funtsezkoak izan daitezkeen beste emakume batzuekin konektatuta egiteko ideia jasotzea.

### **ESSko emakumeen ondarea**

ESSk ez du presentzia esanguratsurik prestakuntza akademikoan, eta, beraz, batzuetan zaila da prestakuntza, aholkularitza eta laguntza espezializatuak aurkitzea. Ekintzailertzarako formula horiek aukeratzean sor daitezkeen zailtasun edo beldurretako bat da ekintzailertzan laguntzeko zentroek, aholkularitza-enpresek eta hurbileko erreferenteek ez dituztela ezagutzen formula horiek. Beraz, ezin dute lagundu.

ESSren ekosistema ekintzailea antolatzea ezinbestekoa da oztupo hori gainditzeko. Eredu-sare bat da, non zailtasunei aurre egiteko tresnak eta moduak partekatu eta erakunde batetik bestera elkarbanatu ahal izango diren. Ekintzaile berriek ez dute hutsetik hasi

behar, izan ere, beste emakume batzuek egin zuten bidearen zati bat, eta haien jakintzetatik eta tresnetatik abiatuko dira. Jakintza eta tresna horiek bideratzeko, hainbat laguntza-baliabide ditugu, hala nola Mugarik Gabeko Ekonomialarien Juana Millán Eskola edo El Nido. Laguntza horiek lankidetzat-proiektuetako eta ESSko kolaboratzaile-sare zabal batean antolatzen dira. Sare horretan, REAS enpresako lantaldeak eta ekintzailtzari buruzko sailak zeregin garrantzitsua betetzen dute.

Horri guztiari esker, hainbat jakintza-arlotako emakumeen aditu-sare bat eratu daiteke; izan ere, hainbat emakume lana antolatzeko, kudeaketa ekonomikorako, zaintzarako eta beste gai batzuetarako tresnak garatu dituzten, eta trena horiek bat datoz ESSren balioekin. Eta, horrez gainera, emakume ekintzaileak diren aldetik, beren proiektuetan probatu dituzte tresnak, eta, beraz, oso baliagarriak diren jakintzak eskaintzen dituzte ekintzaile berrientzat eta proiektu berrientzat.

Kolaboratzaile-sare horren oinarria, gainera, lankidetzan jardundako aurretiazko sareetan dago: REAS Sarea, gizarte-merkatuak, dagoeneko eraikita dauden tresna komunak, hala nola finantza etikoenak, gizarte-ikuskaritzarenak, etab. Eta sare horiek berak jartzen dira ekimen berrien esku, eta hartu egiten dituzte.

### **ESSko emakumeentzako gela partekatua**

ESS, orain arte adierazi dugun bezala, emakumeentzako eremu atsegina den arren, logika patriarkalen mende ere badaude. Emakume eta gizonen jarduteko moduak, batzuetan, ikusezin bihurtzen gaitu, eta, beste batzuetan, harreman desatseginak sortzen dira, baita zoritxar batzuk ere.

Horregatik, uste dugu erabilgarria dela emakumeentzako gune propioak izatea, ahultasunak partekatzeko, elkarrengandik ikasteko, balioei beste esanahi bat emateko eta irtenbide eta tresna berriak esperimentatzeko. Gure arazo komunak eta gure ikuspegiak proiektatzea komeni da, gurekin are atseginagoak diren erakundeak diseinatzeke. Elkarri laguntzea, eredu horiek ESS osora eramateko. Juana Millán Eskola emakumeen arteko eremu partekatu horietako bat da, baita ESS sareetako batzorde feministak ere.

### **ESSn ekintzailtzarako neurritan egindako programak, erakundeen babes irmoarekin**

Azken urteotan, ESSk aintzatespen instituzionala du, eta hura sustatzeko inbertsio publikoaren xede da. Horri esker, laguntza espezifiko handiagoa ematen zaie ESSren formulen aldeko apustua egiten duten emakumeen proiektu kolektiboak. Hori da, besteak beste, EFESO<sup>9</sup> deialdiaren kasua. Finantziario horri esker, Juana Millán Eskolatik (Galizia, Kanariak, Andaluzia, Asturias eta Madril) emakumeek gidatutako ESS proiektu berriak bultzatu ahal izango dira, eta 2029ra arte lagundutako proiektuei jarraipena emango zaie. Horrez gainera, deialdi honek ekintzailtza aktibatuko du Ekonomia Sozialean, Estatuko geografia osoan finantzatutako eta banatutako beste proiektu batzuk bultzatuz.

Lankidetzat publiko-komunitarioaren esparruan, Juana Millán Emakume Ekintzaileen Eskolak bere irismenari eutsi dio eta zabaldu egin du, ekintzailtza feminista ahalbidetuz. Ekintzailtza feminista horrek funtsezko aliantza bat aurkitu du Emakumeen Institutuaren konpromisoan, eta, orain, agerian uzten du ESSn ekintzailtzaren alde egiten duen apustua, CEPESekin eta EFESO deialdiarekin lankidetzan.

### **Pentsatzen jarraitzeko**

2024ko martxoaren 15ean, 1.287 emakume zeuden erregistratuta Juana Millán Ekintzaileen Eskolan, emakume horien % 17 proiektu kolektiboak lantzeko joaten dira eskolara, eta % 10 taldean garatu nahi dituzten negozio-ideiekin eta bazkide bila dabilzanekin. % 52 proiektu indibidualak dira, eta gainerako % 21ak oraindik ez du hautatu aukera bat edo bestea. Ekintzailtzen % 85 ekonomiaren hirugarren sektorean kokatzen da, eta jarduera-eremu nagusiak hezkuntza, prestakuntza, arte-jarduerak, osasuna eta ongizatea eta komunikazio- eta diseinu-zerbitzuak dira. Datu horiek sistema ekonomiko kapitalistaren erreproduktzio hutsak dira ala harreman ekonomikoak ulertzeko beste modu batzuk ezkututzen dituzte? Posible al da zaintza, zaugarritasuna eta interdependentzia erdigunean jarriko dituen ekonomia bat?

Baliteke ESSk emakumeentzako eremu gisa duen balio bereizgarriak bi indar izatea aldi berean: alde batetik,

9. [https://www.cepes.es/nota-prensa/807\\_cepes-publica-convocatoria-ayudas-emprendimiento-economia-social-marco-fondo-social-europeo-plus-imp](https://www.cepes.es/nota-prensa/807_cepes-publica-convocatoria-ayudas-emprendimiento-economia-social-marco-fondo-social-europeo-plus-imp)

beste lan-ingurune eta -sektore batzuen etsaitasuna, bereziki gu kanporatzen gaituztena; eta, bestetik, ESSk berak duen erakargarritasuna, zainketak integratzeko edo praktikan garatzeko askok ezagutzen ditugun balioak.

STEM<sup>10</sup> lanbideetan eta enpresa teknologikoetan lan egiten duten emakume batzuen kasua esanguratsua iruditzen zaigu. Karrera profesional «arrakastatsuak» izan arren, baztertuta eta gaizki tratatuta sentitzen dira. Eta uko egiten diete beren karrerei, ESSren ekosisteman eremu atseginago bat bilatuz. Hala eta guztiz ere, beste gune horretan, proiektuek dimentsio soziala eta ingurumenekoa hartzen dute: hezkuntzara bideratzen dira, beren ezagutzak jasangarritasunaren zerbitzura jartzen dituzte..., horregatik diru-sarrera txikiagoak jasotzen badituzte ere.

Zergatik gaude emakumeak hezkuntzaren, osasunaren eta ongizatearen sektoreetan? Baztertuak izan garelako edo zainketa-lanekin jarraitu behar dugulako? Ala gure balioak dira, eta beste jarduera batzuei gizarte-eta ongizate-dimentsio hori ematea ere gustatzen zaigu? Nolakoa izango litzateke eredu ekonomiko nagusia, batez ere emakumeok garatu izan bagenu? Agian, dimentsio soziala eta solidarioa ere izango luke, bizitzari lotuagoa.

## Esker onak

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ariadna de la Rubia, Daria Wencel, Ainhoa Lagartos, Mariola Mourelo, Helena Sanmamede, Ana Marcos, Elena Fernández, Mónica Jiménez, Nayra Lorenzo eta Cristina Lópezek artikulu honi egindako ekarpenengatik. Horiek guztiak Juana Millán eskolako taldekideak dira.

## Bibliografia

- Salsón, S., de la Rubia, A., Wencel D., Lagartos, A. eta Lorenzo, A (2023ko ekainaren 21a). Mujeres transformando la economía: cómo impulsamos un emprendimiento feminista. Hemen argitaratua: <https://www.economiasolidaria.org/noticias/mujeres-transformando-la-economia-como-impulsamos-un-emprendimiento-feminista/>
- Salsón, S., de la Rubia, A., Wencel D., Lagartos, A. eta Lorenzo, A (2023ko uztailaren 19a). Sobreponerse en solitario a las adversidades no mola. Redefinir el emprendimiento sí. Hemen argitaratua: <https://experpento.com/docx-redefinir-el-emprendimiento/>
- Rius, A., Nogales, R., Lorenzo, A. eta Salsón, S. (2024). «¿Presumir sin sufrir? Redefinir el éxito para que no duela», in *Economía Social y Solidaria y Género. Una mirada desde Iberoamérica*. Bouchard, M., Marcero, C. eta Alvarez, J. (koord.). 113-137. or. Valentzia. CIRIEC - OIBESCOOP. Hemen argitaratua: <https://www.oibescoop.org/wp-content/uploads/ES-y-Solidaria-y-Genero.pdf>

10. STEM ingelesezko siglak dira: *Science, Technology, Engineering and Mathematics*. Euskaraz, Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika esan nahi du. Hau da, jakintza-arlo horiek parte hartzen duten azterketa- eta lan-arloei dagokie termino hori.

Landaren eta Nazioarteko Nekazaritzaren Ikerketa Zentroa (CERAI)

Gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute egungo eredu ekonomikoa aldatu beharra dagoela; izan ere, sistema kapitalista berrituak 300 urteko ibilbidea egin du, gero eta basatiago da, eta pertsonen eta planetaren bizitzari erasotzen dio. Hori bera adierazi zuen Biodibertsitatearen eta Ekosistema Zerbitzuen Gobernu arteko Plataformak (IPBES<sup>1</sup>, ingelesezko siglagatik) 2019ko txosten batean. COVID-19ren pandemiak agerian utzi zuen, halaber, arazo kopuru asaldagarria ekarriko ez duen sistema bat aukeratu behar dugula; kutsadura, aberastasunen banaketa desorekatua, landa-eremua ahaztea eta bestelako auziak sortuko ez dituen sistema bat. Neoliberalismoak inposatutako errealtate sozioekonomiko berriak gero eta gehiago handitzen ditu langileen arteko desberdintasun legal eta materialek eragindako aldeak.

Hori guztia are larriagoa da landa-eremuan, despopulazioa dela eta. Izan ere, han ez dago oinarritzko zerbitzurik eta lan-aukera nahikorik.

Egoera horretan, ekonomia sozial eta solidariotik (ESS) abiatutako ekintzailatza tresna aparta izan daiteke landa-eremuaren garapen jasagarria eta biziberritza sustatzeko.

**J** oan den mendearen bukaeratik, hainbat gizarte-ekimen sortu dira bestelako jarduera ekonomikoak martxan jartzeko. Aldi berean, interes teoriko eta politikoa piztu da ekoizpen modu solidarioekiko eta, bereziki, lan-kooperatibekiko. Prozesu horretan, eginkizun garrantzitsua izan dute Munduko Gizarte Foroek, 2001ean Brasilgo Porto Alegre hirian hasitakoek. Izan ere, XIX. mendean gertatu zen bezala, krisi sistemikoak eta finantza-kapitalismoak langileklasearen bizi-baldintzak okerragotu dituzte. Egoera horri aurre egiteko, herri-sektoreek tresnak sortu —edo birsortu— dituzte kapitalistak ez diren beste antolaketa sozioekonomiko batzuk eratzeko.

Antolatzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko modu berri horiei Ekonomia Sozial eta Solidario (ESS) esan zaie oro

har, eta **lan kolektiboa, autogestioa, justizia soziala, pertsonen arteko berdintasuna, ingurumenaren zaintza eta etorkizuneko belaunaldiekiko erantzukizuna** lehenesten dituzte. Horrekin batera, interes teoriko berriak zalantzan jarri du iragarpen ezkor tradizionala. Izan ere, ahots askok teorizatu dute asoziazionismoaren printzipioetan oinarritutako antolaketa ekonomiko bideragarritasunari buruz. Printzipio horiek burujabetza, demokrazia parte-hartzailea, berdintasuna eta ekitatea dira, eta nazioarteko mugimendu kooperatibista hauspotu izan dute historikoki.

Ekonomia sozial eta solidarioaren definizio ugari daude, baina, horien artean, aipatu beharra dago **José Luis Coraggio** ekonomialariak ematen duena: «Ekonomia sozial eta solidarioa ekoizpen-, banaketa-, zirkulazio- eta kontsumo-prozesuen sistema bat da, komunitateek eta gizarteek une historiko jakinetan antolatzen dutena. Sistema horren bidez oinarri materialak lortzen dituzte kide guztien beharrak eta zilegizko desirak asetzeko —egungo kideenak eta etorkizuneko belaunaldienak—, bizitzaren erreprodukzioa eta garapena arriskuan jarri gabe. Horretarako, zenbait printzipio, erakunde eta jardunbide baliatzen dituzte, eta oreka psikikoari, pertsonen artekoari, komunitateen artekoari eta naturarekin dugunari eusten diete»<sup>2</sup>.

Espainiako Estatuan, Ekonomia Solidarioaren Sareak ia mila erakunde eta enpresa biltzen ditu, hainbat arlotakoak: kontsumo arduratsua, finantza etikoak edo bidezko merkataritza. Sarearen oinarria Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna<sup>3</sup> da. Adierazpen horrek sareko erakunde funtzionamendua etaosatzen duten proiektu ekonomiko, sozial eta politikarena bideratzen ditu.

1. <https://www.ipbes.net/>

2. CORAGGIO, José Luis (2011): *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*, FLACSO/Abya Yala, Quito.

3. <https://reas.red/carta-de-ekonomia-solidaria/>

## ESSaren eta beste eredu ekonomiko batzuen antzekotasunak

Ekonomia sozial eta solidarioak iritzi kritikoa du kapitalismoari eta merkatu-printzipioaren garrantziari buruz. Gai horiei dagokienez, bat dator **ekonomia komunitarioarekin** (EK). Biek onartzen dute hainbat ekonomia-forma eratu daitezkeela elkarrekikotasunean eta osagarritasunean oinarrituta. «Hala ere, EKa pauso bat harago doa, eta, naturaren balioa aitortzeaz gain, uste du gizakia haren parte dela erabat, eta, beraz, askotariko izaki bizidunak daudela onartzen du, baita beren balio espiritual osoa ere. «Lana» kontzeptua ere desberdin planteatzen du. Ez du «lan duina eta aisialdia izateko eskubide» gisa definitzen, mendebaldean bezala. Horren orde, komunitatearen zaintzarekin lotutako jarduera oro onartzen du, haurtzaroan egiten diren lanak barne, haurrak komunitatean integratzeko eta ikasteko balio badute»<sup>4</sup>. Gainera, EKa lurralde jakin batzuetako komunitate txikiei lotuta egon ohi da; ESSak, berriz, askotariko eragile eta inguruneak barne hartzen ditu.

ESSak ekonomia ekologikoarekin (EE) ere bat egiten du hainbat puntutan. Bietako ezeinek ez du hazkunde ekonomikoa helburu nagusi, eta puntu horretan, hain justu, merkatuko ekonomia neoliberala ez bezalakoak dira. «Baina, egiatan, egoera eta latitude batzuetan (adibidez, industria-kooperatibetan edo iparraldeko ekonomia solidarioko sareetan), ESSak iraunkortasun-helburu horiek malgutzeko joera du. Beste toki batzuetan, ordea, ESSak lotura estua du nekazaritza ekologikoko eta elikadura-burujabetzako mugimenduekin, zeinek oso presente baitituzte aipatutako jasangarritasun-kontuak»<sup>5</sup>.

Era berean, ESSak ekonomia feministan (EF) lantzen diren hainbat elementu txertatu behar ditu, esaterako: emakumeak harreman ekonomikoetan nola integratzen diren aztertzea, baita zer bazterketa eta menderakuntza jasaten dituzten ere; ekonomiaren aztergaia eta kategoria nagusiak birdefinitzea —adibidez, *lan* eta *enplegu* kontzeptuak birdefinitzea, zaintza-lan guztiak barne hartu ditzaten—; eta bizitzaren jasangarritasuna jotzea ekonomiaren helburu nagusitzat, eta ez metaketa materiala.

4. Villalba-Eguiluz, U., Pérez-de-Mendiguren, J. C. (2019). La economía social y solidaria como vía para el buen vivir. *Iberoamerican Journal of Development Studies*, vol. 8(1):106-136. DOI: 10.26754/ojs\_ried/ijds.338

5. *Ibidem*.

## Ekonomia sozial eta solidarioa Espainiako Estatuan

Diputatuen Kongresuko talde politiko guztiek aho batez onartu zuten Ekonomia Sozialari buruzko 5/2011 Legea, martxoaren 29koa. Lege horren barruan, aipagarria da 4. artikulua; honela dio: «ekonomia sozialeko erakundeek printzipio orientatzaileei jarraika jarduten dute»<sup>6</sup>.

Horrez gain, Ekonomia Sozialari buruzko Legearen 5.1 artikulua «ekonomia sozialaren parte diren erakundeak» definitzen ditu: ekonomia sozialaren parte dira kooperatibak, mutualitateak, jarduera ekonomikoren bat duten fundazioak eta elkarteak, lan-sozietateak, gizarteratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak eta arau espezifiko bidez sortutako erakunde bereziak, aurreko artikuluan ezarritako printzipioetan oinarritzen badira.

Bestalde, **Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak (NKA) 2005ean onartutako printzipioek** zertxobait gehiago «zehazten» dute zein izan behar den ESSaren «espiritua», eta gaia bideratzen laguntzen dute. Hala, enpresa «kooperatiboek» honako printzipio hauek bete beharko dituzte: atxikimendu irekia eta borondatezkoa; bazkideen kudeaketa demokratikoa; bazkideen parte-hartze ekonomikoa; autonomia eta independentzia; hezkuntza, prestakuntza eta informazioa; kooperatiben arteko lankidetzatza eta komunitatearekiko kezka.

### Ekintzailtza landa-eremuan

ESSaren printzipioak aztertuz gero —ekitatea, lan duina, iraunkortasun ekologikoa, lankidetzatza, aberastasunaren banaketa zuzena eta ingurunearekiko konpromisoa—, esan daiteke egokiak direla ekintzailtza onuragarria izan dadin landa-eremuko gizartearentzat. Alabaina, ekintzailtza mota horri buruz ari bagara, kooperatibak izan behar ditugu gogoan batez ere, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak (ENS) baino gehiago. Dena den, sozietateak ez dira baztertzekoak, enplegua sortzeko ahalmen handia baitute.

Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren arabera, kooperatibak bazkideek osatutako sozietateak dira. Bazkideak borondatez atxikitzen dira, eta modu

6. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2011/BOE-A-2011-5708-consolidado.pdf>

berean eteten dute bazkidetza. Kooperatibek enpresa-jarduerak abiatzen dituzte bazkideen beharrak asetzeko eta helburu ekonomikoak eta sozialak betetzeko. Egitura eta funtzionamendu demokratikoak dituzte. Kooperatibak hainbat motatakoak izan daitezke: elkarlanekoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileenak, etxebizitzetakoak, garraiolarienak, aseguruena, irakaskuntzakoak, osasunekoak, kreditukoak, lurraren ustiapenekoak edo agroekologikoak.

Eraldaketa-ko nekazaritza-sozietateak (ENS), aldiz, sozietate zibilak dira, eta helburu ekonomiko-sozialak izaten dituzte, adibidez: nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako produktuak ekoiztea, eraldatzea eta merkaturatzea; landa-eremuan hobekuntzak egitea; nekazaritza sustatzea eta garatzea, eta kontzeptu horiekin lotutako zerbitzuak ematea. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arabera, sozietate horiek 1941ean sortu ziren, eta antzinako Kolonizaziorako Talde Sindikaletan eta «Familia Baratzeetan» dute jatorria<sup>7</sup>.

Kooperatibei dagokienez, funtsezkoa da nekazaritzako elikagaien kooperatiba askoren ikuspegi mugatua gainditzea. Izan ere, arrakastatsuak izan arren, ez doaz nekazari txikien produktuak merkaturatzetik harago. Nekazaritzako elikagaien sozietate kooperatiboek hartu-emanak dituzte nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako ustategien jabeekin. Beren helburu nagusia bazkideen jabetzak hobeto ustiatzeko jarduerak eta eragiketak egitea da, eta hala jasotzen du Kooperatiben 27/1999 Legeak, uztailaren 16koak, 93. artikuluan.

Cooperativas Agro-alimentarias de España erakundeak Espainiako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Behatoki Sozioekonomikoa (OSCAE) txostena egin zuen 2021ean. Dokumentuko datuek erakusten dutenez,

3.669 kooperatiba daude Espainian, eta 38.400 milioi eurotik gora fakturatzen dituzte. Milioi bat familia baino gehiago daude bazkidetuta kooperatibetan, eta 123.700 lanpostu sortzen dituzte.

Gaur egun, funtsezkoa da ezen, nekazaritza-kooperatibismoan enplegua sortzen denean, enplegu hori lotuta egotea nekazaritzako elikagaien industria eraldatzeko prozesuekin, eta prozesu horiek landa-eremuan garatzea. Hala, produktuen balio erantsiaren

zatirik handiena landa-eremuan sortuko da. Horrez gain, jarduera nagusiei lotutako zerbitzuen jarduera osagarriak abian jarri beharko lirateke, ESSarekin bat datozen egitura juridikoen bidez. Nolanahi ere, finantzaketa-sistema egokiak ezarri beharko dira ekimen ekonomiko horien arrakasta bermatzeko.

#### **Pertsonen eta lurraren bizitza lehenesten duten beste formula ekonomiko batzuk**

Artikulu honen hasieran aipatu den bezala, politika ekonomiko neoliberalek krisi sistemikoa eragin zuten, eta krisi horrek nazioarteko erakunde eta agentzien arreta piztu du gero eta gehiago. Horrek bultzada eman die formula ekonomiko ez-kapitalistei. Besteak beste, hauek dira aipagarriak:

#### **■ Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 193. gomendioa, kooperatibak sustatzeari buruzkoa, Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2002ko ekainaren 3an onartua, Genevan.**

Dokumentu horretan hau adierazten da, besteak beste: «gizartea orekatuta egon dadin, sektore kooperatibo sendo eta mutualista bat behar du, baita gobernu kanpoko beste erakunde sozial batzuk ere».

#### **■ Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari bidalitako Komunikazioa, 2004ko otsailaren 23koa, kooperatibak sustatzeari**

7. <https://www.mapa.gob.es/es/alimentacion/temas/integracion-asociativa/sociedades-agrarias/>

**buruzkoa** (COM (2004) 0018): «ikusi dugu kooperatibek gero eta funtzio funtsezkoagoa eta positiboagoa dutela, eta tresna garrantzitsua direla helburu komunitario ugari lortzeko hainbat esparrutan, besteak beste, okupazio-politikan, gizarte-integrazioan, eskualdeetako eta landa-eremuko garapenean, nekazaritzan eta abarretan». Horrez gain, honako hau ere jasotzen du: «lehen kooperatibak industria-iraultzaren garaian sortu ziren arren, ez dira XIX. mendeko erlikiatzat jo behar. Batzordeak onartzen du kooperatibak enpresa dinamikoak eta modernoak direla, eta potentzial handia dutela».

■ **Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2009ko otsailaren 19koa, Ekonomia sozialari buruzkoa:** «ekonomia sozialak aldarrikatzen duen enpresa-ereduaren bereizgarria ez da tamaina, ezta jarduerasektorea ere. Eredu horren gakoak hauek dira: balio komunak errespetatzea —hala nola demokraziaren nagusitasuna, gizarte-eragileen eta pertsonen parte-hartzea, eta gizartearen onura norbanakoaren onuraren gainetik jartzea—; elkartasuna eta erantzukizuna defendatzea eta aplikatzea; kideen eta erabiltzaileen interesak eta interes orokorrak bateratzea, eta kontrol demokratikoa».

■ **Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2013ko uztailaren 2koa, kooperatibek krisia gainditzeko egiten duten ekarpenari buruzkoa:** Ebazpen horrek azpimarratu zuen bezala, krisi-garaian, kooperatiba askok erresistentzia handiagoa izan dute enpresa konbentzional askok baino. Dokumentuaren arabera, eskasia-garaietan, kooperatibek gaitasuna dute ekintzailatza eskala mikroekonomikoan sustatzeko, aukera ematen baitiete ekintzaile txikiei —askotan, herritarren taldeei— enpresako erantzukizunak beren gain hartzeko. Horrenbestez, ebazpena gizarte- eta ongizate-sektoreetan kooperatibak garatzearen aldekoa da, talde zaurgarriek gizartearen gehiago parte hartzea bermatzen baitute.

Aipatutako eta aipatu gabeko adierazpenez gain, azpimarratzekoa da Nazio Batuen Batzar Nagusiak «Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzea garapen jasangarrirako» ebazpena onartu zuela 2023ko martxoaren 27an. Dokumentu horretan, estatu kideei gonbita egiten die nazioko, tokiko eta eskualdeko estrategiak, politikak eta programak susta eta aplikatzen, ekonomia soziala eta solidarioa bultzatzeko, garapen ekonomiko eta sozial jasangarrirako ereduak izan dadin.

Landa-eremuetako erronka espezifikoak eta ESSa irtenbide gisa

Landa-eremuak erronka espezifiko batzuei egin behar die aurre:

**Klima-aldaketa.** Espainian, klima-krisiak eragin handia izango du; izan ere, lehorte-arrisku handia dago, eta, lurralde batzuetan, baliabide hidrikoak neurritz kanpo ustiatzen eta kutsatzen direla erregistratu da.

**Erronka energetikoa.** Horren ondorioz, nekazariak beren praktikak hobetu, eta eraginkortasun energetikoari lehentasuna eman beharko diote. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arabera, kooperatibek hornidura-iturri berriak bilatu beharko dituzte.

**Erronka ekologikoa.** Funtsezkoa da, baliabide naturalak —hala nola, ura— erabiltzen baititugu.

**Erronka digitala.** Horretarako, ezinbestekoa da administrazioek laguntza ematea.

**Nekazaritza-ereduaren erronka.** Belaunaldien arteko erreleborik ez izatea da arazo nagusietako bat.

Alabaina, landa-eremuan ekintzaile izateak baditu zenbait onura garrantzitsu ere: aukeratutako lurraldea dinamizatzen du, aldaketarako eta aberastasunerako tresna garrantzitsua da, eta, gainera, enplegua sortzen laguntzen du eta komunitatea indartzen du.

Era berean, horrelako ekimenetan ezinbestekoa da hainbat eragileren arteko lankidetzak. Horrek guztiak balioa eransten dio landa-eremuari. Gainera, landa-ekintzailatzako ekimenek inklusioa, justizia soziala eta iraunkortasuna sustatu ohi dituzte.

**CERAIk proiektuak bultzatzen ditu landa-eremuko ekintzailatza indartzeko. Praktika onak: Horta-Cuina eta Mincha d'aquí**

Aipatutako ebazpenak laburtze aldera, esan dezakegu ESSaren ekimenak tresna egokiak direla krisi-boladei aurre egiteko eta gizarte bidezkoagoak sortzeko. Landa-eremuan, esperientziak erakutsi digu helburu horiek bete egiten direla. Ondorioz, testuinguru instituzional horrekin koherentea izan nahian, Landaren eta Nazioarteko Nekazaritzaren Ikerketa

Zentroak (CERAI) landa-eremuko ekintzailletza indartzeko proiektuak sustatzen ditu, betiere ekonomia solidario eta sozialaren baitan. Hona hemen proiektu horietako bi: Horta-Cuina, Valentzian garatua, eta Mincha d'aquí, Aragoian garatua.

**Horta-Cuina**<sup>8</sup> Consell de l'Horta de València partzuergoak sustatutako programa bat da, eta elikadura osasungarria, jasangarria eta kalitatezkoa ahalbidetzea eta sendotzea du helburu. Horretarako, l'Horta de Valènciaiko eta inguruko eskualdeetako nekazariek aukeratutako ereduari oinarritu dira. Programa horren arabera, eskoletako jantokiak funtsezkoak dira haurrei balioak transmititzeko, elikadurarako eskubidea bermatzeko, ingurumena errespetatzeko eta lurraldeen balioa aitortzeko.

Horta-Cuina helburu nagusia tokiko nekazaritzan oinarritutako elikadura eskaintzea da. Horretarako, produktu ekologikoak, freskoak eta sasoikoak txertatzen dituzte ikastetxeetako eta bestelako jangeletako menuetan.

Programa horren bidez, formakuntza eta laguntza eskaintzen zaizkie bai ikastetxeei, bai hezkuntza-komunitate osoari. Helburuak hauek dira: hurbileko elikadura jasangarriaren garrantziaz ohartaraztea eta ikastetxeek izan ditzaketen erronkak lantzea, sasoiko eta lurraldeko menuen eta elikagai fresko eta ekologikoen aldeko apustua egitea erabakitzen badute.

Gaur egun, 20 ekoizlek parte hartzen dute Horta-Cuina programan. Gainera, programari lotutako kooperatiba bat sortu da, ikastetxeak hornitzeko.

Ekimenak Valentziako 40 ikastetxerekin eta 10.000 bat ikaslerekin egiten du lan.

Datorren ikasturtean 65 ikastetxetara iristea aurreikusten du Horta-Cuina antolakuntzak. Gainera, Valentziako beste eskualde batzuetan ere hasi dira lanean.

**Mincha d'aquí**<sup>9</sup> («Hemengoa jan» aragoieraz) Goi Aragoiko nekazaritzako elikagai jasangarrien ekoizleen sarea da, eta sarean dauden tokiko ekimen jasangarri guztiak biltzen ditu. Hala, kide direnak indartzeaz gain, ekimen berriak sartzeari errazten dute. Sare horren helburua lurraldearen jasangarritasun integralari laguntzea da. Horretarako, eremu zaurgarrietako ekosistemak kontserbatzeko ekintzak abiatu, eta bertako biztanleria eta ekonomia sustatzen dituzte.

Gaur egun, ekimenak 15 ekoizle biltzen ditu, eta Zaragozako eta Huescako 90 etxetara iristen da. 2017an, Aragoiko zenbait administrazio eta erakundek, hala nola CERAIk, abian jarri zuten Mincha d'aquí proiektua, **Daniel y Nina Carasso Fundazioak** lagunduta. Erakunde horrek finantzazioa ematen die landa-eremu jasangarriaren aldeko aliantzak sortzen dituzten ekimenei, pertsonak eta ingurumena zainduko dituen eredu susta dezaten.

Hona hemen landa-eremuan garatutako beste bi ekimen garrantzitsu (hauek ez ditu CERAIk sustatu): A Carqueixa<sup>10</sup>, Galizian, eta Spiga Negra<sup>11</sup>, Malagan.

Lehenbizikoa 2019an sortutako kooperatiba galiziar bat da, 200 kooperatibistek osatutakoa. Beren lanarekin, kalitatearekiko konpromisoa defendatzen dute, eta, horregatik, kooperatiban ekoizten den haragi guztia Galiziako Txahal Aparta da. Kooperatibistetako askok transhumantzia egiten dute; beraz, behiek larreak eta mendiak garbi mantentzen laguntzen dute eta, hala,

8. <https://www.hortacuina.org/>

9. <https://info.minchadaqui.com/>

10. <https://www.osabordosancares.com/>

11. <https://spiganegra.com/>

sute-arriskua murrizten da. Gainera, jarduera horri esker, biztanleria finkatu egiten da, eta hazkunde ekonomiko jasagarria izaten da inguruan.

Bigarrena, Spiga Negra, 2014an sortutako ekimena da, eta tokiko nekazaritza ekologikoa sustatzen du. Bere errota du, gertutasunarekin duen konpromisoaren erakusgarri, eta prozesua artisau-pasta ekoizteko lantegian amaitzen da.

Helburu nagusia zera da: kalitate handiko produktuak egitea, natura eta pertsonak errespetatzen dituztenak. Horretarako, familiekin eta beren aleak hazten dituzten proiektuekin harremanetan daude etengabe, eta loturak ezartzen dituzte hurbileko eta konfiantzazko merkataritzaren bidez.

**Horra hor pertsonen eta planetari lehentasuna ematen dien ekonomiak zer lortu dezakeen, bereziki ezaugarri eta erronka oso espezifikoak dituzten inguruetan. Europako eta Espainiako landa-eremuetan, ekonomia sozial eta solidarioak oinarritzeko zerbitzuak eskuratzen lagundu dezake, baita enplegua sortzen eta gizarteratzea sustatzen ere. Horiexek dira «landa-eremu biziak» lortzeko hiru osagaiak. ■**

## Bibliografia

Coraggio, José Luis (2011): Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital, FLACSO/ Abya Yala, Quito.

Landaren eta Nazioarteko Nekazaritzaren Ikerketa Zentroa (2022). *El camino hacia el empleo agrario*.

European Network for Rural Development (2020). *Dinamizar las zonas rurales*.

IPBES (2019): *Summary for policymakers of the global assessment report on biodiversity and ecosystem services of the Intergovernmental Science-Policy Platform on Biodiversity and Ecosystem Services*. S. Díaz, J. Settele, E. S. Brondízio, H. T. Ngo, M. Guèze, J. Agard, A. Arneth, P. Balvanera, K. A. Brauman, S. H. M. Butchart, K. M. A. Chan, L. A. Garibaldi, K. Ichii, J. Liu, S. M. Subramanian, G. F. Midgley, P. Miloslavich, Z. Molnár, D. Obura, A. Pfaff, S. Polasky, A. Purvis, J. Razzaque, B. Reyers, R. Roy Chowdhury, Y. J. Shin, I. J. Visseren-Hamakers, K. J. Willis eta C. N. Zayas (arg.). IPBESeko egoitza, Bonn, Alemania. 56 orrialde. <https://doi.org/10.5281/zenodo.3553579>

Villalba-Eguiluz, U., Pérez-de-Mendiguren, J. C. (2019). La economía social y solidaria como vía para el buen vivir. *Iberoamerican Journal of Development Studies*, vol. 8(1):106-136. DOI: [10.26754/ojs\\_ried/ijds.338](https://doi.org/10.26754/ojs_ried/ijds.338)

Elena Novillo Martín eta Romina Vinocur

Mugarik gabeko Ekonomialariak

Hiru urte igaro dira sistema kapitalista kolokan jarri zuen pandemia hasi zenetik, eta krisi ekosoziala eta zainketen arloko egitura falta gero eta nabarmenagoak dira. Gaur egun, gatazka geopolitikoa da nagusi gure testuinguruan, eta sistema ekonomikoaren segurtasunik eza areagotzen du horrek. Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, munduko hazkunde ekonomikoa moteldu egin da. Azkeneko aurreikuspenen arabera, % 2,9ra jaitsiko da 2024an, batez besteko historikoaren oso azpitik (Gourinchas, 2023). Azkenik, alderdirik garrantzitsuena izanda ere, ez zaio erantzun eraginkorrik ematen ari krisi klimatikoari. Zientzialde adituen arabera, planetako bederatzi mugetatik sei gaingitu dira dagoeneko.

Sakoneko egoera horrekin, beharrezkoa da ekonomia azaltzeko eta egiteko beste modu batzuk ezagutaraztea. Ildo horretatik, Kate Raworth ekonomialariak Erroskilla Ekonomia (*Doughnut Economics*) proposatzen du, sistema hegemonikoa zalantzan jartzen duen esparru teorikoa. Eredu horrek azpimarratzen du, gizarte gisa, gizarte-oinarriaren beharrak bermatzeko moduak bilatu behar ditugula (genero-berdintasuna, gizarte-ekitate, ahots politikoa, etxebizitza, sareak, ura, energia, elikagaiak, etab.), betiere, planetaren sabai ekologikoa gaingitu gabe (klima-aldaketa, kutsadura kimikoa, bioaniztasunaren galera, etab.). Azken batean, gizartearentzat segurua eta bidezkoa den espazioaren barruan bizitzea da kontua (Raworth, 2018). Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (aurrerantzean ESS) proposamen teorikoa eta praktikoa Erroskilla Ekonomiak planteatzen duen espazio seguru horretan kokatu nahi da.

ESS kontzeptu integratzailatzat har daiteke, eta ekonomia eraldatzaileen hainbat joeren ikuspegiak batzen ditu (Martín, 2016). Gaitasunen eta giza garapen jasangarriaren ikuspegiak, ekonomia feministak, ekonomia ekologikoak edo «ongi bizitzearen» ikuspegiak pertsonak eta haien bizi-baldintzak analisiaren erdigunean jartzea eta lanak gizartearentzat beharrezkoa den ekoizpenarekin lotzea dute helburu. Ildo beretik, Ekonomia Sozial eta Solidarioa oinarritzko

beharrak asetzera bideratuta egongo litzateke, eta «beste ekonomia bidezkoago» baten aldeko apustua egingo luke (Padilla, 2017).

Eredu hegemonikoa zalantzan jartzen badugu eta beste ekonomia bat garatu nahi badugu, beharrezkoa da ohiko enpresa-eredua eraldatzea. ESSren esparruan proiektu edo enpresa berriak sortzea izan daiteke eraldaketa-estrategia bat, hau da, hasieratik ESSren balioak barnean hartuko dituzten ekintzailatzak bultzatzea. Ekintzailatza terminoa azpimarratu behar da hemen, azken urteotan krisi ekonomikoaren ondorioz diskurtso publikoan ezarri den kontzeptua; hala ere, horrek ez du esan nahi egungo egoeraren aurretik existitzen ez zenik, ez eta beste izenik ez zuenik ere (autoenplegua, norberaren konturako lana, autonomia eta abar).

Enpresa-proiektu berri baten sorrerari erreferentzia egiteko ekintzailatza hitza erabiltzeak hainbat konnotazio ditu gaur egun: badirudi indar handiagoa duela, *glamour*, segurtasun eta berritasun handiagoa eskaintzen dituela (Vinocur, 2018). Aitzitik, ESSk kontzeptu horretara hurbildu nahi du, adjektiboz jantzi, izaera soziala eman, eta gizartearentzako balio positiboa sortzean jarri nahi du arreta, aldaketaren aldeko pizgarri bat sortuz eta behar sozialak asetzearekin oso lotuta dauden proiektuak sortuz (Díaz-Foncella, 2014).

Gaur-gaurkoz, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa dugu,<sup>1</sup> eta, horri esker, enpresa-eredu hori ikusarazi eta sustatu daiteke; izan ere, gero eta garrantzi handiagoa du garapen ekonomiko eta sozialerako plan eta estrategia publikoetan, eta langabezia- eta bazterketa-tasa handien irtenbidearen barnean planteatzen da. Ekintzailatza kolektiboa kalitatezko enplegu malgu eta egonkorra sortzeko formula gisa ulertzen da, helburu estrategikoen barruan, adibidez: despopulazioaren aurkako borroka eta baliabide

1. Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa: <https://www.mites.gob.es/>

naturalen arrazoizko aprobetxamendua, ingurunea eta ingurumena errespetatuz.

Datu positibo gisa, 2022ko *Global Entrepreneurship Monitor (GEM)* txostenaren arabera, ekintzaileen % 57k lehentasuna eman zioten ingurumenaren edota gizartearen gaineko eraginari beren ekimenetan, eta ekimen berrien % 70ek alderdi horiek kontuan hartzen ditu beren negozio-estrategian. Hala ere, lan handia egin behar da oraindik, % 50ek soilik garatzen baititu ingurumen jasangarria bultzatzeko eta gizarte-inpaktua babesteko praktika errealak (Espainiako Ekintzaitzaren Behatokia, 2023).

Gaur egun, badirudi interesa dagoela beren helburuen artean ingurumen-inpaktu eta inpaktu sozial positiboa sortzeko xedea duten ekintzaitzeta-proiektuak sortzeko. Hala eta guztiz ere, askotan, helburu horiek ez dira zeharka lantzen, eta, beraz, «*green-pink-social washing*» deritzen asmoak baino ez dira. Horren adibide dira enpresa multinazional handien ekintzaitzeta-programak, ekintzaitzeta «berdea» eta «jasangarria» sustatzen dutenak, besteak beste.

Era berean, kontuan hartu behar da ESSren ikuspegitik ekintzaitzeta gizartea eraldatzeko tresna gisa erabiltzeko apustua egiten dela, eta horrek barnean hartzen dituela ingurumen-erantzukizuna, gizarte-inklusioa eta genero-ikuspegia. Proposamen hori erronka bat izan daiteke, eta konplexutasuna sor dezake ekintzaitzaren hasieran; izan ere, ezagutzan, denboran eta baliabideetan inbertitu behar da, eta askotan alderdi hori ez da hasieratik kontuan hartzen.

MgE-tik ekintzaitzeta sustatzen dihardugu, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegitik bide horretan lagunduz. Gure ustez, ESSren logikaren arabera ekitea positiboa da bai enpresak osatzen dituztenentzat, bai horien inguruarentzat. Horregatik, logika horretatik ekitea bultzatzen eta gomendatzen dugu beti. Baina, zuzen al gaude? Egiazta al daiteke praktikan gure ustez sortu dugun eragin positiboa?

Hurrengo lerroetan, aurreko galderei erantzuten saiatuko gara, bai eta alderdi teorikoan planteatzen dena Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan ekiten eta lan egiten duten pertsonentzako errealitate bihurtzen den egiaztatzen ere. Horretarako, ikerketa bat abiarazi genuen, eta hiru fasetan antolatu dugu metodologia. Lehenengoa, berrikuspen bibliografikoa eta dokumentala izan zen. Hortik abiatuta, bigarren fase batean, landa-ikerketa bat egin zen, ESSren esparruko

enpresetako emakume langileei 15 inkesta eginez. Langile gisa duten egoerarekiko eta enpresarekiko joeren, jarreraren eta iritzien deskribapen kuantitatibo eta kualitatiboa eman zuen horrek. Gainera, lau elkarrizketa egin zitzaizkien ESSko enpresetako ordezkariari eta langileei. ESSko erakundeetan langile gisa duten egoerari buruzko ideia-trukea eta elkarrizketa-trukea ekarri zuten.

### **Zergatik da positiboa Ekonomia Sozial eta Solidarioan ekitea eta lan egitea?**

Aztertu beharreko lehen puntua langileek beren lanpostuari buruz duten pertzepzioa da. Helburua da **ezagutzea zergatik aukeratu zuten lan-aukera hori (ESSn lan egitea), eta hartutako erabakiarekin pozik dauden jakitea.**

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen (aurrerantzean, REAS)<sup>2</sup> Printzipioen Gutuneko ekitate- eta demokrazia-printzipioak oinarritzko bi alderdi ditu: parte-hartze aktiboa eta gardentasuna. Horrekin lotuta, azpimarratu behar da azterlanean parte hartu duten erakundeek horizontalki antolatzen direla adierazi dutela, erabaki demokratikoak eta parte-hartzaileak hartzeko. Gaikako lantaldeen, talde estrategikoen eta batzordeen bidez lortzen dute hori. Erabakiak hartzeko, erakunde gehienetan bi batzorde mota bereizten dira: batzuetan, alderdi operatiboagoak eta teknikoagoak erabakitzen dituzte, eta beste batzuetan alderdi estrategikoagoak. Erabaki operatiboak eta egunerokoak hartzerakoan ez da alde handirik ikusten bazkide diren emakume langileen eta bazkide ez direnen artean. «Gure ustez, erakundeko kide bazara, interesgarria da argi eta itzal guztien parte izatea», adierazi du elkarrizketatuetako batek.

#### **«Gardentasunak eta demokraziak on egiten digute»**

Era berean, erabakiak hartzeko metodologia prozesu horizontaletan oinarritzen da, ESSren ereduaren logikari jarraituz.

Horrekin lotuta, interesgarria da adieraztea kooperatiben, elkartearen eta fundazioen legediek ezartzen dituzten kargu organikoak ez datozela beti bat erakundearen benetako barne-antolamenduarekin.

2. REASen Printzipioen Gutuna: <https://reas.red/carta-de-economia-solidaria/>

Horrek agerian uzten du sormenak duen garrantzia, ekosistema honetan demokrazia, parte-hartzea eta gardentasuna lortzeko.

Balantze Sozialari dagokionez, parte-hartzeari buruz interesgarria da azpimarratzea, 2023ko ikuskaritzaren arabera, erabakiak hartzeko prozesuetan 8 mila pertsonak baino gehiagok parte hartu zutela, hau da, emakume langileen % 40k baino gehiagok, eta erakunde horietako kide diren pertsona guztien % 3,6k. Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea genero femeninoaren parte-hartzea handiagoa dela aurrekontuak kudeatzeko planak egiteko eta onartzeko zereginean gizonezkoena baino (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarean Sarea (REAS RdR), 2023).

Era berean, zenbait erronka hautematen dira puntu honetan. Horietako bat lan-gainkarga da, erabakiak hartzean parte hartzeagatik, eta beste bat, askotan, parte hartzeko teknikak eta moduak nahiz modu asanbleario eta horizontaletik harago doazen metodologiak ez ezagutzea.

**«Lan egiten ematen ditudan orduetan, mundua bideratzen ari naiz, bidezkoagoa, demokratikoagoa, ekologikoagoa eta feministagoa izan dadin»**

ESSren Gutunak jasotzen duenaren ildotik, lankidetzarekin, elkarrekikotasunarekin, autokudeaketarekin eta elkartasunarekin lotutako balioak sustatzen dira ekimenetan. Hori guztia, ekonomia komunitario, demokratiko, ekitatibo, inklusibo eta jasangarriagoak eraiki nahi dituen ikuspegi eraldatzaile batetik. Azken batean, ekonomia feministak, ekologikoak eta solidarioak.

Azterlan honetan, **Ekonomia Sozial eta Solidarioan lan egiten duten pertsonen ideologiaren eta enpleguaren arteko koherentzia nola hautematen duten** aztertu nahi izan dugu. Inkestan parte hartu duten pertsonen % 100 oso pozik dago bere balioekin lerrokatutako enpresa batean lan egiteaz, bai eta egunero mundu hobe egiten eta sistema ekonomiko etiko bat sortzen laguntzeaz ere. Lehen enpresa konbentzional batean lan egiten zuten emakume langile batzuek distortsio handia sentitzen zuten beren bizitza pertsonalaren eta lan-bizitzaren artean: «Beste enpresetan, nire lanorduekin mundua okertzen ari zela sentitzen nuen, eta [ESS] bat dator erabat nire ideologiarekin. Eta hori da ondo sentiarazten nauen arrazoietakoa bat», dio inkestari erantzun dion batek.

Bestalde, oso positibotzat jotzen da balio berberak dituzten pertsonekin partekatzea lana eta proiektua. Aldi berean, bezero eta hornitzaile batzuekin lan egiteko «marra gorriak» dituztela adierazi dute pertsona batzuek. Kasu gehienetan, kolaboratzaileen profila guztiz lerrokatuta dago guztion zerbitzurako eta irabazi asmorik gabeko kooperatibismoaren balioekin, edo, gutxienez, ez du kontrako ikuspegi politikoa.

Azpimarratzekoa da, halaber, lanorduek zenbatzeko beste modu batzuk daudela, lanaren kontzeptu zabalago batean oinarrituta (askotariko lanak aitortzen dira, produktiboak eta ugalketarekin lotutakoak, profesionalak eta boluntarioak, ordainduak eta doakoak<sup>3</sup>). Hala, bada, ekimen batzuek baieztatzen dute gizarte-mugimenduetan aktibismoari eskainitako ordaindutako lan-orduak daudela. Parte hartzen duen kooperatiba baten kasuan, bazkide bakoitzak ordaindutako 25 ordu eskaintzen dizkio urtean aktibismoari. Bazkide bakoitzak askatasunez erabakitzen du zertan erabiliko dituen ordu horiek, eta ez da beharrezkoa justifikatzea.

**«Kontziliazioak eta ESSren hitzarmenek bizi-kalitatea izatea ahalbidetzen digute»**

Nabarmendu beharreko beste elementu bat lanpostuen lan-baldintza hobeak dira, hala nola kontziliazio-neurriak, soldata duinak edo langileen zaintza- eta ongizate-politikak. ESSren Printzipioen Gutunaren arabera, erakunde horietan enplegu duina sustatzen da; hau da, enplegu osasungarria eta emantzipatzailea, lankidetzan eta soldata-orekan oinarritua.

Aurreko paragrafoan esandakoa 2023. urtean argitaratutako REAS RdRren *Gizarte Ikuskaritzaren Txostenean* islatzen da: erakundeen eta emakume langileen erantzunkidetasunari dagokionez, erakundeen % 63,89k adierazi du barne-araudi bat duela, **aplikagarri den hitzarmenean ezarritako lan-baldintzak hobetzeko neurriak jasotzen dituen**, eta % 50ek legeak ezarritako baimenak hobetzeko neurriak jasotzen ditu, lana beste pertsona batzuk zaintzeko ardurekin, autozainketarekin edo aktibismoarako baimenekin **kontziliatzeko** gaiekin lotuta; neurri horiek emakume langileen bizi-kalitatea hobetzeko helburua dute.

3. REASen Printzipioen Gutuna: <https://reas.red/carta-de-ekonomia-solidaria/>

Ikerketa honen esparruan emandako erantzunak aztertuta, erakundeek % 42,1ek ez zuen sektoreko baldintzak hobetzeko hitzarmen edo lan-esparru propiorik. Baina horrek ez du esan nahi hobetzeko eta kontziliaziorako aukera horiek ez dituztenik, gauzatzen ez direla baizik. Baldintza asko banaka jasotzen dira lan-kontratuetan, edo erakundeek beren enpresa-kulturaren parte dira. Batzuek positibotzat jotzen dute erakundeetako langileei (bazkide direnei nahiz ez direnei) emandako konfiantza eta malgutasuna.

Langileek aitortzen eta balioesten dituzten hobekuntza nagusiak hainbat tipologiatan sailkatu daitezke:

#### **Atsedenaarekin lotutakoak**

Inkestari erantzun dioten pertsona askok adierazi dute hitzartutakoak baino opor-egun gehiago dituztela, eta ez dela beharrezkoa osasun-zentrora joatea baja formala eskatzeko, nahikoa dutela taldeari ondoezik daudela esatea eta egun horretan lanera ez joatea. Hori ez da osasun fisikoari lotutako gaiengatik soilik gertatzen, emozionalki ondo ez badaude ere berdin jokatu dezakete. Kasu gehienetan, erakundeek ez dute kontrolik ezartzen ordutegia betetzeari edo lanera joateari dagokienez; aitzitik, konfiantza, autokudeaketa, errespetu eta proiektuarekiko erantzukizun kontua da gehiago. Hau da, pertsonak arduraz jokatzen dute, eta behar beste denbora hartzen dute beren arazo pertsonaletarako; lanpostuen autokudeaketaren eta autonomiaren beste erakusgarri bat da hori. Halaber, adierazi dute aukera gehiago dituztela soldatarik gabeko eszedentziak eta baimenak lortzeko.

#### **Kontziliazioarekin lotutakoak**

Zenbait emakume langilek onartu dute amatasunagatiko edo inoren laguntza behar duten pertsonen zaintzagatiko bajak hobetu egin direla. Erakunde batek adierazi du amatasun-bajan dauden langileen erosteko ahalmenaren galera konpentsatzen duela, erakundearen funts propioen kontura. Legeak ezarritakoez haragoko zaintzagatiko bajak ere badaude, adibidez, odolkidetasunik ez dagoenean edo bigarren mailatik gorako ahaideak direnean. Elkarriketatutako ia pertsona guztiek nabarmentzen dute ordutegi-malgutasuna dutela lana eta bizitza pertsonala uztartzeko, ahal den neurrian. Eta, kasu gehienetan, posible denean, telelana egiteko aukera ematen diete.

Elkarriketatutako pertsona batek honako hau nabarmendu zuen: «Egin beharrekoak egiten badituzu, libre zara lana eta lanaldia nahi duzun bezala antolatzeko, oporrak ere nahi bezala antolatzeko, baldintza jakin batzuk arautzen dituen oinarritzko arau-esparru baten barruan betiere, gure zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko eta kalitatea zaintzeko.»

#### **Prestakuntzarekin lotutakoak**

Ia guztiek aurreikusten dute erakundeak ordaindutako prestakuntza-plan bat. Hala ere, lanaldian egin behar bada ere, ez da beti horrela izaten.

#### **Ordainsariarekin lotutakoak**

Sektoreko enpresa gehienetan gertatzen den bezala, ekonomia konbentzionaleko enpresetakoak baino soldata txikiagoak dituzte, baina langileen lansarien arteko aldeak txikiagoak dira. Azken Balantze Sozialaren datuen arabera, soldata-aldea 2 puntu ingurukoa da. Alde horretatik, erakunde gutxiak hobetzen dituzte soldatak nabarmenki hitzarmen bidez, zainketen sektorean aritzen den erakunde batek izan ezik. Laneko maila igotzeko planik ere ez dute aurreikusten. Horietako batek adierazi du osagai aldakor bat duen ordainsari-sistema bat duela, pertsona bakoitzak dituen familia-premien arabera; beraz, beren kargura mendekoak dituzten langileek 200 euroko plusa kobratzen dute. Erakunde guztiek adierazi dute soldatak KPIaren arabera eguneratuta dituztela.

Lan-baldintzen hobekuntzen esparruan, funtsezko hiru erronka daude:

- Enpresa-kulturaren parte diren hobekuntza horiek guztiak agerian jarriko dituzten dokumentu adostuak formalizatzeko zereginean aurrera egitea.
- Merkatuko testuinguruekin eta langileek bizi dituzten testuinguruekin bat datozen soldata-igoerak lortzen jarraitzea.
- Sektore gisa adostea zer aldagaik osatzen duten soldata duintzat har daitekeena.

**«Gu garen horretan, gure interesetan eta gure trebetasunetan oinarrituta eraikitzen dugu egiten dugu lana»**

Azterlanaren beste helburuetako bat **langileek beren prestakuntza eta esperientzia Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeetan betetzen duten lanpostura egokitzeaz zer pertzepzio duten ezagutzea zen**. Nabarmentzekoa da inkestari erantzun dioten batzuek

uste dutela alderantziz gertatzen dela hori. Hau da, ez dira lanpostuak sortzen eta horretarako pertsona egokia bilatzen; askotan, langileek sortzen dituzte beren lanpostuak, beren esperientziari eta prestakuntzari esker. Gainera, alderdi hori oso dinamikoa da, eta denboraren poderioz, pertsonak trebatu egiten dira eta beste trebetasun eta gaitasun batzuk bereganatzen dituzte. Pertsonak beren interesak aldatzen badituzte edo beste gai batean espezializatzea nahi badute ere, horretarako esparru bat eskaintzen zaie.

Elkarriketatu batzuek aitortu zuten eguneroko lanaren zati bat ez dela beren prestakuntzara eta esperientziara egokitzen. Askotan, burokratikoagotzat jotzen diren kudeaketa-lan gehienak taldeko hainbat pertsonaren artean banatzen dira, eta beren lanbideko lan espezifikoagoa erakundearen kudeaketa-lan administratibo edota burokratikoekin bateragarri egiten dute, askotan lan horietarako prestatuta ez dauden arren.

Alde horretatik, honako erronka hauek hauteman dira:

- Gaitasun handiagoa eskuratzea Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek kudeaketan eta lan-dinamika parte-hartzaile eta horizontaletan profesionalizazio handiagoa lortzeko.
- Plantillan estres-egoerak goiz detektatzea eta kudeaketarekin lotutako alderdiekin duten karga handiegia ondozko *burn out* delakoak langileengan sortzen dituen arriskuei aurrea hartu ahal izatea.

### Zergatik da positiboa enpresarentzat ekonomia sozial eta solidarioan ekitea?

Ikerketa honetan, ESSren barnean aritzeak enpresen **jasangarritasuna zer alderditan hobetu dezakeen** aztertu dugu, eta funtsezko bi alderdi identifikatu ditugu:

#### Laguntza eta dirulaguntza publikoak eskuratzea

2023ko Gizarte Ikuskaritzaren datuen arabera, ESSren esparruko erakundeek diru-sarreraren % 36 laguntza eta dirulaguntza publikoetatik dator. Erakunde horietako askoren funtzioaren eta izaeraren ondorioz (laneratzeko enpresen kasuan, esaterako), negozio-zifra erantsiaren laurden bat dirulaguntza publikoei dagokie; dirulaguntza horietako asko gizarteratzeko eta laneratzeko egiten duten lana ordaintzeko edo

pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen enplegua bultzatzeko dira. Inkestan parte hartu duten emakume langile askok uste dute arriskutsua dela erakunde bateko diru-sarreretan dirulaguntzen pisua handiegia izatea. *Ekonomia Sozialaren sustapenarekin lotutako zenbat dirulaguntza jaso dituzten* galdetuta, estatuan, batez beste, 1,3 dirulaguntza jaso dituzte azken 4 urteetan erakunde bakoitzeko, eta autonomia-erkidegoan, berriz, 4,5 dirulaguntza edo laguntza erakunde bakoitzeko.

Parte hartu duten erakundeek artean, zenbait ekimenek dirulaguntza publikoen bidez jasotzen dute diru-sarreraren zati handi bat; beste ekimen batzuen kasuan, berriz, zailagoa dute dirulaguntzen bidez finantzatzea, eta zerbitzuak ematen dituzte edo produktuak saltzen dituzte. Erakunde batzuek adierazi dute zaila dela laguntzak eskatzea, horiek kudeatzeko ezagutza eta esperientzia teknikoa behar baitira. Gainera, azpimarratzekoa da funts horiekiko mendeotasun handiegia duten erakundeek zaurgarritasuna, ziklo politikoen arabera izaten den aldakortasun handiagatik. Dirulaguntza eta laguntza publikoak bilatzeko, aurkezteko eta horien jarraipena egiteko eta justifikatzeko prozesuan teknifikazio eta finantza-gaitasun handiagoa duten erakunde batzuek aitortu dute dirulaguntza publikoak eskatzen dituztela horrelakoak eskuratzea zailagoa zaien beste ekimen txikiagoetarako baliabideak lortzeko. Era berean, Ekonomia Soziala sustatzeko laguntza publikorik jasotzen ez dutela dioten erakunde askok baieztatzen dute batzuetan diruz lagundutako proiektu horietan lan egiteko kontratatzen dituztela, batez ere komunikazioaren arloan.

#### Sareko lana

Elkarrekiko lankidetzan aritzeak abantaila asko ditu ESSko erakundeentzat, eta elkarri laguntzea da mugimenduaren zutabeetako bat. Hala, bada, erakundeek beharizan ekonomiko, sozial eta kulturalen erantzuten diete, bai berezkoei, bai komunitatearen interesen arabarakoei (Foncea, 2023).

Elkarrekiko lankidetzaren kontzeptua honela defini dezakegu: erakundeek arteko lankidetzaren eta laguntza-prozesuak, ordena sozialean edo ekonomikoan eta egitura juridiko hierarkikorik gabe. Elkarrekiko lankidetzako hiru esparru nagusi onartzen dira: soziala, politikoa eta ekonomikoa. (García-Jané, 2006)

Hautemandako lankidetza-maila zein den jakiteko, galdera bat sartu dugu inkestan, **ESSko kide diren entitateetatik diru-sarreraren eta gastuen zer ehuneko jasotzen duten jakiteko**. Horrek aukera ematen du oinarrizko elkarrekiko lankidetza ekonomikoa ezagutzeko, hau da, erakunde batek ESSko beste enpresa batzuei ondasunak edo zerbitzuak erosteko duen konpromiso-maila, beste merkataritza-enpresei erosi beharrean. Erakundearen arabera, 2023ko diru-sarreraren % 31,83, batez beste, ESSren sektoreko erakundeetatik zetorren.

Inkestari erantzun dioten pertsonen artean, elkarrekiko lankidetza ere giltzarritzat jotzen da berrikuntza eta ikaskuntza eskualdatzeko prozesuetan. Elkarrekiko lankidetza, beraz, proiektuen jasangarritasunerako eta hazkunderako estrategietako bat da. Pertsona askoren ustez, Merkatu Sozialak<sup>4</sup> elkarlanerako funtsezko guneak dira, hau da, «irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duen ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenerako, banaketarako eta kontsumo eta ikaskuntza komunerako sare bat, lurralde jakin batekoa eta Ekonomia Solidario eta Sozialeko enpresa eta entitateek nahiz kontsumitzaile indibidual eta kolektiboek osatutakoa; sare horren helburua da sareko parte-hartzaileek dituzten premien zati esanguratsu bati erantzutea eta ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistatik bereiztea, ahal den neurrian.»

Aragoiko Merkatu Sozialak (Foncea, 2023) elkarrekiko lankidetzari buruz egindako ikerketa baten arabera, gastu-kontuen azterketak agerian uzten du «Profesional independenteen zerbitzuak», «Salgaien erosketak» eta «Hornidurak» partidetan ESSren esparruko hornitzaileen hornidura handiagoa dela. Aitzitik, beste gastu-kontu batzuetan ez da ikusten ESSren esparruko hornitzailearik, edo oso ehuneko txikia da erosketen bolumen osoarekiko. Datuak sakonago berrikusi beharko lirateke, ESSren esparruko erakundeentzako merkatu-hobiak identifikatzeko.

### Zergatik da positiboa gizartearentzat ESSn ekitea?

Azterketaren azkeneko puntuan, ESSk maila globalean eta tokikoan lortutako azken aitorpenak jaso dira.

2023ko apirilaren 18ko 66. osoko bilkuran, Nazio Batuen Batzar Nagusiak honako ebazpen hau onartu

4. [www.mercadosocial.net](http://www.mercadosocial.net)

zuen: «Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzea Garapen Jasangarriko» (A/RES/77/281). Ebazpen horrek ESSren definizio ofiziala ematen du, eta hazkunde ekonomiko inklusiboago eta jasangarriago bati egiten dion ekarpena aitortzen du, oreka berri bat bilatzen baitu eraginkortasun ekonomikoaren eta gizarte- eta ingurumen-erresilientziaren artean. Horrez gain, dinamismo ekonomikoa sustatzen du baita ere, eta trantsizio digital justu eta jasangarria, babes soziala eta ingurumenarena, eta erabakiak hartzeko prozesuekin eta baliabideekin lotuta pertsonen ahalduzko soziorikologia bultzatzen du.

Bestalde, Espainiako Estatuan, lehenago aipatu dugunari jarraiki, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerio bat dago duela 5 urtetik, bai eta 2023-2027 Ekonomia Sozialerako Estrategia bat ere<sup>5</sup>; azken horren helburua da ekonomia soziala bultzatzea, herrialdearen garapen sozioekonomikoari laguntzeko.

Aurreko paragrafoetan adierazi denaren ildotik, bai ESk bai ESSk garapen ekonomikoa proposatzen dute, gizartearen eta ingurumenaren ongizatea barnean hartzen dituen, planetaren mugak errespetatuz, betiere. REASEk duela 10 urtetik proposatzen duen Balantze Sozialaren helburua hori guztia praktikan jartzen laguntzea da. ESSren tresna horri esker, enpresek beren jardunbideei buruzko gogoeta egin dezakete, beren jarduerak pertsonengan eta planetan duen eragina ezagutzeko. Azkeneko Balantze Sozialaren arabera, galdetegiari erantzun zioten enpresen % 97k adierazi zuen kontsumoaren hurbiltasuna eta praktika ekologikoak kontuan hartzen zituela; eta % 74k adierazi zuen neurriak hartzen zituela edota berdindu egiten zutela aztarna ekologikoa jarduerak ekonomikoan. Horrek argi adierazten du ingurumen-erantzukizuna ESSren DNAn dagoela. ESSren esparruko enpresek ingurumenarekin arduratsuak diren ekoizpen-, kontsumo- eta banaketa-ekintzak bultzatzen dituzte.

### Arrakasta: desira jasangarria

Amaitzeko, arrakastaz hitz egin nahi dugu. Ekonomia konbentzionalean eta, zehazki, enpresa-eremuan arrakastaz dagoen pertzepzioa neurtzeko, hazkundera eta enpresa-mozkinen handitzea hartzen dira kontuan.

5. Ekonomia Sozialerako Estrategia 2023-2027: <https://www.boe.es/boe/dias/2023/06/01/pdfs/BOE-A-2023-13033.pdf>

Beraz, garrantzitsua iruditzen zitzaigun nabarmentzea zer den arrakasta ESSren esparruan.

Alde horretatik, bi iritzi nabarmentzen dira: lehena jasangarritasun ekonomikoan oinarritzen da, langileen eta erakunde laguntzaileen jardura eta lan-baldintza duinak bermatzeko; bigarren maila batean, berriz, gizartea eraldatzea lortu nahi da.

Arrakasta eguneroko aresetanekin lotu zen, eta kontsumo-ohituren edo aldaketa kulturalen inguruan aldaketa politiko txikiak gertatu ziren. Alde horretatik, «anbizio jasangarria» terminoa sortu zen, garaipena metatutako ikaskuntzetatik, eragindako aldaketetatik eta enpresen biziraupenetik abiatuta neurtzeko, hazkunde ekonomikoaren beharrik gabe.

Elkarriketatutako erakundeetako batek haxe esan zuen: «Arrakastan pentsatzen dudanean, egin duzun horren gaineko begiradan pentsatzen dut». Ikuspegi horretatik, ESTik eta horren arauditik aitortu daiteke ibilbidea, bai eta eragile eraldatzaile gisa duen funtzioa ere, tokiko esparrutik nazioartera. Ibilbide horren bidez, arrazoi asko ikusten dira ESSa gomendatzen jarraitzeko, langileentzako, enpresarentzako eta gizartearentzako aukera onuragarriagoa den heinean.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu inkestari erantzuteko denbora hartu zuten eta elkarriketetan parte hartu zuten pertsonaei. ■

## Bibliografia

- Díaz-Foncela, M. &. (2014). *Las empresas sociales en España: concepto y características*.
- Foncela, D. M. (2023). *Intercooperación económica en la Economía Social: un proyecto piloto*. Zaragoza.
- García-Jané, J. V. (2006). *La dimensión cooperativa: economía solidaria y transformación social*. Barcelona: Icaria.
- Gourinchas, P.-O. (2023ko urriak 10). «La resiliente economía mundial avanza todavía a paso lento, y las divergencias están aumentando». *IMF Blog*.
- Martín, E. N. (2016). «La Economía Social y Solidaria: una economía para las personas». *Revista Colegio Economistas*.
- Espainiako Ekintzailetzaren Behatokia. (2023). *Global Entrepreneurship Monitor. Informe GEM España 2022-2023*. Kantabriako Unibertsitatea.
- Padilla, R. S. (2017). *Economías transformadoras de Barcelona*. Barcelona: Marge Books.
- Raworth, K. (2018). *Economía Rosquilla: 7 maneras de pensar la economía del siglo XXI*. Barcelona: Paidós.
- Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sarea (REAS RdR). (2023). *Auditoría Social*.
- Vinocur, R. (2018). «Conceptualizando, definiendo y aclarando algunos vocablos sobre la economía social y solidaria». *EsF Dossierrak*, 31. zkia.: «Prácticas y herramientas para impulsar la Economía Social y Solidaria. Una reflexión compartida».

**Millán Díaz-Foncia**

*LAB\_ES Gizarte Ekonomiako Laborategia, Zaragozako Unibertsitatea*

**Carmen Marcuello**

*GESES ikerketa-taldea, Zaragozako Unibertsitatea*

**Alberto Sánchez-Suárez**

*Gizarte Ekonomia eta Kooperatibak katedra, Zaragozako Unibertsitatea*

## **Sarrera**

2004an, Roy Levien-ek eta Marco Iansitik, Harvard Bussiness Schooleko bi irakaslek, *The Keystone Advantage* liburua idatzi zuten. Bertan argudiatzen zuten ezen, gaur egungoa bezain ingurune konplexu eta interkonektatu batean, enpresak ez direla uharte gisa ulertu behar, baizik eta arrakasta edo porrot kolektibo bera duten enpresa-ekosistemen parte gisa. Hori dela eta, erakundeek lehiaren ikuskera tradizionaletik harago joan beharko lukete, eta kontuan hartu beren erabakiek zer-nolako eragina duten kokatuta dauden enpresa-ekosisteman; izan ere, naturaren analogia bat eginez, ekosistema horren osasunaren alde bizi eta hilko baitira.

Ez dago interes komuna zaintzeko behar hori hobeto gorpuzten duen gunerik Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) ekosistema baino. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (NAK) dio elkarrekiko laguntza dela kooperatiba-mugimenduaren oinarrietako bat, eta elkar-lankidetzak, goragoko maila bateko lankidetzak gisa, funtsezkoa dela enpresa-sektore kooperatiboa zabaltzeko, bai nazioan, bai mundu osoan (NAK, 2015). Alde horretatik, hasierako pausoa kooperatiba-mugimenduaren zabalkunde-espituaren ondorioa da, kooperatiben garapen-sarea sortzeko helburuz, haien zuzeneko ekintza ekonomiko eta errepresentazioaren lurraldetik harago (Macías, 2023). Planteamendu hori kooperatibetatik harago ere heda daiteke, bat baitator ESSaren dinamikekin; izan ere, ESSaren dinamikek erakundearen arteko lankidetzak eta interdependentzia-kultura sustatzen dute oinarritik, pertsonak eta komunitateak bakartzen dituen lehia-eredua gainditzeko.

Euclides Mance-k (1999)—Solidarius.net sortu zuen—adierazi zuen beharrezkoa dela dinamika ekonomikoak aztertzea, postkapitalismoaren alternatiba gisa osatuko liratekeen zirkuitu ekonomiko solidarioak planteatu, eta norbanakoaren eta taldearen ongizatea sortzeko.

Alternatiba horiek osatzeko, Manceren iritziz (2008), garrantzi handia du «kontsumo produktiboak» —sarearen barruan egin ohi dena, beste enpresa batzuek «azken kontsumoa» osatuko duten ondasunak eta zerbitzuak ekoitz ditzaten—. Horrek sarea indartzen du, atzeraelikadura ahalbidetzen du eta eskari-ziklo berriak sortzen ditu (Mance, 2008). Hau da, ESSko erakundeek, ekonomikoki elkarlanean aritzen direnean, ekosistema indartzen laguntzen dute. Izan ere, ekosistema hori guztiz beharrezkoa da ekimen ekintzaile berriak ondo atera daitezen.

ESSko sareetan, aurrekari horiek «gizarte-merkatuaren» garapenean gauzatu dira, zeina, Ekonomia Solidarioaren Gutunean nabarmentzen den bezala, elkarlan ekonomikoaren bektore garrantzitsuenetako bat den. Aurreko txosten batean (31. zbk., 2018ko udazkena), Gáel Carrerok gizarte-merkatuaren definizioa proposatu zuen, «kontsumo produktiboaren» ideiarekin guztiz bat datorrena: «ESSaren printzipioekin konprometituta dauden ekonomia-ekintzaileen eta kontsumitzaileen arteko lankidetzak erraztuko duten ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-kate egonkorrak sortzea proposatzen duen ekimena da».

Hala ere, gizarte-merkatuaren garapenaren bidez elkar-lankidetzak ekonomikoari eta, zehazki, elkar-lankidetzak produktiboari garrantzi eta bultzada handia eman bazaio ere (Mance, 2008), gaur egun ia ez dago daturik horri buruz. Dagoen iturri bakarra REASen Gizarte Auditoretza da, baina horrek erakundeek beraiek ematen dituzten oinarritzko datuak eskaintzen ditu, kanpoko egiaztapenik gabe.

Datu-testuinguru horretan kokatzen da «Elkar-lankidetzak ekonomikoak gizarte-ekonomian: Proiektu pilotu bat» proiektua, Zaragozako Unibertsitateko GESES ikerketa-taldeak eginga, eta Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioiko Lan Autonomoaren, Gizarte

Ekonomiaren eta Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Zuzendaritza Nagusiak finantzatua.

## Proiektuaren planteamendua

Proiektuak zenbait helburu zituen. Lehenik eta behin, azterketa-metodologia baten oinarriak ezarri nahi ziren, gizarte-merkatuaren dentsitate ekonomikoa eta lurralde bateko ESSko erakundeen elkar-lankidetzaren maila ezagutzeko. Metodologia horren diseinua hiru faktore nagusitan oinarritzen da: eskalagarria eta erreplikagarria izatea, prozesua ahalik eta gehien automatizatu ahal izatea tresna teknologikoen bidez, eta datuak babesteko betekizuna betetzea eta behar besteko konfiantza sortzea erabiltzean. Hala, ahalik eta ibilbide praktikoa handiena izan dezakeen metodologia bat sortzeari eman zaio lehentasuna.

Modu eskematikoan, garatutako metodologiak honela funtzionatzen du: lurralde jakin baterako, ESSko erakundekin lan egiten duten aholkularitza-bulegoen laguntza eskatzen da. Erakunde horiek ESSko bezeroen urteko kontuak utzi beharko dituzte (kontabilitate-egunkaria eta fakturen erregistroa, eta bezeroak identifikatzeko datu batzuk). Ikertzaile-taldeak urteko kontu horietako 2. eta 6. kontabilitate-taldeak (ibilgetua, eta erosketak eta gastuak) aztertuko ditu. Kontabilitate-datu horiek erdiofizialak dira (Zerga Agentziari informazioa emateko balio behar dute), eta egindako truke ekonomiko bakoitzaren berri izateko aukera ematen duen xehetasun-maila dute.

Konfidentzialtasuna ziurtatzeko, aholkularitza-bulegoek urteko kontuak ez dizkiote zuzenean ematen ikerketa-taldeari, baizik proiekturako berariaz garatutako eta datuak anonimo bihurtzen dituen estranet batean kargatzen dituzte dokumentuak. Hala, aztertutako ekitaldietan ESSko erakunde bakoitzak gauzatutako kontabilitate-idazpenak eta hornitzaileen zerrenda orokorra eskura ditzake ikerketa-taldeak, baina ezingo du jakin, inola ere, zer erakunde zehatzek («X enpresa») zuzenean zer hornitzaile zehatzekin («Y hornitzailea») tratatu duen. Bereizi egiten dira ESSkoak diren hornitzaileak eta ez direnak —IFKren eta izendapenaren identifikazioen bidez—, eta, beraz, jakin daiteke bai gastu osoaren bolumena, bai erakunde/bezero horiek ESSko hornitzaileei egindako gastu-bolumena.

Datu anonimotuak lortu ondoren, aztertzen has daitezke. Proiektu pilotu honen kasuan, bi ikuspegi

bereizi proposatu dira: datuak erakundeen arabera aztertzea edo Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) kontuen arabera aztertzea.


Proiektuaren bigarren helburua da landutako metodologia Aragoiko kasuari aplikatzea. Azterketa aitzindaria da, eta eskualdeko dentsitate ekonomikoa eta elkar-lankidetzaren maila ezagutzeko aukera emango du. Bost urtean (2018-2022) ESSko 142 erakunderen datuak lortu dira. Erakunde horiek 6.000 hornitzaile baino gehiago izan dituzte, eta, horren ondorioz, 75.000 kontabilitate-ohar inguru egin dira.

Lanaren beste helburu bat da proposamen praktikoak egitea, azterlanean parte hartzen duten erakundeen elkar-lankidetzaren maila zuzenean garatzen laguntzeko. Proposamen praktikoa horiek era askotakoak izan daitezke. Planteatutako metodologia interesgarria da ekintzailetzaren ikuspegitik, aukera ematen duelako jakiteko zer arlotara ez den iristen eskualdeko ESSa, eta, hala, agerian uzten duelako eremu horietan lan egingo duten ESS erakunde berriak eratzeko beharra. Gainera, erakunde asko biltzen diren gastu-eremuetarako, pentsa daiteke denen artean kudeatuko den ESSko alternatiba bat eratzea, hornitzaile gisa jardungo duena. Bestalde, hornitzaileen analisiaren bidez, lehenik eta behin, ESSko erakunde batzuei —baina ez guztiei, agian ezagunak ez direlako— zerbitzua ematen dieten ESSko hornitzaileak proposa daitezke (hala, gizarte-merkatua modu organikoan zabalduko litzateke), eta, bigarrenik, hornitzaile bera baina ESSkoa ez dena erabiltzen duten ESSko erakundeen arteko erosketa-zentralak sor daitezke, horrekin lotutako kostuak murrizteko. Hala, datuak elkartuta, egoera zein den neurtzeko, lan horrek aukera ematen du ESSko erakunde berriak behar handiena dagoen eremuetan ezartzeko, eta lehendik instalatuta dauden posizioa hobetzeko.

## Kasu pilotuaren emaitza batzuk

1. irudian ikus daitekeenez, datuak bidali zituzten erakundeen bost milioi euro baino gehiagoko gastua egin zuten 2022an; aztertutako aldiko gasturik handiena izan zen. Gainera, ikus daiteke gastu hori azkarrago handitu zela ESSkoak ez diren hornitzaileentzat. Aztertutako aldian, batez beste, hornitzaileen % 8 ESSkoak ziren, eta aztertutako ESSko erakundeen gastuaren % 15 izan ziren.

**1. irudia.** Aragoiko ESSko erakundeen urteko guztizko gastua hornitzaileetan. 2018-2022




Iturria: Autoreak egina, <https://geses.dataria.com/extranet> helbideko informazioan oinarrituta

Datu horiek aztertutako erakundeen artean gizarte-merkatuak zer dimentsio duen erakusten dute, eta adierazten dute hazkunde-marjinaren potentzial handia dagoela gaur egun ustiatzen ez den gizarte-merkaturako.

2. irudian, dispersio-grafiko bat ageri da: aztertutako 142 erakundeetako bakoitzaren merkatu-kuota orokorra (X ardatza) eta merkatu-kuota soziala (Y ardatza) alderatzen ditu. Hala, batezbestekoarekin alderatuta duten posizioaren arabera, erakundeak 4 kategoriatan sailkatzen ditugu:

- **Beheko eskuineko izkina:** erakunde deskonektatuak, merkatu-kuota handikoak, baina gizarte-merkatuan parte-hartze txikia dutenak.
- **Beheko ezkerreko izkina:** inongo merkatutakoak ez diren erakundeak, merkatu batean zein bestean gastu txikia dutenak.
- **Goiko ezkerreko izkina:** erakunde konprometituak, merkatu-kuota txikia dutenak, baina gizarte-merkatuan kuota batezbestekoaren gainetik dutenak.
- **Goiko eskuineko izkina:** trakzio-enpresak, merkatu-kuota handiarekin, bai orokorrean, bai gizarte-merkatuan.

## 2. irudia. ESSan izandako gastuaren eta guztizko gastuaren arteko erlazioa aztertutako enpresetan



OHARRA: Lerro bertikalek eta horizontalek aldagai bakoitzaren batezbestekoa adierazten dute (% 0,72 bi kasuetan), eta horrek aukera ematen du erosteko ahalmena (oro har eta ESSan) adierazgarria den atalaseak ezartzeko.

Iturria: Autoreak egina, <https://geses.dataria.com/extranet> helbideko informazioan oinarrituta.

Trakzio-enpresek dute interes handiena. Erakunde horiek *benchmarking*-erako aukera ematen dute, hau da, egoera horretara eraman dituzten praktikak eta prozesuak aztertzeko aukera, beste erakunde batzuek (batez ere, deskonektatuek) gizarte-merkatuan parte har dezaten sustatzeko.

### Ondorioak

Proiektu pilotua besterik ez bada ere, lortutako emaitzak oso esperantzagarriak dira. Baliabide hori aurrera eramatea lortu da, eta 142 erakunderekin egindako probak aurretiazko ondorio interesgarriak eskaintzen ditu ESSa garatzeko.

Zehazki, gizarte-merkatuaren tamaina kuantifikatu da, lehen zehazten zaila zena, eta ESSaren garapen-marjina handiena zein arlotan dagoen identifikatzeko urratsak egin dira. Gainera, sailkapen bat ezarri da, erakundeak sailkatzeko aukera ematen duena haiek gizarte-merkatuari egiten dioten ekarpenaren arabera, eta beste emaitza batzuk ere eskuratu dira, artikulua honetan sartu ezin izan direnak.

Hala ere, proiektuaren emaitza nagusia datuak kargatzeko estranet webgunea izan da, proiektua beste lurralde eta azterketa-eremu batzuetara zabaltzeko aukera ematen duena. Nolanahi ere, proiektuaren garapena eta emaitzak datuak lortzeko aukeraren mende daude: aztertu beharreko erakundeen kopurua handituz gero —bai haien parte-hartze zuzenaren bidez,

bai haien aholkularitza-bulegoen bidez—, eta beste lurralde batzuetara hedatuz gero, gizarte-merkatuko eta ESSko elkar-lankidetzak ekonomikoaren ikuspegi zehatzagoa lortuko litzateke, adibidez, eskualdeen arteko konparazioak eginda, ESSko erakunde motaren araberako banaketak eginda... Bestalde, hori dena beste eremu batzuetara hedatu daiteke, hala nola elkar-lankidetzak ekonomikoa neurtzeko tokiko ingurunean (gertutasuna) edota ESSko talde espezifikoetan, adibidez, kooperatibetan.

Hasieran aipatu ditugun Roy Levien eta Marco Iansiti irakasleek ikuspuntu indibidual batetik planteatzen zuten enpresen eta haien enpresa-ekosistemaren arteko lotura, eta enpresei «ekosisteman zer eginkizun duten» edo «pilare-enpresa bat, nitxo-jokalari bat edo dominatzaile bat diren» galdetzerak animatzen zuten. Gure ikerketak ikuspuntua aldatu egiten du, ekosistema nola handitu jakiteko eta ESSko elkar-lankidetzak ekonomikoaren datuen azterketa palanka izan dadin ESSaren beraren barruko ekimen berrietarako, haren hazkundea ahalbidetzeko eta ekonomia- eta enpresa-eremu posible guztietan benetako alternatiba izateko. ■

## Bibliografia

- NAK (2015). *Notas de orientación para los principios cooperativos*. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa.
- Carrero, G. (2018): «Mercados Sociales: Un instrumento para la generación de tejido productivo en el marco de un proyecto transformador de la economía». *EsF Dossierrak*, 31. zkia, or 42-46.
- Macías Ruano, A.J. (2023). *La proyección legislativa de los valores cooperativos*. DYKINSON, SL argitaletxea
- Mance E.A. (1999). *La colaboración solidaria como una alternativa a la globalización capitalista*. Curitiba, Brasil.
- Mance, E.A. (2008). *La revolución de las redes: la colaboración solidaria como una alternativa pos-capitalista a la globalización actual*, Itaca Editorial, Mexiko.

BOLLIER, DAVID ETA HELFRICH, SILKE: *LIBRES, DIGNOS Y VIVOS. EL PODER SUBVERSIVO DE LOS COMUNES* (ICARIA, 2020)

Omar de León Naveiro

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea (UCM)

A spalditik daude oinarri soziala duten ekimenak, historikoki ezagutzen ditugun garaietatik, eta, ekimen horietan, lankidetzak harreman sorta handi bat hedatzeko bidea ematen du, askotariko premiak asetzeaz gain. Gizarteen nahiz beste espezie batzuen konfigurazioaren eta bilakaeraren azpian dagoen printzipioetako bat da elkarri laguntzea. Hala ere, gizarte-zientzietako paradigmak, ekonomiakoak bereziki, errealitate horri bizkarra emanda eraiki dira, gizarte-prozesuen azterketaren fokua gizabanakoarengan jarrita (*homo economicus*) eta gizon-emakumeon jokabidearen izaera soziala itzalean edo erabat ezkutuan utzita. Lankidetzaren ikuspegiak aukera ematen du prokomuna den horri esparru sozial batetik heltzeko, horrek ahalbidetuko baitie benetako pertsoneri (ez izaki arrazoiduntzat hartzen diren gizabanakoei) «aske izatea, besteak zapaldu gabe; ekitatea aldarrikatzea, kontrol burokratikorik gabe; elkartasuna sustatzea, inor hertsatu gabe, eta subiranotasuna berrestea, nazionalismorik gabe» (13. or.).

Gizarte-ekintzaren eta, bereziki, jarduera ekonomikoaren dimentsio horretatik abiatuta, ekonomia sozial bat garatu daiteke, merkatu-edo estatu-sistematik kanpo, balio desberdinetan oinarrituta. Erreseina honetan aztergai dugun liburuan, honela definitzen dute egileek *prokomun* kontzeptua: «gizarte-praktika autogestionatuen kategoria sendo bat da, beharrak modu justu eta inklusibo batean asetzeraz bideratzen dena» (15. or.). Bollier eta Helfrichen testuak komun izaera sozialari eta horiek mundu osoan izan duten ezarpenari buruzko azterketa sakon eta sistematikoa egiten du, hainbat ereduren ikuspegitik, hamar urtez baino gehiagoz osatutako lan honetan. Egile horientzat, *komunak* izendapenak gizarte-jardueren multzo zabal eta askotarikoa hartzen du barnean, hala nola iheslarien eremu baten antolamendua, osasun-zainketen sare bat, etxebizitzak modu zabal eta merke batean eskuratzea errazteko kode irekiko arkitektura-diseinuko eredu baten garapena, komunitateak sostengatutako etxaldean eredu bat ezartzea, edo Interneteko konexioa ezarri

eta kudeatzeko komunitate bat sortzea. Prokomuna gizarte-sistema bat da, ez dira baliabide fisiko hutsak. Ez dio erreferentzia egiten, soil-soilik, jabetza modu bati edo baliabideak kudeatzeko modu bati; aitzitik, jokabide sozialari dagokionez, barnean hartzen ditu harremanetarako edota ezagutzak nahiz jarrerak trukatzeko modu batzuk ere, zeinek helburu komun bat lortzerakoan lankidetzaz ezaugarri duten jarduerak ekarriko dituzten.

Aniztasun horren ondorioz, behar-beharrezkoa da esperientzia horiek modu holistikoan ulertzeko ahalegina egitea, bai eta komuneroek aurrez aurre dituzten taldeko arazoei aurkitutako irtenbideen muina ezaugarritzen duten ereduak islatzea ere. Liburuan egin den lanaren meriturik handiena, agian, eredu horiek identifikatzean datza, prokomuna den hori beste jardura batzuetara proiektatzeko ekintza-irizpideak ematen baitituzte. Adierazle bat, prokomuna, teorikoki eraikitze ahalegin goresgarria da eredu horien identifikazio enpirikoa (induktiboa), *ondasun komun*en definizioari eta horien ohiko analisiari dagokiena baino abstrakzio-maila handiagokoa, Elinor Ostrom-en<sup>1</sup> sorrera-lanetik abiatuta.

Hiru ataletan dago egituratuta liburua. Lehen atalean (1., 2. eta 3. kapituluak), prokomunaren ezaugarriak aztertzen dira. Gaiaren aurkezpen horretan, mundua ezarritako botereak –sozializaziorako eta kultura-hedapenerako bide guztietan– ematen digunaz bestelako modu batean pentsatzeko beharrari egiten diete erreferentzia ekarpen nagusiek, adierazita. Prokomuna dena sortzeak begirada berri bat garatzea esan nahi du, gauza guztien arteko *erlazionalitate* sakona eta mendekotasuna nabarmentzen dituen begirada bat. Zientzia da, hain zuzen, biraketa paradigmaticoa horren oinarritzko esparruetako bat. Prokomuna den hori modu naturalago batean ulertzen da «mundua sistema bizi integratuen multzo dinamiko eta aldakor gisa hartzen duen konplexutasunaren

1. Ikusi EsF 16 dosierra, 2015, hemen: <https://ecosfron.org/portfolio/el-procomun-y-los-bienes-comunes/>

zientzia batetik» (61. or.). Fenomeno erlazionalak ulertzera bideratutako hizkuntza bat eta loturan eta sarean ardaztutako arrazionaltasun bat indartuz, egileek *OntoBiraketa* bat (biraketa ontologiko bat) proposatzen dute, indarrean diren mundu-ikuskerek sortutako gizarte-antolamendua zalantzan jartzen duena. Ildo horretatik, subertsiboa da prokomuna sortzea, errealtate bat hedatzen baitu, kapitalismo neoliberaletik aldarrikatzen diren kontaketa ofizialarekiko eta gizarte-harremanekiko paraleloan eta modu alternatiboan.

Bigarren atala da (4., 5. eta 6. kapituluak) lan honen muina. Atal honetan identifikatzen dira, hain zuzen, aztertutako esperientzien azpian dauden ereduak. Askotariko arazoei hainbat testuingurutan aurkitu zaizkien irtenbideen ernamuinean dauden ideiak adierazten dituzte ereduak. Eraginkorrak diren eta egiaztatutako ondorioak dituzten neurrien multzoak dira, aldaketarik gabe irauten duten neurrien multzoak. Aurkitutako ereduak zorrotz definitutako hiru esparrutan kokatzen dira (egileek *Prokomunaren hirukoa* deritzote): Bizitza Soziala (gizarte-harremanen maila adierazten du), P2P Gobernantza (erakundeen eta antolamenduaren mailari egiten dio erreferentzia) eta Euskarri Integrala (arlo ekonomikoa). Hiruko horretako elementu bakoitzerako, 8-10 eredu aurkezten dira, ekintza esperientzia jakin batzuetara bideratzen dutenak. Komunuen esparruko ekintzak planteatzen dituen dimentsioen mapa baten antzekoak dira. Horiek horrela, ekintzarako orientabide bat dira, bai eta gida bat ere, hausnartzea komeni den zenbait dimentsio hautemateko eta, hala dagokionean, esperientzia jakin bakoitzean aritzeko.

Liburuaren hirugarren atalak (7., 8., 9. eta 10. kapituluak) komunuen unibertsoa hedatzea planteatzen du, eta prokomunaren esperientzien eta kapitalismoaren antolamendu sozialaren dimentsio konbentzionalen arteko erlazioak aztertzen ditu. Prokomunaren esparruko esperientziak oso logika desberdinekin antolatutako testuinguru ekonomiko eta sozialetan garatzen dira, halabeharrez, eta, askotan, haien praktika eta balioekin lotuta, gatazkak sortzen dira. Epe luzera begira, estrategia da prokomuna den hori sortuz hazten joatea, *Komunibertsioa zabaltzea*, haren dimentsio kulturala eta praktika sozialak hedatuz horretarako, tokiko esparruan batez ere; izan ere, esparru hori egokiagoa da herritarren arazoei irtenbide berritzaileak eta desideologizatuak emateko.

Bada zehatz lantzen den dimentsio bat: prokomuna den hori ezartzeko eta zabaltzeko eragozpen gisa jabetzak betetzen duen zeregina. Gobernantza horizontaleko esperientziak gauzatu nahi dituztenek esparru juridikoei aurre egin behar diete, bere garaian desjabetzeko sortu ziren tresnak baitira. Ebidentzia horren aurrean, legeak aldatzen saiatu daitezke komuneroak, presio politikoa egin dezakete beren proiektuak gauzatzeko, sozialki antola daitezke, edota, besterik gabe, desobedientzia zibilera jo. Benetako askatasuna pertsona guztiengana iristea nahi badute, behar-beharrezkoa da berriro pentsatzea jabetza-eskubideaz. Jabetza harreman-dimentsio gisa definitzeak duen garrantzia nabarmentzen du testuak; izan ere, gizarte-ekonomiako esperientzia askotan, bazterrean uzteko eskubideak, jabeen botereak eta merkatuekiko dependentziak mugatu izan dituen horietan, hartu izan diren jabetza kolektiboko formatatik (kooperatibak, elkarteak, GKEak edo fundazioak, esaterako) askoz harago doa. «Edukitzearen harreman-dimentsioak finkatzea» planteatzen dute egileek (266. or.). Jabetzari buruzko begirada berri batek dakartzan aukeren ikuspegia errazteko (ez da gauza erraza, gizarte-eraikuntzarako aukera alternatibo oro ezkutatu edo zigortu egiten den testuinguru batean), erlazionalizatutako jabetza sustatzeko oinarri-oinarrizkoak diren harremanen gida bat eskaintzen dute (269. or.). Hemen ere, komunuen kasuen lagin bat, askotarikoa, jarri da irakurleen esku.

Erromatar zuzenbideari dei eginez, ahalegin berezia egin da XVII. eta XVIII. mendeetan kapitalismoa hedatu eta desjabetze-prozesua gauzatzean albo batera utzi ziren zenbait figura berreskuratzeke. Esate baterako, *besterenezintasun* kontzeptua, zenbait ondasun salerosteko (eta, beraz, merkatuaren legeen pean jartzeko) debekua adierazten duena. Esate baterako, gizartearen ustez, ez da onargarria moralki giza organoak, pertsonak, ibaiak, botoa eta abar salerostea. Besterenezintasun kontzeptu horrek atea irekitzen dio gizakiontzat funtsezkoak diren ondasunen (lurra, txertoak edo gizarte-bizitzan oinarritzko zeregina betetzen duen beste edozein) gaineko jabetza-eskubidea mugatzeari. Bada, testuinguru honetan, garrantzi handia duen beste kategoria juridiko bat, *res nullius* deritzona. Jabetza-eskubidearen menpe jarri ezin diren ondasunak dira; ezin dute jaberik izan, eta horien adibide dira atmosfera, ozeanoak, arrainak, animalia basatiak eta sakratutzat jotzen den oro, esaterako. Besteekiko eta Naturarekiko lotura ulertzeko modu horiek egokiak dira prokomuna dena hedatzeko, jabetzaren harreman-izaera eta gizarteak hura arbitratzeko duen ahala nabarmentzen baitira horietan.

Jabetzarako beste esparru soziojuridiko batera joz, edukitzeak dituen harreman-dimentsioak susta eta finka daitezke, eta, ildo horretatik, bizi garen gizarte merkantilizatu honek zokoratu eta bazterrean utzitako harreman-moduak berreskura daitezke. Testuak eremu horretan jarduteko gida bat ere eskaintzen du, eta hainbat kasu aztertzen ditu, non komunek edukitzeko eta jabe izateko modu alternatiboetatik abiatuta antolatu duten beren burua. Supermerkatu desmerkantilizatu bat, esaterako, nahiz plataforma-kooperatibismoko esperientzia dinamiko eta berritzaileenak.

Testuan jorratzen den azken alderdietako bat (9. eta 10. kapituluak) prokomunak Estatu/merkatu sistemarekin duen erlazioarekin dago lotuta, elkar indartzen duten eta indarreko ordenaren adierazpen politiko eta ekonomikoa osatzen duten erakundeen bateratze gisa hartuta azken hori. Hannah Arendten argudioari jarraikiz, pertsonak elkartzen direnean sortzen da boterea, eta desagertu egiten da sakabanatzen direnean; ildo horretatik, prokomuna dena sortzeak boterea sortzea adierazten du, nolabait ere. Lankidetzan adierazitako botere bat da, bere antolamendu-eta gobernantza-sistemen bidez gauzatzen den lankidetzan. Aldi berean, estatu-boterearen berezko egiturekin harremanetan egon behar du prokomunak, eta harekin batera bizi behar du, bere izaera zainduz, ordena berri bat bultzatuz eta lehengora daramaten indarrak neutralizatuz. Azkenik, prokomuna den horretan gora egiteko zenbait estrategiaren zirriborroa egiten du azken kapituluak. Horretan, zeregin garrantzitsua betetzen dute prokomunerako gutun sozialek, antolatutako esperientzien benetako eraketek edo publikoaren eta komunaren arteko aliantzek, administrazioen baliabideak eta esku hartzen duten enpresen etekinak erlazionatzen dituzten aliantza publiko-pribatuen alternatiba gisa.

Bollier eta Helfrich egileen ekarpenak interes teoriko eta praktikoa izugarria du. Barnean horrenbeste alderdi hartzen dituen testu bat islatu nahi izateak oso emaitza ona eman du, gai honi buruzko eskuliburu gisa erabil baitaiteke. Landutako gaiaren zabalera bera, bestalde, bada zailtasun bat, ikuspegi filosofiko bat definitzeko orduan, eta, gainera, ekintzara bideratutako zenbait estrategia aztertzen eta proposatzen dira. Bai alderdi abstraktuenak, gizarte-harremanak eta -egiturak ulertzeko modu eta begirada berri bat planteatzen dutenak, eta bai horiek zehatz-mehatz islatzera zuzentzen direnak lan espezifikoaren xede izango dira ziurrenik, eta komunaren ezagutzan eta azterketan sakontzen lagunduko dute; baina ez da ahaztu behar hori, neurri handi batean, esperientziak ugaritzearen mende dagoela. Esperientzia horiek dira, hain zuzen, pentsamoldea aldatzea eskatzen zaigulako posible ez dela iruditzen zaigun horren aurrean ditugun erresistentziak gainditzeko modurik onena.

Elkarri laguntzeko printzipioaren adierazpen eraginkorrenetako bat da prokomuna. Hortxe hartzen du izaera eraldatzaileena, nagusi den ordena liberalak ezartzen digun konpetentziak definitutako eta banakoen artean ezarritako harremanak gainditzeko bide gisa. Gure espeziearen funtsezko ezaugarrietako bat da lankidetzak; lankidetzak horrek ahalbidetu du gure espeziearen bilakaera den bezalakoa izatea, eta hori egon da gizarte-garapeneko fase bakoitzean. Hainbat antolaera ekarri ditu, hala nola gremioa, sindikatua eta, berrikiago, ekonomia sozial eta solidarioko askotariko adierazpideak. Alde horretatik, prokomuna zabaltzea gure izaera sozialean espezie gisa definitzen gaituzten irrikarik oinarritzkoenak dakarzkigun fenomeno da. Erreseina honetan aztertu dugun liburua erabilgarritasun handiko ekarpena da prozesu horretan. ■

## ■ NAZIOARTEKO ZENBAIT ERAKUNDEREN XEDAPENAK, EKONOMIA SOZIALA ETA KOOPERATIBISMOA BULTZATZEKO

- Nazioarteko Lan Erakundearen 193. Gomendioa, kooperatibak sustatzeari buruzkoa, 2002koa (193. zk.): [https://normlex.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100\\_INSTRUMENT\\_ID:312531](https://normlex.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_INSTRUMENT_ID:312531)
- CEuropako Batzordeak Europar kooperatibak sustatzeari buruz Europako Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeen Lantaldeari helarazitako jakinarazpena /\* COM/2004/0018 final \*/: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:52004DC0018>
- Europako Parlamentuaren 2009ko otsailaren 19ko Ebazpena, Ekonomia sozialari buruzkoa. [https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-6-2009-0062\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-6-2009-0062_ES.html)
- Europako Parlamentuaren 2013ko uztailaren 2ko Ebazpena, kooperatibek krisitik irteteko egin dezaketen ekarpenari buruzkoa. [https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-7-2013-0301\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-7-2013-0301_ES.html)

## ■ EKONOMIA ERALDATZAILEEI BURUZKOAK

- Sama, S., Sanz J., Alcañiz, G., Alquézar, R., Siguero, A., Dore, M., Carrero, G., Novillo E., & Vinocur, R. (2023). *Economías Transformadoras: desafíos y herramientas para la transformación ecosocial*: [https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2023/12/Economias-Transformadoras\\_def.pdf](https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2023/12/Economias-Transformadoras_def.pdf)

## ■ EKINTZAILETZARI BURUZKOAK

- Mugarik gabeko ekonomialariak. El Nido. Ekintza sozial eta jasangarriko plataforma birtual irekia: <https://elnido.ecosfron.org/>
- *Mugarik gabeko ekonomialariak (2023). Guía gestión básica para la gestión de entidades de Economía Social y herramientas de financiación*: <https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2023/12/Guia-basica-de-gestion-de-empresas-de-economia-social-18012024.pdf>
- *Mugarik gabeko Ekonomialariak (2023). Kit de herramientas de emprendimiento social y solidario*: <https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2023/12/Presentacion-kit-de-herramientas-IV.pdf>
- *Mugarik gabeko Ekonomialariak (2023). Kit de emergencia. Empezar desde las Economías Transformadoras*: <https://ecosfron.org/presentamos-kit-de-emergencia-empezar-desde-las-economias-transformadoras/>
- REAS Euskadi (2020). *¿Por qué emprendes? Solo para los locxs*: [https://www.youtube.com/watch?v=d\\_8aF0NwuiA](https://www.youtube.com/watch?v=d_8aF0NwuiA)
- REAS Red de Redes. *Microsite de emprendimiento en la Economía Social y Solidaria de REAS Red de Redes*: <https://reas.red/emprendimiento>
- REAS Red de Redes (2023). *La ESS y su contribución al trabajo digno mediante la promoción del emprendimiento cooperativo*: <https://www.economiasolidaria.org/recursos/informe-la-ess-y-su-contribucion-al-trabajo-digno-mediante-la-promocion-del-emprendimiento-cooperativo/>

- REAS Red de Redes (2023). *¿Empezar o no empezar?: Pasos para un emprendimiento sin morir en el intento*: <https://www.economiasolidaria.org/noticias/empezar-o-no-empezar/>

## ■ EKINTZAILETZARI ETA FEMINISMOEI BURUZ

- Escuela de Emprendedoras Juana Millán: [www.escueladeemprendedoras.es](http://www.escueladeemprendedoras.es)
- FETS (2023). Encuentro de Economías Feministas y Finanzas Éticas: <https://www.economiasolidaria.org/recursos/sistematizacion-encuentro-de-economias-feministas-y-finanzas-eticas/>
- Juntas emprendemos: <https://www.juntasemprendemos.net/>
- Juntas emprendemos (2022, 8 de noviembre). El síndrome de la impostora. En *Carne Cruda*: <https://www.economiasolidaria.org/recursos/el-sindrome-de-la-impostora-juntas-emprendemos-9-en-carne-cruda/>
- REAS Red de Redes (2020). *Dossier sobre Economías Transformadoras*: [https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2021/04/NAVEGANDO-POR-LAS-ECONOMIAS-TRANSFORMADORAS\\_REAS-RED-DE-REDES-1.pdf](https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2021/04/NAVEGANDO-POR-LAS-ECONOMIAS-TRANSFORMADORAS_REAS-RED-DE-REDES-1.pdf)
- REAS Red de Redes (2021). *Las mujeres en la ESS: perfil de competencias y necesidades de formación para incrementar y visibilizar su liderazgo*: <https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2021/02/Las-mujeres-en-la-ESS-1.pdf>
- REAS Red de Redes (2023). *Kit de emergencia. Economía feminista. Cómo poner los cuidados en el centro*: <https://reas.red/kit-de-emergencia-economia-feminista-como-poner-los-cuidados-en-el-centro/>

## ■ DESAZKUNDEARI ETA JUSTIZIA KLIMATIKOARI BURUZ

- Ecologistas en Acción: <https://www.ecologistasenaccion.org/>
- Observatorio de la Deuda en la Globalización: <https://odg.cat/es/publicaciones/justicia-climatica/>

## ■ ELKARREN ARTEKO LANKIDETZARI BURUZ

- Idearia 2022: <https://www.economiasolidaria.org/ca/idearia-2022/ejes-idearia-2022/>
- PamaPam-Interkooperazioa: <https://pamapam.org/intercooperacio/>

## ■ LANDA-ESPARRUARI BURUZ

- Foro Emprendimiento Rural e Innovación EREA +. El impulso del territorio: <https://ereaa.aragonemprende.com/foro-emprendimiento-rural-e-innovacion/>
- Social Soluciones S. Coop. de Iniciativa Social (2019). *Manual de buenas prácticas para el emprendimiento social en el ámbito rural*: <https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/06/Manual-de-Buenas-Pr%C3%A1cticas.pdf-1.pdf>

1. dosierra: «Garai berriak garapenaren nazioarteko lankidetzarako», 2011ko apirila.
2. dosierra: «Mundua kontsumotik aldatzea?», 2011ko uztaila.
3. dosierra: «Itzalak mikrofinantzetan», 2011ko urria.
4. dosierra: «EGE krisiaren aurrean», 2012ko urtarrila.
5. dosierra: «Garapenerako lankidetzak krisi-garaian. Eragile berriak, helburu berriak», 2012ko apirila.
6. dosierra: «Krisia, herritarren haserrea eta gizarte-mugimenduak», 2012ko uztaila.
7. dosierra: «Beste politika ekonomiko bat posible al da?», 2012ko urria.
8. dosierra: «Banku etikoa posible al da?», 2013ko urtarrila.
9. dosierra: «Desberdintasuna eta gizarte-kohesioaren haustura», 2013ko apirila.
10. dosierra: «Elikagaien segurtasuna: Eskubidea eta beharra», 2013ko uztaila.
11. dosierra: «2015 ondoko garapen-agenda: Lehengo bidetik edo trantsizioaren hasiera?», 2013ko urria.
12. dosierra: «Ekonomia lankidetzan», 2014ko urtarrila.
13. dosierra: «Beste ekonomia bat abian dag», 2014ko udaberria.
14. dosierra: «GEK: Erretorika gainditzeko», 2014ko uda.
15. dosierra: «Ekonomiaren irakaskuntza», 2014ko udazkena.
16. dosierra: «Prokomuna eta ondasun erkideak», 2015eko negua.
17. dosierra: «Garapenaren finantzazioa eta 2015 ondoko Agenda», 2015eko udaberria.
18. dosierra: «Beste ekonomia bat abian dago (II. jardunaldiak)», 2015eko uda.
19. dosierra: «Gizarte-bazterketak», 2015ko udazkena.
20. dosierra: «Zerga-sistema: efizientzia eta ekitatea», 2016eko negua.
21. dosierra: «José Luis Sampedro gogoan», 2016 2015eko udaberria.
22. dosierra: «Beste ekonomia bat abian dago (III. jardunaldiak)», 2016eko uda.
23. dosierra: «Ongi bizitzea, gizartearen paradigma alternatibo gisa», otoño 2016ko udazkena.
24. dosierra: «Energia. Erronkak eta arazoak», 2017ko abendua.
25. dosierra: «Genero-ikuspegia ekonomia sozial eta solidarioan», 2017ko udaberria.
26. dosierra: «Gure gizarte- eta ekonomia-ereduari buruz berriro pentsatzen», 2017ko uda.
27. dosierra: «Inpaktuko inbertsioa», 2017ko udazkena.
28. dosierra: «Globalizazioaren gobernuak», 2018ko negua.



- 29. dosierra: «**Ekonomia feminista: ikusezina ikusgai egiten**», 2018ko udaberria.
- 30. dosierra: «**Begirada kritikoak eta zeharkakoak**», 2018ko uda.
- 31. dosierra: «**Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko praktikak eta tresnak: partekatutako gogoeta bat**», 2018ko udazkena.
- 32. dosierra: «**Enpresako Demokrazia Aldarrikatzen**», 2019ko negua.
- 33. dosierra: «**Elikaduraren etorkizuna munduan**», 2019ko udaberria.
- 34. dosierra: «**2030 Agenda: gatopardismoa edo transformazioak**», 2019ko uda.
- 35. dosierra: «**Gizarte erantzukizun korporatiboa Elikagaien industrian**», 2019ko udazkena.
- 36. dosierra: «**Demografia: aldaketak ugalketa-ereduan**», 2020ko negua.
- 37. dosierra: «**Ekonomia zirkularra: aukera burutsua**», 2020ko udaberria.
- 38. dosierra: «**Funtsezko ekonomia: Herritarren ongizateari laguntzen**», 2020ko uda.
- 39. dosierra: «**Ekonomiaren Oligopolizazioa**», 2020ko udazkena.
- 40. dosierra: «**Espainako ekonomiaren ekoizpen-eredua berrantolatze bidean**», 2021ko negua.
- 41. dosierra: «**Garapena**» Neurtu (Eta Ulertzeko) Beste Modu Batzuk», 2021ko udaberria.
- 42. dosierra: «**Gizarte digitala, itxaropenak berreraikitzen**», 2021ko uda.
- 43. dosierra: «**Europa, pandemia eta krisi ekonomikoa**», 2021eko udazkena.
- 44. dosierra: «**Covid-19: ondorio sozial eta politikoak eta erantzuteko politikak**», 2022ko negua.
- 45. dosierra: «**Finantza Jasangarriak: Inbertsioaren Paradigma Berria?**», 2022ko udaberria.
- 46. dosierra: «**Unibertsitate aurreko hezkuntzari erronka jarri nahian: irakaskuntzako bestelako praktika batzuk bestelako ekonomia baterako**», 2022ko uda.
- 47. dosierra: «**2030 Agenda eta Ezinbesteko Paradigma-Aldaketa Unibertsitatean**», 2022ko udazkena.
- 48. dosierra: «**Enpresa-Eredu Berriak Eta Demokrazia Ekonomikoa**», 2023ko negua.
- 49. dosierra: «**Finantza-sistemaren digitalizazioaren erronkak**», 2023ko udaberria.
- 50. dosierra: «**Ekonomia espainiarra bidegurutze kritikoan**», 2023ko uda.
- 51. dosierra: «**Ekonomiaren eraldaketa digitala: lanean dituen eraginak**», 2023ko udazkena.
- 52. dosierra: «**Bidezko Trantsizio Ekosoziala**», 2024ko negua.
- 53. dosierra: «**Zilarrezko ekonomiari buruzko ikuspegi kritikoa**», 2024ko udaberria.





Economistas  
sin Fronteras

MgE dosierrak  
54. zk, 2024ko uda



cooperación  
española

Laguntzailea



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Lankidetz  
Cooperación



**Mugarik gabeko Ekonomialariak**

c/ Gaztambide, 50 (sarrera SETEMen  
lokaletik barrena)  
28015 • Madril  
Tel.: 91 549 72 79  
ecosfron@ecosfron.org

**Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi**

EKONOPOLo, Harrobi Plaza, 4,  
48005 Bilbo, Bizkaia  
Tel.: 722 371 633  
ecosfron.euskadi@ecosfron.org